

TXOMIN PEILLEN

**JAN DABROWSKI**



TXOMIN PEILLEN

**JAN DABROWSKI**

**Utriusque Vasconiae**

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du*

© Txomin Peillen

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2012ko uztaila

ISBN: 978-84-939967-1-0

Lege-gordailua: SS-839-2012

Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu

Azaleko irudia: Marie-Thérèse Olivier

Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaileak:

BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)

Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

## AURKIBIDEA

Albiste hitsa . . . . .	7
Auzira . . . . .	25
Savoian, argibide okerretik . . . . .	31
Eguzki semeak . . . . .	41
Ezkontzatik heriotzara . . . . .	65
Bide berriak . . . . .	79
Zakopane . . . . .	87
Negua . . . . .	99
Polonian sartzeaz oroitzapenak . . . .	111
Nowa Huta . . . . .	137
Historia dela-eta . . . . .	143
Ekologistekin . . . . .	151
Ilia Tabakowski . . . . .	155
Bizitza berria . . . . .	165
Azkena . . . . .	171

## ALBISTE HITSA

Dabrowski dut izena. Atezaindegi ilun eta heze batean bizi gara. Bai, erdi ilunpetan argi-hiria omen den hiri honetan. Paris! Paris! Ipar Frantzian bizi nintzenean Parisez amets. Orain hemen nagozu eta gure ipar ikatz herri lainotsuetan baino eguzki gutxiagorekin askietsi behar.

Berriki poztu gara: gure hamar urteko semea, bi asterako, mendira eskolarekin joan delako. Zaintzen dugun etxeko patio txikian, kaiolan katagorri baten antzean inguruka ibili arren, argi eta eguzki barik frantses txikoria erregabearen gisa zuri-zuria jarria zen. Dagoeneko bere pozezko bi gutun jaso ditugu.

Lanak aspertua ohe ertzean jarri berria naiz. Norbaitek atea jo du. Etxeko biztanle nazkagarri baten bat, apika. Ez. Jendarme bat eta beste gizon bat niri zuzentzen zaizkit:

—Zu zara Dabrowski jauna

—Bai.

—Tadeusz, zure semea?

—Bai, mendian dago. Zerbait gaizki egin al du?

—Gaizkirik ez, txarrago..

—Zer?

—Desagertu da.

—Desagertu?

—Eseririk egon, otoi!

—Istripuren bat gertatu zaio.

—Eta gorputza desagertu?

(Mendi eguzki ordez semeak Herioren itzala aurkitu likek? Birrintu hitz hori ulergaitza zaik, onartu ezina).

—Bai, makina batean hartua, suntsitua hil da.

—Birrintu, diozue. Haren gorputza ikus nezake?

—Ez, ez. Makina-tresna batek birrintu egin duela esan dizut.

—Makina?

—Ziurtasun osoko gisugintza labeak hiru gizonekin bisitatzen zutenean gertatu da. Gisu karraskagailu tramankulu batean erori da eta zatiak alboko labean erre.

Esnatzen naizenean lurrean etzanik nago. Andrea alboan, eta bigarren bisitariak bere maletatxotik odol tinkadura eta bihotza aztertzen dizkit. Zer gertatu zait? Emaztea negarrez. Bai, jazoeraz oroitzen zait. Harrigarria. Ilea lazten du. Hainbeste kostarik eduki dugun seme altxorra galdu dugu. Negarrik gabe, zotinak andrearen ahotik. Nik berdin. Ezin da. Eta zergatik gure semeari.

Ongi balio zuen Czestoskowako birjinaren medaila bat eman gienezaión eta otoitz egin! Ez dira haren zaintzeko gai izan, ez irakasleak ez eta lagunak.

—Eta hiltzera zihoala ikusi al dute?

—Bai zure etxe honetan bizi den Patrik haren lagunak gaztigatu digu.

—Eta lagunek zer egin dute?

—Karraskagailura itzuli. Han gainean parka zati bat ikusi.

—Eta oinazerik jasan du?

—Hango langileek diote, kasu horietan, aurretik bat batean ito daitekeela.

Sendagileak bioei indizio eginik 20 orduz lo egin dugu. Iratzartzean biak haserre gara. Zeinek izan ote zuen haurra mendira bidaltzeko asmoa? Andrea kanpora joan da. Atezain lanaren egunerokotasunera itzuli gara. Etxeko patio-putzu, ilunaren alde batetik dagoen zakartegira joan naiz. Zakarrontziak beterik daude. Bihar goizeko ordu txikietan kalera aterako ditut. Etxe zahar madarikatu honetan gure ipar herrietan legez ikatzez berotzen dira eta ikatz ekarleari sotoko atea ireki behar diot.

## **Aljeriako laguna**

Atzo, Dabrowski «Egonezina» soldadu laguna kalean topatu dut. Apur bat harritu nau, nola hain ipariparziale zen Jan, Parisera etorri den. Banekien gogo mugikorrekoa genuela. Gizon horrekin zerbait egin nezake. Baina atezain dela? Banekien zelan aita meatze-gizona zen eta bera meatze-mutil lanean hasi arren, Aljeriako gerra zela-eta, soldadutzara deitu zuten.

Gudaltegian, kasernan, lehen egunetan adimenaren ikertzeko testetan, gailurrenetan azaldu zen. Harriduraz aurkitu zuten ez zuela inolako diplomarik. Armadak ikasketak eskaini zizkion. Ofiziozko militar egin nahi zuten, ofiziala egin hain argia eta tirari ona zen mutilarekin, baina... baina egonezina zen. Ez zen gudaltegitarako on. Lehen egunetik ez zuen gaurik igaro nahi izan kuartelean, tapia igo eta kanpora lo egitera. Jan lagunaren herriko maite kutuna Maria Wlakowacz Parisera etorri berria zen eta harekin

gauak, gualtegi hits batean, soldadu zurrungariek baino ederrago zitzaizkion.

Zehazki kontatzeko, kasernan gau batzuk halabeharrez igaro zituen, ezen bizpahiru aldiz tapiaren gainetik igotzen hartu baitzuten eta aldi bakoitzean zortzi egunez giltzapean sartu. Askatu eta hurrengo gauean kanpoan zegoen.

Kintako ofizial E.O.R. eskolako prestakuntzara joateko egunean, ofiziozko ofizial batekin borrokatu ondoren, giltzapean zegoen, eta armadak ia etsitu zuen harekin. Aljerian berriro behin edo beste, elkar ikusi genuen. Soldadu hutsa zen, baina atzo kontatu dit nola handik bizirik atera zen.

Behin, kintako ofizial ezkertiar batek, bere gizonekin mendian zebilela, gerra bidegabekeria hutsa zela eta, *felagah* gudariei bere burua ematea erabaki zuen.

Gizonak abisatu zituenean Dabrowski «egonezina» sasi baten atzean jauzi batean gorde zen, besteak *kati-bari* buruz bandera txuria eskuan urruntzen zirelarik.

Noski, delako felagah gudariak ez zeukaten preso etsaiak non gorde eta frantsesek armak eman ostean, lotu zituzten. Gero lurrean etzan eta bana balekin akabatu. Jan Egonezinak tiroak entzun zituen eta baliatu zitzaion ezin egona. Hori esan ondoren galdetu nion:

—Ez diat ulertzen nola atezain hagoen?

—Besterik ezinean eta alferrik ez egon nahi.

—Hobeki hintzateke mendi batean emazte ta haurrarekin eta hi, aizkolari edo kanpoko lan batean, argian, eguzkitan eta euritan berdin. Nik, lagun talde batekin mendian horrelako bizitza zaramat.

—Horik ametsak dituk. Ez nauk bakarrik. Ezkondua nagok.



—Bai, bai, ulertzen diat, Jan, baina beste zerbait beltzik ez al duk kolkloan?

—Orain, ordea, beste egitekorik diat. Zerbait argitu nahi diat: zelan berriki nire seme bakarra Savoiako Alpe mendietan zegoela, hil zen?

—Hil?

—Gisugintza bateko karraskagailuan. Helduen ezaxolaz, erori birrindu eta erre. Helduen ezaxolaz!

—Hire bizkortasun eta gogo biziari fidatzen naitzaiek, Jan. Utz iezadak hire helbidea, eta kontsolatzeko, bizitzen jarraitzeko orduan ikustera etorriko naitzaik.

## **Maria, ama**

Semea birrindu ezkerro senarra ez dun gehiago ikusten. Negar eta lan artean utzi hau. Berak dio, bere buruaren apaltzeko, atezaina dela, baina nik haren andreak diot, ezetz, ni naizela. Hik ditun eskailerak igo eta jaitsi garbitzen. Hik postako gutun eta paketeak, igo eta jaitsi, banatzen. Bai hamasei ate jo behar ditun eta hor ez badaude, egun osoan atezaindegian egon, haiek postakoa eska dezaten zain egoten.

Nork, goizean goiz jaikirik, zakarrontziak kalera atera behar ditu? Gehienetan nik. Berak zer egiten din, etxe zahar honen berotzeko, neguan, ikatza berolabeaz sartzen. Senarra, bai senarra egon ezina –semea kutsatu duena– senarra beti lanez aldatzen dena; lanezko nagusi batekin haserretzen, bestearekin aspertzen.

Aspaldian senarrak bere eredu txarrarekin zernahitarako haren jakin mina berotuz semeari gogoa bi-

rrindu dio. Han, nonbait, mendi madarikatu haietan semea galdu dugu eta zer baldintza itsusietan!

Nahi nuke, merezi nuke, atsedean apur bat. Bakea. Nork? Zerk emango dit? Gurasoek irakatsi poloniar katolikotasunak ez baihinduen gogobetetzen, galduxe dun. Orain familiaren helburua apurturik, intxaur oskol kraskatu bat bezala zatikatua hago. Noiz arte egongo haiz senarraren zain eta semearen itxaropena galdurik? Gizonak, noski, hitz erdizka adierazi din beste haur bat egin genezakeela. Zer? Aita irudi izateko?

Neska urteetan, amets gorriarik gabe hengoan. Hire gisako erosotasunean, aietasunean: lanetik landa hire gela txokoaren erdi isiltasunean, bakean. Zergatik Maria buruan sartu zitzainan, Parisen soldadu zegoelarik harekin ibiltzea?

Zergatik itzuli hintzen Ipar Frantzia hotzeko Ro-court jaioterrira? Janekin ezkontzeko? Hanka bat hautsi bahu hobe. Hark erakarria, omen. Hi, bakarrik lasai bizi hintzen. Lehenbizikoz erosotasun apur batekin eta Jan Frantziako bizitza latza ahazten. Gero, azkenean zortzi urtez Frantziako herri aberats izan den horretan ikatz meatzeak, ehundegiak zerratzten ikusteko. Lanik gabe egoteko

Gero, kontsolamendu emateko Parisera erakar-tzea, hire errua dun, apika. Zer jarduten dun hemen eta noiz arte putzu beltz honetan? Ezkontzearekin ez hion Jani eskatu arrimu edo zurkaitz izatea, bakarrik aski sendo hintzen. Hark, ordea, uso argal, apal, ba-bestu beharra ikusten hau. Uste din gizonezkoak gu baino indartsuago direla, gorago direla eta gu Eba txar-rak errukiz zaindu beharra.

Amets egin huen, ordea, ezkontzean gogaide bat izanen huela, hire ideiak eta sinesteak ez bazituen ere, bien arteko egitasmu iraunkor bat izatea; bai, gorpuztez haina gogoz loturik, elkaturik.

Orain, konturatzen haiz haren erosotasun txikiaren osagai hutsa solasgai bilakatu zaidala. Kezkak gaintu zaizkionean haiek aipatuz belarriak betetzen dizkin, asetzeraino betetzen. Gero hire urduritasunaren aipamenik ez din aditu nahi.

Harentzat zer haiz bestela? Hitaz, hire sentimenduez arduratzen ez dena, ez eta larrua jotzean ere. Zer haiz? Haren sabel isurkia gaintitzen zaionean: zulo bat, etxe ordeko horretara sartzen denean mahai ipinia, gelak garbirik edukitzeko neskamea; berak etxean laguntzeko eskua higitzen ez duelarik.

Sarritan, besteei baizik ez zaiela gertatzen gogozkatzen dun. Bai Olga hire gazte laguna italiar aurpegi ederreko eta irri goxoko batekin ezkondu zenean, ikasi zinan zer den egunetik gauera igarotzea. Gau berean Olgak eskatu zionean, otoi, automobilean utzi zerbait ekar ziezaion. Mozki ezetz esan zionan. Italian andreek ez dutela agintzen, eta italiarrek badakitela andrea gizonaren behean, azpian dagoen jendea dela. Italiarra, behintzat zurikeria gabe mintzo zunan, hire Jan horrek ezer esan gabe, hirekin berdin jokutzen din.

Orain, argi dun bere buruaz eta semeaz kanpo harentzat, apaingarria, jostailua eta langilea baizik ez haizela. Pentsaketa horrek laguntzetan hau ulertzen zergatik geroago eta gutxiago maite dunan, zergatik harekin gozatzea eginbehar nazkagarria bilakatzen ari zainan.

Hitzeman zinan, laster, etxe bizitza eroso eta libre, noiz izanen dun? Irudi zain, atezain gelatxo ilun

horietara kondenatua haizela. Ala ez? Baina nola atera, nola irten hemendik, lan finko gabeko gizonarekin eta hik antzinako lan ona galdurik?

Neke zain onartzea Tadeusz semea hilik dagoela, baina istripu hori ulertzen dun. Hamar aldiz seme egon ezina arriskutan jarri zitzainan.

Sarritan semeari eskatzen hion bere sekretuak kontatu zitzan, baina ez zitinan hire aholkuak entzun nahi ere “Gizonak gizonekin” erantzuten zinan. Eta istripua, istripua bahi-gabe horren errurik ez dun.

Utzan arren gogoeta! Eguneroko lan arruntak deitzen hau. Ostera, etxeko jendeen aurpegi zuri eta sasi-dolumenak jasan behar. Badakin haien begietan zer dagoen: nolako emakume haragi ederreko, sendoegia haizen, begi berdeduna eta hire ile gorriengatik susmagarria egiten, eder guztiak puta bailiran.

Bigarren solairuko agure mukizu hori sudurretik zintza eta ahotik lerdea dariona, eta neskazale kantari ziztrin hori ere, geroago eta nardagarriago zaizkin. Semea eta senarra galdurik, alargun zuri bat bahintz legean, irudi liken haientzako nekez eta zintzoki egiten dunan lana haien karitatea dela.

Senargabetua, senarra joana, baina non dabil zergatik ez hau deitzen? Zegoeneko, bakarrik hengoenean borrokatu haiz eta egun batean, jagoitik ikusiko zinen denek nor haizen, zeren senarrak eta besteek ez haute kontsultatu, ez ditun hitaz arduratu.

Zer lekua atezaindegia? Goiz eta arrats hemen egoteko eginbearra. Hormen behereko aldeak gesalduak, anpulatuak hezetasunez. Bai, heze mindu usain sarkorra, aldageletan, soinekoak urdintzen ari, sukaldeko hatsa iletan lotzen, hotzaren ginoa. Jan Dabrowskiri

behin aipatu hizkion eta lazki erantzun zinan meatze gizon bezala gaizkiago bizitu zela, ikatzak ura zerio-la, ke artean, argi ahulekin eta betiko bere meatzetako kondairak, Aljerian gertatuak oihalpean, bero eta hon-dar haizeen artean, beraz hireak ez zitunan ezer.

Goizetik arrats argia pizturik, erdi ilunpean gau-delako, lanaren histeko belztura. Jakin, senarrarentzat pitxia haiz, erakusgarria, edergarria. Behin esan zia-tenen “Ikusi al duzu aberats hori neska ziztrin itsusi horrekin?” Argi zegonan, bera behartsua izan arren, hi bezalako neska ederrarekin agertzen zela.

Hemendik noizbait irtengo al haiz ala hemen ez-tulez eta ustelduz itsutuko, erituko, gortuko? Hori ez dun senarraren kezka, beste arrangurarik omen din. Uste ote du, itsu-gor horrek, harri pitxi baten gisa, ez haizela higatuko, zimurtuko?

Bai, isilik geratzen haiz eta hor ere isiltasun hori leporatzen din. “Erantzun zaidazu arren!” eta ihardes-ten dioanean isilarazten hau. Gero hironek zer edo zer galdetu nahi dioanean ez din bere gurutzegrama ma-darikatu edota historia liburu lodietarik sudurra altxa-tzen ere. Gainera galdetzen diodanean zer irakurtzen duen, erantzuten din, ez dela hire mailako irakurgaia. Hi haizela etxekandere ona eta ohaide ona. Bai, hi haiz portzelanazko ontzi hauskorra, baina hutsa. Apainga-rrri gisa kanpoan eta barrenean eder.

Militar egon behar zukeen gudua hain maite zue-nez eta diziplina isiltasunean bermatzen zuenez. Nes-kek beti miresten dinagu, ustekabean, beharrik gabeko, gizon gihartsu sendo eta bizkartzain izanen duguna.

Orain iratzartzen hasi haiz. Ez dun gehiago horre-lako batean sinesten. Ez dun gehiago maite eta maita-

sun sua, maitasuna itzali ondoren lagunaren akatsak argi. Oi zein eder eta goxo zen, ezkongabeen, Janekin elkar ikustea. Orain, harekin larrua jotzea ere kostatzen zain. Zer atsegin du automobila baten zisternak gasolinaz betetzen denean? Harekin lo egitea aspergarri zain, tabako hotz usain hori ahotik, bilotik eta buruko iletik dariola. Zein aspergarri eta lo kentzaile haren lo zurrunga! Noiz arte?

Antzina, lanerako urruntzen zenean bihozmina, samina hire gogoaz jabetzen zunan, orain joaten denean ez dion ere galdetzen zenbat egunentzat, noiz arte: hura joan eta gero aske haizela iruditzen zain. Noiz arte?

Ez dun gehiago maite. Eta hark ote? Oroitzen haiz, ezkongabeen gure harremanak bikain zirela, ziola. Ez zinan, orduan, higan akatsik ikusten. Nire galderei erantzuten zienan eta nik ere harenei.

Ziurrik, hark ere ez hau gehiago maite, gogotik maite, nahiz hire gorputzaz zerbitzu egin.

Argi dun oraindino senarra ezpada matxista osoa bere gizontasun harroa nonbait hazten duela. Oroitzen haiz urtebete igaro zuen lan batean nolako erdeinua zerakutsan buruzagi izateko irritsa zeukanan andre bati eta lagunek aiherrago zutela zionan. Bai horixe lagunak iritziei amore ematen, eta agian, berriz merezimendu gutxiago zukeen gizon buruzagi-nahia beti goraiiputzen.

Zer gara andrezkoak eta gizonezkoak bi kasta desberdin ezik? Ez dute oraindik gizajo horiek ulertu lanarekin haien berdinak izanen garela, izan ere azkenean aholkulari ona, hire gorputza eskatu barik, hire ideiak onartzen dituena, aurkituko dun.

## Neska neskazalea

Ni, Juana Exposito nauzue. Musikazale amorratua, musika zer den ez dakitenen artean bizi. Pariseko etxe horretan, bosgarren pisuan bizi naiz. Bakarrik bizi. Gizonik ez. Haurrik ere ez nahi. Zer gauza zikina, zaratatsua ninia. *Qué horror!* Handiago direnean ez hobe.

Aski jasan ditugu honaino etxe honetan bizi diren umeak. Bai hirugarren pisuko semea eta atezainaren egonezin horren artean etxeko patioan, haien borrokek eta gatazkek, bazkalondoko loa eragozten zidaten. Hemendik goiti, arauetz, etxea isilago izango da. Atezainaren seme birrindu egonezinaz ezin dut negarrik egin.

Neska lagunak bai gogoko ditut. Igaz korukoak etxera ekarri nituen; orduan gauerditan *a cappella* kantatzen genuen eta zein ederki! Hirugarrengoa, Patricken aita hori, leihotik oihuka hasi zitzaigun lo egitea eragozten geniola. Gau hartan denak isil joan ziren. Flora itzuli zitzaidan, ordea, ikustera. Ulertzen ninduen.

Florak, gizonak gorroto ditu. Nik ere. Beren usain zatar, esku latz, ahots lodiekin piztiak dira, gizonak. Gau minean Flora hostokatu nuen eta laztanez ilegabeko larru leun hori musuz jan nion, larrua eta beste. Haren titiaren beroa! Haren xaxaren bustia!

Mekaniko basati horrek eta atezain hartz horiek beren matxismoarekin ez dinen sekulan Florarekin daukadan amodioa ulertuko eta Schuberten musika gutxiago. Guk zorionez ez dinagu semerik ez alabarik izango, ez eta adoptatuko; gero drogan edo prostituzioan sar daitezten?

Etxe honetan antzina jende ederrak bizi gintuan, orain mekanikoa eta ikatz meatze gizon izana.

Hemendik joan behar huke. Zergatik ez Floraren pisu ederrera bizitzera? Bihar aipatu behar dion.

Geroztik bi aker usainezko gizon horiek, Patricken eta Tadeuszen aitek, begi gaiztoz begiratzen dinате. Ballekite zer dudan gogoan, zenbat gorroto ditudan, egu-nero haienganako higuina beretzen zaidalarik?

## **Patricken aita**

Aitor dezadan andrearekin aho ukaldi handiak izan ohi ditudala, baina egunaz. Gaueko hamarretan denak isilik, ez beste lesbiana hori bezala gauean kantuz eta goza intziriz. Lanean ez da nekatzen dontzeila. Gu bai senar emazteok eta seme zaharrena goizik lanera joanaz. Ni, hirugarren solairuko etxekojauna nauzue. Patrick seme gaitza, deabrua dut, baina ez du Dabrowskiren semearen gisako astakeriarik egin, behar ere ez.

Halatan ere semea ez dabil, galdu lagunaren heriotzaz, bihozminez. Ez zuen batere maite laguna, nahiz etxe honetan beste lagunik ez eduki. Niri ere bitxi irudi zait gertatu den istripua.

Gaur, Patrick semea baserrira, aitonaren etxera igorri dut. Ordu zen. Nahiko belarri ona izan dut semearen ahotsa ezagutzeko. Atezaina ukaldika ari zitzaion. Ostikoka eta belarrondokoka eta Patrick orroaz. Bai gure semea bestearen heriotzaren lekukoa izan delako beste zerbait aitorrarazi nahi zion. Semea askatu eta eroan dut.

Bai, aita hark bazekizkien gure Patrickek haien Tadeusz ez zuela maite eta gisugintzako makina hartara gorrotoz bultzatu zuela aitorrarazi nahi zion. Errazegi da halaxe defentsa gabe ume bati zernahiren esanaraz-



tea. Berehala etxetik urrundu behar izan nuen, baitirudi atezainak, polako horrek, ia burua galdu duela.

Gizona, hiri gertatu balitzaik, zer egingo huen, bai? Semeak poliziari esana, hiri buruz buru, berriz kontatu dizkik: besteak bisita jarraitzen zuten bitartean Patrick Tadeuszekin atzean egon zela. Karraskagailuaren ikus-tera itzuli zirela.

Tadeusz babes barandatik goiti igo zela; han behaztopatu eta erori zela. Patrickek oihu egin zuela, baina makinaren zaratarekin ez zutela entzun. Gero, besteen deitzeko goiti joan omen zen eta besteak arte horretan behera, korridoreetan galdu, eskailera okerra hartu eta beranduxea irakasleak eta guraso laguntzaile urduriak autobusaren ondoan baizik ez topatu.

Goiti itzuli zirenean Patrick eta hiru gizonak kare harri errautsaren azalean, oraindik parka zati bat ikusi zuten, baina ez zuten beste frogarik mutikoa han hil zela, beroarekin dena erre baitzen.

Ez nion semeari gehiago galdetu, nahiz ahotsetik zerbait ezkututzen zuela nabaritu. Honekin dena ez zaik argi. Semea baserrira bidali duk, beragandik dena jakin gabe.

Orain hasiko dituk harentzat eta hiretzat arazoak Joan haiz auzoko liburu dendara. Ikusi behar duk kazetariak zer dioten.

## **Egunkariak**

*Le Parisien* (eskuin herrikoia)

«*Un accident horrible*»

«Istripu lazgarria»

Istripu lazgarria atzo Alpeetan gertatu dena. Mendiaren aire ona hartzera joan mutiko bat makina batean erori da. Ikaratzeko moduan hezur eta haragiak puskatu dizkio eta gero zatiak labe batean erre-erreak izan dira. Zer bihozmina gurasoentzat! Aitaren argazkia atera dugu baina ez digu hitz egin nahi izan.

Ezbeharra ikusi duen Patrik umeak kontatu digu nola laguna itsutuki defentsa barandara igo eta erori egin zen, kare erraustuaren gainean bere *parkaren* zati bat utziz. (Bi argazkiak egunkarian).

***Le Figaro*** (eskuin burgesa)

«*Un accident de négligence et d'irresponsabilité*»

«Ezaxol eta arduragabetasun ezbeharra»

«Irakaslearen ardurari ihes eginik gisugintza batean, “klase berde” batean zegoela, ume bat itsuski birrindua eta erabat errea izan da. Guraso garen aldetik kezkatu gaude. Pedagogia berriaren izenean, geroago eta gehiagotan, irakasle ezaxol batzuek gure haurrak hil galbideetan jartzen dizkigute».

“Jende horiek beren eginbide orokorra eta beren zeregin zehatzak zer diren ikasi behar lukete, honelako izugarrikeriarik berritu ez dadin”

“Bestalde, irakasle ezaxolek merezi duten zigorra hartu behar lukete. Auzia laster egingo zaie.(Argazkirik ez).

***Le Monde*** (ezker burgesa)

«*Information*»

«Albistea»

Badakigu helduekin ere gaurko makineriarekin lehen bezainbeste istripu badela, alegia lan istripuak eta hori langileak arriskua ezagutzen duelarik. Pentsa haurrak! Urte guztiz lauhun bat haur honela hiltzen da. Berriki paristar ume bati gertatu heriotza deitoragarria eta jakingarria da, gisugintzako makina batera istripuz erori baita: edozein makina babestua, barrandatua izan arren kaltegarria, hilgarria izan daitekeelako. (Argazkirik ez)

## Irakasleak

—Ernest Brun, maisu jauna zer sasi trinkoan sartu gaituzu?

—Bai zuzendari jauna deitoratzen dut eta ulertzen zure larritasuna.

Eskola zuzendariak, orduan, beroaldien artean aipatu dik nola Dabrowskik auzitegira deituko hauen eta hirekin zuzendaria: bai, alegia, haurrak leku arriskutsu batera eroan genituela eta batik bat, hik Ernestek, ez huela ongi zaindu. Ongi zaindu eta nola zaindu! Ala horrelako kasuetan haur bakoitzerako behar genuke heldu bat edo bizkartzain bat atzetik jarri? Ez zaik arazoa argi. Ez al du Patrickek bere laguna bultzatu?

Gainera ez hituen umeak azoketako abereak bezala lotu behar izan, denek artoski, eta isilki gidariari entzuten baitzioten. Bazekien gizon hark haurren jakin-mina pizten eta apur bat miretsirik egon hintzen, bost'orduz hain gaitz izanak zintzoak zirelako.

Zintzoegi, beharbada, beste biek beren jokutruaren jaulkitzeko balia zezaten.

Orain zuzendariak esan dik ez zuela beste beharrik: lan bizitza guztia hain ederki joan zitzaioz, azken urtean zikindu behar huela? Hire kasua txarragoa duk ezen istripuaren erantzule izatea bizkarreratzen diete-lako eta epaitzen bahaute, gutxienik lan lekuz aldatuko haute eta zurrigo lanetik kanpoa emango, eta hori bi mutiko, piztien antzean, jokatu direlako.

Noski, horrelako istripuez zaintzeko eskolak asegu-rua dauka eta hik ere guraso eta ikasleek egin dezaketen auziez lagundua izateko segurantza ere. Hori-ek guzti-ek ez haute kontsolatzen. Hik oraindik ez duk hire lanal-dia bukatu eta erretiroa urrun.

Garai honetan prentsako batzuek umeen inguruko gorabeherak, hobeki saltzeko, beltzatzea gogoko ditek. Ez haute bakean utziko. Jadanik telefonoa moztu be-har izan duk, gero etxera etorriko zaizkik eta auzunean bakerik ez duk izango auzia edo oporrak etorri arte.

Etxeko auzoek ez hautela gehiago agurtzen? Bost axola. Kezkatzen hauena duk kaleko jendeen iritziak zer eragin izan dezakeen auzitegien erabakietan, gaine-ra jendeen iritzi hori prentsa molda dezakeela eta ira-kasle izateak ez hauela lagunduko.

Lo egiteko hire buruaren drogatzen hasi haiz, bai-na horrek hire kemena epeldu dik eta bizkor egon be-har huke orain. Egunero Postakoaren erpai goiza larri joaten zaik. Asteburuetan etxetik ihesi bahoia. Ez duk hori bizitzea. Bi abokatu izango dituk asegurukoa eta sindikatukoa. Ez dituk gehiegi izango, irakasleak begiz jota daudenean. Bai damutzen zaik eta garbaia buruan sartzen, haurren onerako egiten diren hainbeste eki-men nola ume txar batzuek suntsi dezaketen.

Beste behin, beste behinik baldin bada, irakasle zaharren gisa, eskolatik eskolara ibiliko haiz eta handik kanpo ezer ez duk egingo.

## AUZIRA

Egonarriz entzun huen eskolako zuzendaria. Aurrera beste kontu; librean bada ere, auzitegira agertzera hoa. Eskolaren eta etxearen inguruan berriketari, ugari. Epaitegiaren ondoan euli ezpara berdinak, gehi argazkilariak; aurretik itaunka eta hik erantzuten epailearekin batean entzungo hautela. Ordurako, batzuk auzoekin esamesak sortzen ibili dituk, hire buruan zorriak eta bilatzen. Gurasoek ez haute gehiago agurtzen.

Gaur, ostera, honelako zurrumurru txarra auzitegian sartzen haizenean. Norbaitek sartzean oihu bat botatu dik, baina poliziak kanpora eman dik. Txutxumtxu eta begitanzioek jarraitzen. Nola daiteke, hi, hain justiziaren alde mintzatu eta ibilia, epaitegira susmoz deitua izatea.

Orain, ezagutzen duk lege jende horien eskuetara erortzen denean zelango larrialdia, zer antsia buruan sartzen den. Hire hitz guztiak epaileen, prokuradorearen eta aurkako abokatuen bazka bilaka daitezke.

—Ernest Brun jauna deklaratzera etor dadila.

—Ni naiz... jauna.

—Zin egizu, egia osoa eta egia baizik ez duzula errango. Esku eskuina eraiki eta erran ezazu: «Zin dagit».

—Zin dagit.... jauna.

—Gezurra aurkitzen badizugu zure kaltetan izango da. Hemendik aurrera zure hitz guztiak kontutan hartuak izango dira.

—Bai, jauna.

—Zu zinen egun hartan 2001. urteko ekainaren 26.an, Gambetta eskolako haurrekin Alpeetako Chablais mendietan «klase berdearen» arduraduna.

—Bai guraso batekin...jauna.

—Zer izen du gurasoak?

—Nik bezain ongi dakizu...jauna.

—Galdetzen dizut haren izena.

—Jean-Jacques Boulanger....jauna.

—Zenbat haurrekin?

—Dakizuen bezala hogeita bostekin....jauna.

—Doixka, ozta-ozta: hamar haur eta heldu bat da legea.

—Bisita garaian hiru ginen.

—Zergatik ez zen zuetarik bat, jarraitzen zutenek ikusteko, haurren atzetik egon?

—Denek zintzoki eta isiltasunean gidari zuzen eta argiaren hitzak entzuten jarduten baikin.

—Barkatu, baina irakaslea ezin da entzule hutsa izan edo bisitari arruntaren gisa ezin da ibili; beti umeei begira eta haien zaintzen baizik.

—Aitortzen dut hasieran honela egin nuela, baina haien zintzotasunaz oharturik haiengan fidatu nintzen... jauna.

—Irakaslea zara. Adin horretako haurrak oraindik abere txikiak baino ez direla jakin behar zenuke, baita bat batean gaizki egiteko ideiak eduki ditzaketela.

Hiru epaileek beren arteko eztabaida izan dute. Paper batzuk hartu, elkarri erakutsi. Epaileak keinuka, bekokian zimurrak mugituz. Jendea hizketan hasi da. Geroago eta ahots ozenagoz. Epaile buruak isiltasun apur bat eskatu du. Entzuleei gogoratu die leku duin batean daudela eta epaimahaiaren eta ebazpenen lasaitasuna errespetatzen. Aurkako abokatuek hitza daukate. Galdera bitxiak egin dizkirate. Ezkondua naitenez, haurrik badudanez. Behar nukeela jakin, semea eduki eta nolakoak diren adin horretako mutikoak.

Mutiriki erantzun diet gure semea etxean hezia izan dela, eta eskolak ezin zituela hezi, etxean egin ez zirenak. Ohar horrek epaitegi gelan protestak piztu ditu. Nolabait hor dauden gurasoek beren buruak ukituak ikusi dituzte.

Urrunegi joan haiz, hor eta epaile nagusiak gogoratu dik, hi haizela, haur gaizki heziak bezainbeste, errudun haizena.

Behin behinekorik, aurreko aulkira esertzera joan nadin esanik, beste gizon bat deitzen dute. Bisitatzen genuen enpresaren buruzagia. Izena eman ondoren, zin egin ondoren:

—Zu zara gisugintzako ugazaba?

—Bai jauna.

—Istripua gertatu zenean ez al zegoen langilerik han?

—Ez. Berri samarra da gure lantegia: berez, langile gabe, ibiltzen den makinaria du.

—Eta haurrak uzten dituzu bisitatzerara?

—Bai. Ikusi genuenean hogeit bat haur, gidariaz gainera, bi gizon helduekin, ez genuen gure lantaldeko bat baizik igorri.



—Eta babes barrandarik ez zegoen?

—Baietz bai, gizon baten handitasuna baino gorago. Tximinoa izan behar hara igotzeko.

Ondotik, Boulanger guraso laguntzailea mintzatu duk. Bere buruaren zuritzeko eta aseguruaren paperen arabera bidai denboran eta lo tokian laguntzeko baizik ez zela hartua izan, ziok. Ikasketa bisitetan edo klase garaietan ez zela erantzule.

Boulanger-k gaineratu die, aski trakeski, epaileak haurrak piztiekin alderatu dituenetz geroz, nola sinets dezakeen haurren hitzak eta haginak berdindugabeko bi mukizuengatik, hainbeste istorio bizitu behar izana.

Auzitegi Gelan zurrumurru txarra entzun da eta epailea haserrez irrikan bero-berotua; gogoratu die gurasoei bera dela epailea. Eta entzuleei zuzenduz, baldin aretoaren isiltasuna ez badute errespetatzen zaindariei jendeak kanporatzeko eskatuko diela.

Hartarik landa, bi hurrek deklaratu dute esanaz bazekitela eta banekiela Tadeusz Dabrowski, nahiz ez gaiztoa izan, mutiko egonezina zela eta istripua ez zela harrigarria edozein saiotarako gerturik zegoelako. Azkenean benetako lekukoa Patrick agertu zen. Hark ere zin egin. Urduri, arrangura zirudin.

—Istripua ikusi zenuen?

—Bai, bai.

—Konta ezaiguzu.

—Tadeuszekin makina karraskaria ikusteko atzean egotea erabaki genuen eta beste lagunak aurrera zihoatzela, gu ate baten atzean egon.

—Nola onartu zenuen Tadeusz laguntzea? Lagunek eta lekuko askok esan digute ez zinela Tadeuszekin batere adiskide.

—Bai, ez beti.

—Eta nola hitzartu zenuten?

—Hitz gutxirekin.

—Gero?

—Tadeusz babes barandatik goiti igo zen.

—Eta zu ez?

—Ni, ez. «Tade» tximinoa bezain trebea zen.

—Eta nola, berez, erori zen?

—Nik ez dakit hango beroak itoa edo?

—(Hilaren aitak dio). Beharbada, hik, goiko pa-  
retan zegoela, makinara bulkatu huen. Lekuko gabe,  
bakarrik hintzen, ez?

(*Bai, oraintxe egia, egin duena, aitortuko duela ume  
gaizto horrek*)

—Ez jaunak. Komedia horrekin ase naiz. Gaine-  
ra, egia aitor nezan Tadeuszen aita horrek zaflatu nau,  
jipoitu nau. Horregatik ez diot egia erran. Tadek eska-  
tu zidan gezur hau konta nezan. Ez da makinan erori!

—Zer diozu?

Isiltasun latza gelan. Jendea txunditurik.

—Bai ez dela erori, ez dela birrindu.

Zurrumurru eta oihuen artetik entzuten da

—Diozu, ez dela hil?

—Ez. Ihesi egin du. Etzuen Parisera gehiago sartu  
nahi, gero gurasoak abisatuko zituela. Mendan bizi  
nahi zuela. Gezurra esatea eskatu dit bere labana ede-  
rra emanaz trukean. Nekez erdietsi zuen makinara be-  
re *parkaren* botatzea.

Izerditik ikarara igaro haiz, hi irakasle akusatu na-  
gusia, laidoztatua. Irudi zaik koba zulo batean argi bat  
ikusten duala. Entzuleak denak batean hizketan eta  
eztabaidan sartzen dira. Entzule liskartuak nekez isila-

razten ditu epaileak, eta Patricki esaten dio ez ote den konturatu gezurrarekin, irakasleak hobendutuz eta gurasoak mindurietan sartuz, zer nolako oinaze kalte alferrak eragin zituen.

Boulanger gurasoa, enpresako nagusia eta han zoko batean dagoen eskolako zuzendaria denak lasaiago.

Dena dela, ez zieten hik bezainbeste arrisku hartu, eta erantzukizuna hire gain ederki ipintzeko, gerturik zeuden. Ez diek ez konplimendurik, ez agurrik egingo.

Apur baterako zuritu haute eta berriz Patrickekin instrukzioa jarraituko dutela erabaki. Hemendik hila-bete berriz deituko gaituztela, ihesaldiaren errudun jarriz, ez heriotzaren, baina iheslaria aurkitu arte ezin auzia zerratu. Badakit eskolako zuzendariak ez diala barkatuko eta gurasoek muzin egingo, laidotik ezin ezabatuzko orbaina geratzen delako: hire sorterrira itzultzea eskatuko duk.

Kanpoan Patrick eta Tadeuszen aitak haserrez lis-kar luzean sartu dira. Batak haren seme gaiztoa dela, besteak haren semea eroa. Hemendik goiti ez zaie etxe berdinean bizitzea erraz izango.

## SAVOIAN, ARGIBIDE OKERRETIK

Tadeuszen aita naiz. Grenobleko auzitegitik denak Parisera sartu dira. Ni hemen Alpeetan egon naiz. Mendiko herri hartara joango naiz. Gisugintza hori ikusi behar dut. Joan naiz, ustez eta Patricken bigarren aitorra ez ote den beste gezur bat jakiteko.

Lantegi aurrean ibili haiz ez dakik zergatik ibili. Ez haiz sartu. Ez du merezi. Zer uste huen han aurkitzea, zer froga? Baina nondik dabil gure semea? Hain urrun joan ote da? Ez al du auziaren berririk batere jakin?

Jadanik, beste susmoak, beste zalantzak hituen. Duela bi aste Savoiaoko mendi herrixka hartara, Herriko-Etxera deitu huen eta handik idazkari gizon batek erantzun. Zerbait bilatzekotan eta gertatzekotan haurren egoitza inguruan Parisen bizi den herriko italiar pederasta bat ibili zela. Herriko telefono liburuan Cosimo Lofaso bat bazegoela. Minitelaren bidez haren Pariseko helbidea lortu huen. Parisera itzuli hintzen. Andreari ez diok ezer esan. Gauza horretarako ez dik ezer balio oztopatzeko ezpada. Gure semea bizirik dela-eta ez dugu ez batak ez besteak ezer iruzkindu. Maria beti bezala isilik dago, eta ez du ezer ezertarako balio.

Semearen desagertzeaz Parisen arduratu zena deitu duk. Gizona seinlatu diok. Poliza etxera deiturik, han

sekulako alibi batekin zuritua izan duk, Estatu Batuetan baitzegoen egun hartan eta telebistan erakutsia.

Italiar horrek kontatu dik nola udal idazkari mutil zaharra izterbegi gaiztoa zuen, ezkongabea zelako eta andre edo gizonezko gabe etxean egoten zelako, eta horiek guzientatik salatu zuela. Beste batzuk italiarra zelako ez zuten maite. Lofasori barkamen eskatu eta gau baterako etxera sartu haiz.

**Unai.** Hire semearen peskizan denbora ederra galdu behar huen, poliziak ez baitu ezer egingo zein ikerlari edo zerbitzu motak inkesta egin behar duen jakin arte. Taineri herrixkara itzuli haiz. Zerbaitez oroitu haiz Patrickek esana, alegia semeak ihes egiteko arrazoia mendian bizi nahia izan zuela eta behizainen bizibidea miresten zuela. Haiengandik zerbait jakingo duk.

Ez zaik erraza izan, mendiari ez ohitua, akuran huan automobilarekin behizain leku batetik bestera hurbiltzen ahalegindu hintzen. Udal *Inalpage* behi aterpe eta gazta kooperatibetan ez zuten ikusi. Gainera hasi hintzen dudatzen zerbait baldin bazekiten ere ez hindutela jakinean jarriko. Batek azaldu zian bazirela etxola eta larre pribatuak. Hara jo hezan.

Behin halere, bi asteren buruan, Tainerietik hurbil, behizain, unai bitxi bat topatu huen. Oso goibela zuan. Askori bezala ez hion zertara hentorren aitortu. Galdetu hion ez ote zen mendian bakarrik egoteaz aspertzen. Hark baietz, batez ere bi hilabetez laguna izan ondoren.

Eta zergatik ez zuen laguna eraduki? Hark adin txikikoa eta iheslaria zelako, beraz ez egoteko. Nik, mutikoa zen ote? Behizainak baietz hamabi urte ingu-

ruko paristar ile horia, atezain semea. Eta ez ote zuen polizia abisatu? Unaiak baietz bai azkenean menditik jaitsi ahal zenean, orduan mutiko gaztea isilka aldendu zitzaion.

Unaiak zintzoa zirudin, ez txit argia. Ez zuen baliio haren aurka ezer egitea, baina orain nora joan zait Tadeusz semea?

Unaiak esan dit zeinen pozik zegoen hilabete hartan mendian bizitzen eta lanean laguntzen. Ez dut us-te hirira jaitsi denik. Grenobleko polizia kriminalak inkesta geldiarazi arte. Jendarmeriak auziaren ondotik ijitoak eta ilunpeko langileak ikertu ditu. Non deabru dago?

**Ihesaldia** Parka jantzia labera jaurtiki eta laster lagunak utzirik kanporatu hintzen. Hamar egun haie-tan Tainerie eskualdean ibilia, lekuak aski ongi ezagut-zen hituen. Mendira joanen hintzela laster gogoetatu huen.

Herritik gorantz, mendiko goi zelaietara joatean auzo bat dago: bizpalau baserri, zurezko «chalet» de-lakoak dira. Bat bizizale gabe eta zerratua zirudin. Ilundu zuelako, haren teilatu hegazpean lo egiteko etzan hintzen. Etzan ez luzaz, berehalaxe hotzak hartu baihinduen. Galdu *parkaren* garbaiak eta gabeziak lar-rua hormaturik utzi hinduen.

Etxe hartarik ez urruti borda bat zegoen. Hara joan hintzen. Barruan abereak zeuden. Zoritxarrez ho-nen atea ere giltzatua zen. Behitegiaren ingurua eman huen eta barruan argitzeko leihaska idoro huen. As-ki bultzatuz ireki huen. Nekez sartu hintzen handik. Barrenean zeuden behiak ez ziren larregi izutu, beren arran zintzarri zilar soinu berezia apur bat entzunarazi.

Zoko batean lastoa aurkitu huen eta lo seko egon; harria bezala lo egon luzaro, argi bat ikusi arte. Esnatu hintzen ustez eta linterna zela. Ilargi zuria, ilargi bete-betea. Itzarririk egon hintzen eta pentsatu eguna argitu baino lehen erne ibili behar huela eta joan behizainak han idoro ez hentzan.

Abiatu hintzen izai basorantz. Zegoeneko, oiha-neko bide hori, erreka ertzetik zoana ezagutu huen. Gau minean, hasieran freskurak ikararazten hinduen. Oihanean giroa goxoagoa eduki huen.

Goi larreetara joateko, oihanetik jalgitzeko baserreka, uhaitza, nolana ibi batean igaro behar huen. Oinak bustixe hituen. Goian zer bide hartu? Goian zer bide hartu? Goian zer bide hartu? Galdera berdina. Nolako zalantza! Inalpage izeneko artzain taldearen behitegira ez huen joan nahi. Bahekien han egun guztiz herrira jaisten zirela. Goian txabola txar bat ikusi huen. Agian, erabat utzia zen. Hurbilegi hintzanean txabolako kea ikusi huen. Bustiegi, hoztuegi aterpe hartara zuzendu hintzen, eta behizain bitxi horrek ostatua eman.

Bai, Tadeusz nauzue. Savoiaiko mendietan nagozue. Jan eta Mariaren semea. Mendira ihesi egin dut. Damutu zait eta konturatu naiz Patrick lagun gaiztoak atsegin hartu zuela horretan eta orain zertan daude gauzak? Aitortu al du gure gezurra? Behin, urrunean jendarmeak ikusi ditut. Ez zen, apika, niretzat, baina kontuz!

Mendian dena ahaztu nukeen baina aste baten buruan, amari egin nion bihozmina gogoan, loa galdu nuen. Gerturik nengoen nire buruaren ematera ez banintz beldur izan unaia, nire salatzeke, herrira jai-

tsiko zela eta Parisera, jendarmeen artean, itzuli behar nukeela.

Gurasoei idatzi behar nien, atezaindegi zoko hari nion ezinikusiak, ordea, erabakia urruntzen zidan eta bestalde ez neukan ezer idazteko. Nolanahi, gogoan zer hori gehiegi argitu gabe, banekien gurasoak ni mendian uztera gogobildu behar nituela.

Patricki esan nion ez zezala berehalaxe egia aitortu, ihes egiteko astia eduki nezan, baina ez naiz Patrickagand fidatzenegi. Maltzurra da, zitala, doilorra, faltsua da, egin ote du? Ni ere gaiztoa naiz. Egia aitortu badu Patrickek gurasoei bihozmin handia arindu die. Gauza bat edo beste lapurtu eta gero berea dela esan ohi du, Patrickek baina koldarra da. Apur baten ahaztu zitzaizkidan denak. Goi mendian belar urrindunak, abereen usaina ere gogoko nituen. Eta eguzkia piramide eder horien gibelean agertzen eta airearen bizia.

Mendi lana ere gogoko nuen. Pozik nengoen etxolara egur abar besada batekin itzultzen nintzenean, ura iturritik pegarrean ekartzen nuelarik. Bigarren astean behien esnea batzen, deisten ikasi nuen. Bai, horrelako bizitza gogoko nukeen. Unaiak zion euriarekin eta lehen elurrekin ez zela hain atsegina, baina ni, izadiarekin nahiago naiz borrokatu ezen eta lagunekin eta eskolako liburuekin.

Haraino bi urte, Parisen etxarte ilun baten barruan eman nituen. Eguzkia bakarrik kalean, etxeen itzalak utzi lekuetan eta hemen dena ugari, nasai. Hemen ez dut ordu luzeak gela batean jarririk egon behar. Behien ondotik, behien biltzen, korralatzen, esne batzen geldirik egon gabe. Hau izanen da nire ofizioa, uste dut. Aitak amets batean bezala kontatzen zigun nola



gazte garaian gure Poloniako hego mendietan gure arbasoen Tatra mendietan egon zen, miretsirik.

Geroztik, hamaika aldiz ametsa egin nuen: mendi batera igotzen nintzela goian eguzkia, elurra eta harkaitzen itxura harrigarriak zirelako. Mendi Zuria (Mont Blanc) edonondik ageri. Gero goi batean egoten nintzen ibar bati begira eta urrutian lainotsu, laun eta edertasunik gabea zirudin.

Gorago erpineraino joan nahi eta, ametsean, ibarraren begiratzea utzi eta maiz mendia desagertzen zitzaidan. Edota itzuleran ez nituen behean nire biga eta nire lagunak aurkitzen. Aitarena eta biona zen Poloniako mendi amets horrekin ihesi egin gabe aita biltzen ahal nuen, baina lehenik bizitza hori ezagutu nahi nuen. Goi mendi honetara igo naizenean nire ametsetako mendia ezagutu dut.

Oraingoan ordea, ez zait itzali, behi bazka berdeak lorez beteak daude baina egun batez elurreraino joatea gogoko nuke. Han goian beti irauten duen elurra bai dakusat.

Ez da elurra ez dudala ezagutzen: aitaren ikatz-herrian ikusi dut lohi beltzez nahasia eta berehalaxe hormatzen zena. Ez da tontorrik ez dudala ezagutzen baina gure etxe alboko ikatz errauts metaz egin *terrillak* bakarrik. Tontorrak, tontorrak! Zer dute Ipar Frantziako piramide txikiek hemen ikusten diren erraldoiekin berdinduz.

Gure Ipar Frantzia herriko bazterrean korritzen zen erreka lohitsuaz oroitzen nintzen eta mendi haue-tako erreka, ur jauzilari eta gardenen ederrestetik ez nintzen aspertzen.

Azkenean nire ametsa bizi nuen eta eguzki beroa ateratzen zenean garai berean haize epel batek giroa

eztitzen. Irudi zitzaidan zainetan odola hobeki kurritzen zitzaidala eta biriketan hartzen nuen aireak beste zaporea zeukala.

Rocourtek Herriko-etxean bageneukan ezkilez kanpai-soinua orduak jotzen zituenak, baina hemen behien zintzarri joarena askozaz doinuz aberatsagoa da, askatasunaren deiak baitira. Eta uraren marmarra harrietan gaindi beheko errekan jauzika dabilenean: badirudi batzuetan norbait mintzo dela, jendeen ahots urruna dela, baina egun batean, beharbada, urak eta harriak diotena ulertuko dut.

Ezin dezaket utz aipatu gabe ur edatearen gozoa. Nik hirietan lixiba eta kloro zaporekoa baizik ez nuen edaten, edo botiletako zapore gabekoa, hemen zuzenean txahalak ama edoskitzen duen eran, goroldian belauniko, iturri begitik edaten nuen. Behizainak erakutsi zidan iturri guztiak ez direla onak, hotzegi urdail min ematen edo purgatzenezi dutela.

Gozamenen artean niretzat ederrena beheko basoan ibiltzean marrubiak, basa arragak, ahabiak edota basa-mugurdiak biltzea zen. Ez dute urdaila betetzen baina mihia bai.

Unaiak moda zaharrean gazta egiten zuen. Egurketara nindoan pozik, baita aizkora erabiltzen ikasi nuen. Haizeak botatako adar eta zuhaitzak ustiatzen nituen, gero etxolan egur sua egiten genuenean zer usain bereziak, batean izaiarena, bestean pagoarena. Egia da nik pizten nuenean su baino ke gehiago zeriolatuta sutondoak.

Nik ere halaxe Joseph unaiak bezala gatzagiarekin «tomme» behi gazta egiten ikasi dut, bere malgutasuna eta zapore goxoa eduki dezan eta gaziegi atera

ez dadin, denbora hartzen. Esku batzuk besteak baino hobe dira gaztaren biltzeko eta esnea berotzen denean temperaturaren ezagutzeko. Esku ona omen dut. Gurasoei, hemen egotea eskatuko diet. Unaiak ulertarazi dit nire adinarekin eskolan dudala lekua.

Zoritxarrez banekien iheslari gisa egun batez paradisu honetan ere, atzemanen nindutela. Unaiak adierazi zidan gurasoak non nengoen abisatu behar nituela. Nik ere hori gogoan neukan. Gero esan zidan hirira jaitsi behar zuela, ea harekin etorri nahi nintzanez berriz gogora etorri zitzaidan, agian, bi jendarmeen artean berriro atezaindegi ilun hartara eroango nindutela.

Banekien, ordea, ez zuela nire paradisu aldiak irauten. Atezaindegira itzultzea, ordea, amets gaiztoa zitzaidan. Unaiak esan zidan gurasoei idatzi behar niekela eta haiekin mendian bizitzen egotea eztabaidatu. Bera izutzen hasia zitekeen.

Batista unaia arranguratsu nekusan eta ni ere halakutzen nintzen. Astean behin *Inalpageko* lagunetara jaisten zen; astero ogi bila eta eurek zekarzkiaten beste janari guztien hartzeko.

Behin aitortu zidan Batistak artzain etxean bitxi idoro zutela lehen baino janari gehiago eskatzen zuela. Bazuen hilabete nik eskaturik ez ninduela salatu. Noiz arte? Beste behin esan zidan berarekin atxikiz arriskatzen zuela haur bahitzaile izatea bizkarreraturik, atxilotuta egotea.

Honelako batean ikusi nuen herrixkari buruz bazihoala eta orduan haren atzetik, isilpean, ezkutupean jaitsi. Kezkatzenago nauena da Josephek esan didala norbait peskizan ibili zaidala. Gizon handia, aurpegi

zabalekoa, ile kizkurduna eta beti irriñoa ezpainenetan omen duena. Hori ez duk aita. Hain zuzen Tainerieko karriketetan topatu huen edo hark, Aljeriako lagunak, aurkitu hinduen eta haren mendiko bigarren babeslekura Eguzki Semeen elkartera eroan. Ez ote haiz, araez, damutuko?

## EGUZKI SEMEAK

Jan, bi egun joan zaizkik mendian unaiarekin semeaz mintzo. Bai hire semea da, baina gogoz gaindi menditarrak esan dik Tadeuszek aitortu ziola aitaren beldur zela eta ama nahiago, “haatik ez da seme bat andreen altzoan hezten”. Bai hori duk umeei beren onerako benetako heziketa arauak erakusten dizkiena ez da maitatua izatea aski. Halere, haren bila jarraituko duk. Tainerie herrixkara jaitsi haiz. Eskualdeko egunkariari iragarki bat igorri

*«Tadeusz, seme galduak abisa gaitzala non dagoen ez zaio ezer esango. Saiatuko gara mendian biziarazten».*

Zer uste duk? Poliziak baino hobeki eginen dukeala? Zoritxarrez ez duk aski diru detektibe baten ordaintzeko; gainera istripuaren auzia dela-eta Parisera itzuli behar huke. Egoera bitxi batean itxaroten duk. Uste duk mendi baketsuak direla eta bitartean Grand Mornanden familia osoa norbaitek hilik aurkitu dutela. Zer egin lezake hire Tadeusz bezalako batek diru gabe? Lapurtu, gaixotu. Lapurtzen badu, agian horrela, harrapatuko dute.

Lau egunen buruan egunkarian erantzun argia zegoen:

*«Poloniar bildots galdua babeslekura bildu dugu. Mendian bizi da. Eguzki Semeak, Notens, Savoie»*

Hori ez zitzaian gogotik igaroko. Mendietan iparraldeanago Eguzki Semeak elkartea edo zegoen. Fama oneko erlijio talde berrian, ekologistak, naturazaleak, bertutezaleak zeuden. Bai, aldizkari batean lehengo kristauak bezala bizi zirela irakurri huen. Ez zegok beharbada esku txarretan.

Eguzki Semeek daukaten tenplu eta herrixkara hoa! Hoa Notens herrira! Haurra berreskuratuko duk. Akuratu beribilez baho. Mendian aski gora den lekuan zegok. Errepidea haraino iristen da. Zer mendi ederrak eta udazken honekin zer koloreak, baina semea berreskuratuko duenaren itxaropenak, lehen itsu hengoelarik, orain ez dik paisaia hori ikusgarri egiten baizik.

Herri erditan norbaiti bidea galdetzen diok. Bitxi-ki begiratzen dik.

—Baitezpadakoa duzu hara joatea?

—Bai, semea han daukat.

—Zu ere han sartzeko?

—Behin behinean, bai.

—Jauna kontuz! sekta da. Han sartzen dena ez da erraz ateratzen.

—Ez kezkatu, ni lotuko nauenik ez da sortu.

Sartu baino lehen inguruko mendixkak ikusi hituen. Oinak non ipintzen hituen jakin nahi huen. Aljeriako gerratean hartu ohitura huan: ez hintzen han ere inoiz patruilarekin, bide berdinetik igarotzen. Eguzki Semeen herrixka goi zelai batean zegok, alde batetik leizez inguratua, albotik doi-doia bide baten lekua eta beste aldetik mendi zutez inguratua. Goi zelaia aski zabala.

Argi zegok lehen menditar auzoa izandako bizpahiru etxe gotor harrizkoak geratzen zirela. Gero, barra-

ka lerroak eta herrixkaren inguruan harresia, talaiez inguratua. Herrixkak soldadutegia zirudin edo hala-honelako kanpamentua. Harresitik kanpo eta alanbre horzdun hesiz inguratuak baziren soroak, alorrak, bazirudin barazkiak egiten zituztela.

Ez zitzaidan lekua gehiegi gustatu, nahiz urrunean frantsesen Mont Blanc «Mendizuria» udan ere elurrez ederki estalia ikusten zen. Beribila, zuhaitz hesi lodi batez inguratua den Semetasunetik hurbil, utzi huen. Akura bukatu baino lehen berriz zerbitzatzekotan. Inguruak apur-bat ikuskatu hituen.

Eguzki Semetasunaren elkartean sartu hintzenez atea zabal-zabalik aurkitu huen Jendeak, haurrak, emakumeak gizonezkoak amets batean bezala ibilki, lanean ari, elkarri begiratu gabe jardun eta batzuk ate batetik alanbrada arteko lurretara, jorraia, eskuan lanera joaten. Hire bizkarrean atea zerratu duk.

Denek, andrezkoak, gizonezkoak uniforme berdina, txaketa urdina leporaino eta praka beltzak. Mao Tseu Dungen mundua? Bai sartzen denari ez diote begiratzen. Bitxiki apez antzeko jantzitan bi gizon bi-dean jarri zaizkit.

—Agur Jaunak.

—Ongi etorri zuri.

—Nire iragarki bati erantzunaz, poloniar semea hemen neukala jakinarazi didazue.

Zatoz! Esanda besterik gabe leku bitxi baten barruan sarrarazi haute. Tenplu txikia omen da. Antzina hor behitegia egongo zen. Eta bat batean semearen orde Aljeriako gerla lagun ohia agertu.

—Esan nian, behin Parisen lagunekin mendiko bizitzara itzuli ginela; guri esker hire seme galdua hemen zegok.

(Nola arraio aurkitu zuen gizon horrek Tadeusz gure semea? )

## Eguzki Semeak

Lagunari esan nion semea ikusi nahi nuela. Osasunean zegoenez? Hark erantzun, zegoen lekuan ongi zegoela.

Ikasten ari eta ez zitzaiola bat batean agertuz izua sartu behar. Esan nion ez nintzaiola erasiaka eta oihuka hasiko.

Leku hark arma gabeko gudalategia zirudin eta nire oroitzan soldadutzakoa gehiegi gogoratzen. Lagunak Eguzki Semeen barnetegian zeihar Eguzki Aita horko nagusiarengana eroan ninduen. Gizonak, hipnosia egiteko indarrak begian, so egin zidan, baina buruapalki eta ezer erakutsi gabe, *guru* horrek ez ninduela nola nahika erabiliko, erabaki nuen.

—Jan Dabrowski Tadeuszen aita naiz. Semearen bila nabil.

—Zer bila? Eguzki Semeak ezagutu ondoren, atezaindegi ilun eta etxe belztu hartara eroan nahi duzu?

—Ez. Mendira bizitzera eroan nahi nuen.

—Baina, hemen mendian gaude eta zaude.

—Ez. Etxean eta amarekin

(To! Oraintxe zaik oroitzen Mariari hire ibilaldien berririk ez diokeala eman)

—Zertara behar zenuke beste lekuetara eroan? Hemen egon! Ongi etorria. Gure elkarrizketa hemen bukatzen da. Zoaz eta bazkal arte.

Berriz soldadu lagunarekin barnetegi herrixkan zehar. Begi bazterretik jendeari begira. Liluratuak, aztora-



tuak irudi dute, isil, elkarri begiratu gabe. Honelako irriño finkatua ezpainetan. Lanetik heltzen? Zer lan ote?

Galdetu nion Aljeriako lagunari ea semearekin bazkalduko nuen ala ez? Ez zidan erantzun. Lagunak hizketan ari ginela gela batean sarrarazi ninduen. Hasi berrien klase batean nengoen. Dotrina ematea han hasten omen zen. Eseri ginen. Entzun nituen lehen hitzak gogoko izan nituen. Zentzuzkoak ziren.

Ameriketarik etorri gizabanakoen sistematik askatu behar ginela; ez genuela bakoitza gure aldetik ibili behar aberastasuna kausitu nahian.

Elkartasuna eta talde lana berriz ikasi. Semetasunean kanpoko arrangura txar horiek galduko genituela, eta lasaiago biziko. Luzaro erakutsi ziguten nola Ameriketara liberalismoak lana usteldu, familia apurtu, jendea drogatu eta erotu, jende bakartiaren harrokeria goratu dituen. Bagenizkien baina hitzen erabileran Eguzki Seme horiek oso trebeak ziren.

Norbaitek galdera bat egin nahi izan zuen. Ez zitzaien kasurik egin. Jende bakartien gizarte berekoi horren trukean eskaintzen zutena, ordea, taldean bizitzea ez zen ezagutzen nuen komunismoa. Berehala, benetako sekta sos zalea zela, ulertu nuen: sartzen ziren guztiak beren ondasunak ekarri behar zituztela.

Bestalde, Semetasun herrian, lanean irabaziko zutena, gizataldeari utzi. Diruak gauzak usteltzen zituela esan ondoren, bitxi zitzaidan nola sinestunen diruaz jabetzeko arduratzen ziren. Gure Dabrowski kasuan, noski, ez zen gure dirutzaren gutizia euren axolaren kausa izan, baina ez nuen oraindik ikusten zergatik guri zepoa hedatu ziguten ezpada nire Aljeria gerlako laguna gantxoa izan zela.

Nahiz liberalismo hutsa gorroto nuen, horrek ez ninduen berdin gogobildu. Banekien jadanik Moon sekta eta beste, nola zebiltzan diru biltzen. Ez ziguten galderarik egiten utzi. Nola erabiltzen eta zeinek zaintzen zuen taldearen altxorra, eta gero zertarako erabiltzen, galderak nire baitarako gorde nituen.

Semearekin bazkaldu gura nuela esan nienean, ez zidaten erantzun, baina familiaren balorea goraipatzen zuten denboran, beren artean behar ez den sexu harremanik gerta ez zedin, haurrak haurrekin, gizonaekoak gizonekin, andrezkoak andreekin bizi behar zutela. Bakarrik gauaz, nahi zutenak familia berrantola zezaketen eta besteekin nahaskeriarik ez gertatzeko ateak giltzatu behar ziren.

Ondotik izanen zirela haur sortzeko, ernaltzeko egitasmo finko bereziak, Eguzki Aita nagusiak egoki ziren egunak hautatuz egingo zirenak.

Niri Eguzki Semeen herriak biguin nituen kuartela, kaserna eta beste gudaltegiak gogoratzenegi zizkidan. Isilik jarraitzea erabaki nuen. Jadanik sartu nintzenean ohartu nintzen zer begi txarra egin zidan soldadu lagun ohiak, semearen bila nentorrela esan nionean, eta begi txarragoa Eguzki Aitak.

Halere, ez zitzaidan irudi ezin deseginezko zepo batean sartu ginela. Beste guztiek lasai ziruditen. Tadeusz semearen hortik ateratzeko gogoia bizi-bizia neukalako, nik aurpegi zozoxka berdina erakutsi nahi nuen.

Handik ateratzean urrundik ikusi nuen semea bere bazkaltegian sartzen. Ikusi ninduen eta beste aldera begiratu. Beharbada nitaz beldur zegoen. Bazukeen zertaz: aski bihozmin eman zigun.

Afalondoren, goizean dotrina egin digunarengana joan naiz galdetzer semeak eta biok non lo egingo genuen. Ez dit berehalakoan erantzun:

—Zure semeak ez du zurekin lo egin nahi.

—Nolaz dakizu ez baitiot galdetu?

—Guk erabaki dugu, ez dago zuzenbiderik.

—Zer eskubidez?

—Haren aita naiz eta goizean familiaren desegitearen aurka hitz egin diguzu.

—Bai hala da, baina psikologia aldetik, etxetik iheslari izan delako, estresik ukan ez dezan, ikara ez dadin ez duzu harekin harremanik izango.

—Ez diot semeari inolako zigorrik edo agirakarik egin nahi.

—Esan dizut ezetz!

Urrundu hintzen. Zigor zelaia zirudin herriaren inguruan talaietako argiak piztu ziren, alegia –lagunak zionez– lapurren urruntzeko, jarriak.

Lo egitera herriaren iparraldetik zegoen barraka txar batean, presondegi gela zirudin leiho gabekoan, sartu hintzen. Paretetan Eguzki Aitaren argazkia eta dotrinako perpausak. Ohe ertzean eseri hintzen. Etsipen txinparta bat buruan sartu zitzaian. Zer bizitza, zer deabru leku da hau? Bazkari eta afari garaian isilik egon behar eta irakurketa iñozoak entzuten.

Gero, ez dakik sinesleek zenbat diru ekarri duten, baina janarian «Semeen elkarteak» ez zuen asko gastatzen. Aza zaporea zeukan salda mehe baten ondortik patatak. Semeen elkarteko baratzak eman barazki batzuk, olio mingaztu batekin nahasian emanak eta besterik ez gure jan gelan. Beharbada lan bortizetan zebiltzanek hobeki jaten zuten.

Goizean, hain zuzen familiaren teoria ia-ia azaldu ostean, gehienik lanaz hitz egin digute. Jendearen gogobeltzak garbitzeko eta pentsaketa alferretan ez egoteko lana darabilte. Oroitzen haiz nola Maok intelektualen hezteko behartu zituen baserrietara eta fabriketara joatera esku lanarekin kritikaren joera gal zezaten.

Badakik Semetasunaren elkartean larregi egoten bahaiz, erabiliko hautela. Apur bat egon gura huke semea handik atera arte. Baina kasu! sinesten dituela errepikatu arren, ez hadila euren sermoi amuari lotu.

Izerdi hotz bat ateratzen zaik. Bat batean soldadu lagunak «gantxoak» hitaz asko dakiala oroitzen haiz. Gaztarotik azken urtetaraino mintzarazi hinduen.

Kalean topatu hinduenean ustekabeen izan ote zen? Eta geroko bisita?

Txunditu haiz, konturatu haiz, semearen bilaketa horretan zertan hengoen esateko, ez duala aspaldian andrea deitu. Orain nekez edo ezin. Semearekin irten arte ez dik balio andrearen abisatzeak. Gainera Maria Dabrowska ez duk ezertarako on: abisua eskatzen hionean beti isil edo «Egin, nahi duzuna» erantzuna. Erantzule bakar uzten hinduen. Beharbada, orain gertatu direnekin pentsatzen ikasi duke?

Nolanahi, azkenean, gogoeta hits horiek ezindurik, erantzi gabe, etzan eta lokartu haiz. Goizean ate danbada zatar batek esnatu hinduen. Bai gudaltegia zuan. Goizeko bostak izanki, lanerako jaiki eta gosaldtu behar zela. Ez hintzen gela hits hartan zahartu. Garbitu, jantzi eta gosarira.

Hor ere gosarian hemengo jabeek ez zuten diru gehiegi gastatzen: txikoria argia, ogi zerra gogorra, boso bat ur eta keinu bat nonbait ikusirik denak batean zutitzen. Hi ere kanpora.

Ez zen harritzekoa sinesleak hain argalak izatea ez bazuten gehiago jaten. Bestalde egun guztiz ikusten genituen «garbi» delakoek osasun antza ederra zeukatela eta urrutian, astean behin, agertzen zitzaizkigun «bikainak» ezinago gizen.

Susmoak izan hituen ardiak hain mantso izateko, artzainek ez ote zituzten drogatzen. Guri, armadan, beroegi ginenean bromuroa edanetan ipintzen omen ziguten eta Semeen elkartean zergatik ez. Ohitura hartu huen eta jarraitu nahi huen sasi kafearen xurga bat edatea, hondarra eskuz estaliz harria egitean poliki hustuz. Ez duk uste inork ikusi hinduenik.

Bestalde, uraren orde z ematen dute fruta hotzezko zuku horretarik edanik konturatu hintzen, gauaz eldarnioak eta amets bitxiak izan hituela. Zerbait droga zeukaten sektako nagusi horiek jendeen honela mantsotzeko edo sendatzeko.

Egia da lagun batek edo bestek bere bizitza denen aurrean kontatzen zuenean hauteman huela burutik sano ez ziren asko hor zeudela eta sektan lasaigarri sendagailuak zerabiltzatela. Psikiatrikoaren antza ere eman nion, baina jendeen osatzeko zer ariketa bitxiak? Gosari garaian, ez genuen zorionez irakurketarik eduki, bakarrik eguneko egitasmoa eman ziguten: familiariaz, lanaz hitzaldiak.

Hortik atera eta hire barrakara hindoala, bazterren ikusteko, ez ohiko bidetik joanki, atzetik harriduraz hire semea izerditan ezindua aurkitu huen. Isurki kubo baten garraiatzen ari. Hurbildu hintzaion:

—Aita!

—Pozik nagok hire berriz ikusteaz. Ez izutu Tadeusz. Ez natzaik agiraka hasiko.

—Bai, bai, aita.

—Lurrean pausa ezak kubo!

—Aita, amak zerbait badaki?

—Amak badaki ez haizela hila, Patrickek auzi egu-nean gezurra salatu baitu. Parisen utzi diat eta hire bila honaino iritsi natzaik.

—Aita ez nekien deusik ez eta hemen zeundela ez didate gaztigatu.

—Eta zertan jarduten duk, seme, kubo horiekin?

—Hamar barraka horien atzean hamar detergente kubo garraiatu behar ditut.

—Zergatik hik?

—Egonezina omen naizelako...zu bezala.

—Lagunduko haut.

Ikusten huelarik zenbateraino sei hilabetez argaldu zitzaian semea, haren ezindura ulertzen huen eta eman zioten lan latz eta lotsagarri horrek haserre gorrian jarri hinduen.

Barrakara itzuli hintzenean ate aurrean hor huen “gantxo” hire zain. Eta non henbilen? Eta zergatik semeari lagundu hion? Bahekien handik joateko sektako jende horiei hitzezko armarik ez zitzaiera eman behar.

Bahekien hire golkorako, aita haizen aldetik, hamabi urteko hire haurra gizon lanetan erabiltzea lotsagarria zela. Ez hintzen haurrek lan egin zezatenen aurka, baina hori ez zen lanean ikasteko jarduera, zigor hutsa eta esklabotasunaren bidea.

Bahekien ere zer erantzun lezaketen haurrak nola hezi behar ziren: aurretik alferkerian hazi eta hezi haurrak hobetzeko oinazea dela askatzearen beharrezko bidea eta holakoak.. Isilik jarraitu huen. Eta gantxoak:

—Semeen elkarteko diziplina hautsi egin duk. Azkenaldia duk.

—Haurrak ez du errurik!

—Hemen zer ikasi duk?

—Baietz, bai..(eta heziketaren araua bota nion)

—Hator nirekin hitzaldi ederren entzutera ikusteko zer salbamen bidea eskaintzen dizuegun.

Gantxoaren mehatxua entzunik, sektako dotrina ikastaldia jasan behar nuen. Sartu hintzen ahal bezain isilki eta «batutan» zegoena familiaz ziharduen. Musikari zintzo baten legean, orkestraburu bitxi hori isiltzen zenean, eskatzen baietz, entzuleek erantzun zezaten. Familiaren eredia hila zela, beste eredu bat «sendi berria» eskaini behar zela.

Sekta buruentzat, gaurko gizarte berekoi, jende banakatzaitetik ateratzeko familiaren jabetasun giroa galdu behar zen. Seme-alabak ez ziren gehiago aita-men jabetasuna, ez eta jostailuak, talde batenak izan behar zuten.

Aspaldiskan horrelako zerbait egin zen. 1968.ko erdi-iraultzatik landan famili erkidetzak eratu ziren, baina anarkikoak eta askeak zirelako atondu bezain laster desegin. Hemen beste kontu izugarriagoa.

Semetasunaren elkarteari ez zitzaion aski dirua eta lana ematea, haurrak ere denenak izango ziren. Gura-soek haurra egin arren jaio eta beste norbait zen, beraz haurrak, txandaka, aldika familia batetik bestera bizitzera joango ziren, beren gogo bihotzen aberasteko.

Denekin akomeatzea zelako askatasuna ziotenean, sermoi horren artetik ulertzen huen semea ez huela berehalakoan ikusiko. Han egoten bahintzen galduko hintzela eta galduko huela. Pentsa semea hain gaztea eta oratu erraza jadanik kutsatu zidaten!

Itxaropen mutur bat heukan, nire gisa, egonezinenaren printza buru zoko batean eduki zezakeela. Hau-

rrari joatearen itxaropena berotu eta piztu behar nion, semea estalpean ikusten uzten bahinduten.

Familiatz hitzaldi hori aurrera zoan. Inork ez zuen galderarik egin eta ez zitzaian hire burua nabarmentzeko garaia heldu. Familiaren antolakuntza horretan bertutea eta araztasuna lege. Haurrek, helduek bezala, Semeen elkarteko legeei nork huts egiten zieten sala zezaketen.

Ume egitea programatua zegoen, horretarako sendagailu berezia hartu behar zuen bikoteak eta goizean ez zuen besteekin gosalduta behar. Sektan abere hazkuntzaren arauak betetzen ziren: nagusiek emanik jana, edana hots txerri bazka, lana, sexua «ume beharra» zenean.

Galdera egiterik ez zegoen, baina «garbiek» eta «bikainek» gure lege berdinak, gure betebeharrak berdinak, gure eginbide berdinak ote zituzten eta beste debekatzeko zieten ez ote zuten egiten? Galderak hire kolporako gorde hituen.

Laugarren eguneko bazkaria bezperakoaren antzekoa. Salda ahula, begi gabekoa, patata purea zaharra, ez dakit zer gauza marroia zeukana barruan. Behar bada haragia. Azkenik ogi zerra margarinarekin.

Janari urriaz eta irakurketa aspergarria. Denak isil. Nirekin jaten ez zuen ezkererik nola deabru eta zer jaten zuen semeak? Ikusten nituen beste gazteek ez zuten aurpegi hobea.

Asteazkena zen eta bazkalostean, elizkizun bitxia eduki genuen. Irakatsi ziguten kanpoan eguzkitan egotea ez zela nahikoa eta Su Ospakizun batean gure gogoen sinbolikoki garbitzen ikasi behar genuela: alegia eskuak su gar batean igaroz garbitu. Su gar hori-



gorri horietan, denok eskuak pasatu genituen. Jakina, berotuxe ginen baina erre gabe. «Garbi» izateko bidean omen geunden. Ea hobeki jango genuen?

Semea ez nuen, orduan, ikusi, nahiz nekien orain zer familiatan erretiratzen zen. Beharbada «kuboen nahigabe» horren ondotik etxez aldatu zuketan. Ez nion «gantxoari» ezer galdetu, baina ikusi nuen, nire amorrua bihotzean gordeaz, semea zigortu zutela, egun osoan, kanpoan eguzkitan loturik, urik gabe utziz.

Amorrua eta esperantza apur bat: semea ezagutu nuen eta urrunegi joan ziren harekin. Seme egonezinarari askatasun gogoa pizteko, beste hoberik ez zegoen.

Arratsaldeko hitzaldia ez nuen hain artoski jarraiki. Lanaz ziharduen eta noski Semetasunaren elkarrean egin behar zen lanaz. Erosotasunean eta moderotasunean galdu garbitasunaren eskuratzeko lanaz bestelakorik ez omen zen. Lanak galdutako arimaren eskuratzeko bidea ere behar zuen.

Aurretik pentsatu bezala Maoren, Txinako komunismo buruaren, sermoi gaizki irentsia zirudien ondoak: alegia ez genuela orain arte izan genuen lanaz oroitu behar, baina oso bestelakoa egin; kostako zitzaiguna eta jakina, ahaztu genezan gure lanagatik ordaindua, saritua izatea. Hor argi zegoen sinesleak, sineskorrak ustiatuak zirela.

Geroxeago ez dakit. Ez nuen ongi jarraitu eta hitzegilea hala nahiz iluna izan zen. Ez zegoen amaren alabarik haren ulertzeko gai zitekeenik. Semeen elkarreko herrian lana nola antolatua zen ez nuen ulertu eta uste dut besteek ere ez, gure ustiatzeko sistema ederra zitekeen, guk ulertu behar ez genuena, hain zuzen! Handik kanporatzen nintzela pentsakor gantxoak deitu ninduen:

—Eta zer irudi zaik, Jan?

—Askok, hona etorri baino lehen, berdin pentsatzen genian gaurko gizartea bide txarrean abiatua dela.

—Eta lanaz zer diok?

—Lanbide berrien egitea? Niri ez zaidak kostako, hamaika baditiat eginak. Lanerako prest nagok.

—Jan, bazekiat hi meatzetan egon haizela, sendoa haizela, lan dorpeek ez hautela izutzen, lur zulatzaile, porlan lanetan dakiala, fundazio egile ona, izango haiz.

—Baietz bai, ez nauk lanaren beldur.

—Lan mingarria duk, baina oinazea zer den laster ahaztuko zaik. Gure ikasbideekin minaren sentiberatasuna, minberatasuna galduko duk.

Baietz esan diok baina ez da hori hizlariak esan lanbide zaharra ahaztea eta aldatzea. Hi horrelako lanak eginik hago. Ez haiz aldatuko. Berdin zaik lan eginaz Semetasun herrian errazago korrituko haizelako.

## Zepoa tinkatzen

Batik bat, ez haute gogoetatzen den lan batean sartu, baina ikusi duanez denak Semetasunaren elkarrean eskulan arruntetan erabiliak dituk. Buruzagiak buru pentsatzaile eta sinesleak beso: hamar itzain eta ehunka idi.

Jakina, hiretzat zigor zelai itxura izan arren ekimen eta helburu hartzea, besteen esku utziz, batzuentzat iheslekua duk. Gainera aire ona, mendi ederrak inguruan baina ez da airez bizi, bestalde noiz eta nor ibili da inguruko mendi ederretan?

Halako batean, noiz zen? Lehen asteen edo kanporatzera saiatu hintzen. Egia da ez huela inor ikusi han-

dik ateratzen. Atea zabal-zabalik. Inor ez zegoen inguruan. Bat batean hamar bat lagun urdin hire aurrean oztupoj jarri hintuan. Hik, ingurunean egurats aldia eman nahi huela. Eta haiek ez erantzuten, bakarrik lanelo lekua eskuz erakutsiz.

Arratsean, Gantxoak sekulako sermoia egin zidan. Ez ote hintzen ongi? Semea astebetetz hirekin egon ondoren zer esker txarra heukan? Arautegiari huts egitea-gatik zigortzeko semea kenduko zidatela.

Maltzurki barkamena eskatu hien eta hire esker ona erakutsi. Bahekien jagoiti handik joatea ez zela ihesaldia baizik izango. Semearekin joatea nekezago Tadeusz kentzen baziaten eta gordetzen zer egin beharko huen?

Gogoratzen ditut, orduan, astebete hartan, semeak esanak gogo barrenak hustu baikenituen

—Aita, gaizki jokatu zenuen amarekin?

—Zergatik?

—Ez zenion abisurik eman nire atzetik nondik zenebiltzan

—Eta jakiteak zer ekarriko zion?

—Aita, ama maitea beti buru gabeko neska bat bezala tratatu duzu.

—Ez horrelakorik esan. Elkar maite genuen.

—Hori al da maitatzea. Zerbait galdetzen zizunean antzara ferratzera igortzea?

—Nik ez diat sekulan horrelakorik egin.

—Aita, ahaztu zaizu.

Ez zitzaidan ahaztu. Urruntasunarekin nola jokatu nuen konturatu nintzen, baina nire jokaera txar horiek emaztearen isiltasunari egozten nizekion

—Haren errua zen. Zerbait galdetzen nionean ez zidan erantzuten.

—Hark erran guztiak gaizki hartzen zenituen.

—Eta hik ez didak inoiz horrelakorik aipatu.

—Ez, orduan, ez nintzen ausartzen.

—Eta orain bai.?

—Bai, ordu delako eta amarengan orain lehen baino gehiago pentsatzen baitut.

—Eta horretan gaudeino, zer gehiago?

—Nik ere nire arazoak kontatuz eta harenak entzunaz, Ipar Frantzian ezagutu genuen alaitasun laburra, Pariseko atezaindegi zulo hartan berreskuratuko genuen.

—Ongi hitz egiten ikasi duk

—Agian, bai.

—Eta pentsatzen?

—Ez dakit.

—Eta pentsatzen ere bai. Orain lehengoak sendatzeko beranduegi duk, baina ikasi behar diagu hemen-dik nola joan eta amarekin hobeki bizitzen berriz ikasi.

Astean bizpahirutan kontatu zizkidan Tadeuszek Mariarekin izan nituen aldi onak eta une txarrak. Baina azkenean semea lagunduz, eta kutsa nezan beldurrez sektako buruzagiek kendu zidaten, beste familia batera emateko.

Lehen hilabetea familiarena eta lanarena onartu bahuke bezala eginik sinesle berrietan sartu behar izan huen.

Semetasunaren elkartean Eguzki Aitak, *guruak*, esanak eta legeak erabat bete beharko hituela, ikasi huen. Hark bakarrik erabakiko zuela lekuz aldatzen ginen ala ez, taldea desegin ala ez. Kanpoan omen genituen bekaitzak, izterbegiak, berek beren diru *euroke-riarekin* erotuak erdietsi ez zuten gure bakearen bekaitz.

Guk jadanik ezagutu munduaren nekeez margo gorri izugarriak erakutsi zizkiguten eta letaniaren doinu-eguneko sermolariak jarraiki:

Nola gure Semetasunetik kanpo gizartea desegin eta usteldu zen.

Nola emakumeek, orgasmoa lege bakarra bilakaturik, haurrik ez zuten egiten.

Nola mundua antzutu nahiz homosexualak harroki zebiltzan. Ez zigun azaldu ez ote ziren homosexual aita familiatzeko asko eta berek eskaini militar sistema hori onenean zenez bide horretarik urruntzeko?

Pedofiliaz ere irakaspen bitxia izan genuen, alegia haurrak ez zirela zuri-zuriak, libido basatia zeukatela. Haurrekin harremanak batzuetan onargarri zirela non ez ziren etxekoen artean gertatzen. Ez zen beraz kazetariak kanpoan aldarrikatzen zuten lehen kristauen biziera. Eta jarraian, nola leku guztietan drogak hedatzen ziren.

Aitor dezadan Eguzki Semetasunaren elkarteko sinesleek behintzat ez zutela ez erretzen, ez alkoholik edaten ez eta ziurrik drogarik hartzen, non ez ziozkaten azken horietarik batzuk ematen.

Nola herri handiak arma egile zirenez, kanpoan gerrak mantentzen zituzten, lehergailu eta iskiluen saltzeko. Industriak mundua kutsatzen. Bagenizkien, baina beren Semetasun elkartean, omen, gaitz guztien aterpean jartzen gintuzten eta laster ez genuen berriz kanporatzeko gogorik izanen. Eta Eguzki Aitaren grabaketa hau entzunarazi ziguten:

*«Utz ezazue zuen antzinako bizitza. Munduaren iluntasuna, belztasuna, infernu hutsa da. Guk sendatuko dizkizuegu gorputzeko eta arimako gaitzak. Arima sana da»*

*baitezpadakoa da eta arima zuzendaria Eguzki Aita, ni neu izango naiz. Gorputzeko gaitzak ere sendatuko dizkizuet. Badakizue psikiatren lana kilimon egina izan dela eta zuetarik askok alferretan ezagutua.*

*«Gizona ez da, gizarte izeneko, animalia talde horietan sendatzen, osatzen. Niri konfiantza egin behar zait».*

*Eta jarraitu zuen*

*«Nahitaez zuek gizon arruntak zarete, sinesleak eta nirekin desberdintasun leizea daukazue. Ni neu zuzenean Eguzkiaren kemenetik elikatzen eta hazten naiz eta ez dut bizitzeko lan egin behar.*

*«Beren aszetikaz «bikain» bilakatzen jakin dutenek badakite aitak eman zerutar elikadura, «anbrosia» edariaz bizitzen eta horiek ere lan egin beharrik ez dute.*

*«Zuek, seme alaba arruntok, oraindik gorputza lurreko ekoizpenez hazi behar duzue eta lan egin horretarako. Pixkanaka gutxiago janaz, batzuk «garbi» bilakatu zarete. Gorputzen zapuzten, gutiesten, arbuiatzen ikas ezazue!*

*«Ni neu Eguzki Aita zuen kontzientzien gainetik zuen zaindari naiz, zuen jakintasuna, zuen ausartzia, zuen nahikundea naiz.*

*«Nik badakit Izadiak dituen lau hizkuntzen ulertzen, gogoarekin lotuak diren zazpi higikundeen irakurtzen, halaber adimenaren zazpi koloreenak. Bihotzaren zazpi soinuak eta fisikaren zazpi antzak ezagutzen ditut.*

*«Bikainak eta garbiak horien ikasten dabiltza, baina zuek sinesleok, aurretik, aberetasuna galtzen ikasi behar duzue».*

Sektako horiek gaurkotasunaren begitarte beltza baizik ez zuten erakusten. Ondorioz beren buruak zuritzen. Jakina, hala alkohol, tabakoa eta beste drogak

debekatuak ziren, halaber kanpoko sendagailu, txertoak, odol hartze edo emateak. Haragirik ez omen genuen larregi jan behar gaitz eta gaixotasun guztien iturriak zirelako. Sexu harreman askeak eta homosexualak, jakina, gogorki zigortuak. Zer zen gogorki hori? Esan bezala jaiotzak arautuak. Honela zegiten gure Poloniako arbasoek behien ernaltzeko. Ezkonduak azkenerraino leialtasunean egon behar zuten, “hori behiei ez zitzaizkaien eskatzen”.

Adibide bitxia ematen ziguten, nola Indietan senarra hiltzen zitzaionean, bekatuetan eta bizioetan ez erortzeko, alargunak bere burua bizirik gizon hilarekin errearazten zuela. «Irakasleen» adibide sinbolikoa ote zen bakarrik?

Eta zergatik hainbeste errepikatzen ziguten bekatua dela eta Indietako eredu hori? Ezkonduen izuarazteko. Geroago eta nahasiago zitzaidan dotrina hori. Nahasi baten burutik atera, ala talde baten ekoizpena?

## **Ero erotika, ilargi zuritan**

Egia da Semetasunaren elkartean topatzen zirenean ez zietela jendeek elkarri begietara so egiten. Horregatik harriduraz egon nintzen, pareta baten zuritzetik atsedean hartzen ari nintzela neska batek begi beroz begiratu zidanean eta irriño deikor batez nire begiradari erantzun. Zer deabru! Deabrusa zen!

Konprobaketaren egiteko bizkar eman nion. Orduan sorbaldatik heldu eta sabela, bularra nire ipurdi eta bizkarrean igurzten, laztantzen hasi zen. Galdetu nion:

—Nork eman dizu baimena horren egiteko?

—Nire gorputzaren deiak, gizona.

—Nola duzu izena?

—Ilargi.

—Izenez aldatu zara ?

—Bestea ahaztu zait. Orain Ilargi Txuri naiz.

Barre egiteko gura gorde nuen. Irrigarria zitzaidan, baina hala sinesle gehienak izarbel baten edo izar baten izena hartu behar zuten. Nik, oraindik ez duina nintzela eta ez nuen izen berririk hartu, nahiz haiek Egonezina deitura ipini zidaten. Bai, izatekotan eta isilpean *izar buztandun* kometa iheslaria nahi nintzen izan.

Galdetu nionean zergatik zeukan holako deitura, erantzun zidan bazekielako hil eta gero ilargira joango zela. Edo eroa zen edo sinesle erotua, baina bietan kaltegarria? Neskari buruz itzuli nintzen eta esan:

—Kontuz neska zure jokaerarekin, biak atzemanik eta zigortuak izango gara!

—Dena isilpean egongo da.

—Lotsagarriago oraindik.

Neska urrundu zen. Uniforme itsusiaren zeharretik agertzen ziren zatiek txit ederra zela erakutsi zidaten. Zer bekatua! Hor alferrik lehortzera zoan lorea!

Ez zen neska hori nire askatasun egitasmotan sartzen. Ez nintzen ibiliko, burutik sano ez zirudin batekin, Semetasun elkartetik haren kanporatzeko arrisku lanetan, eta gogoan ene emazte ederraren irudia tartekatatu zitzaidan.

Neska urrundu zen eta itzuli azken begi bero ukaldia emanaz. Laster ahaztu behar huen eta ihesi egin behar hion.



Iluntzean pentsakor hire gelara itzuli hintzen. Deabrusa horrek jarraian, agian, bilduko hinduen. Zer begiak! Zer ahoa! Eta zer gorputza! Hire gela barruan argia pizturik zegoen eta ohean zabal-zabalik etzanik eta biluzik Ilargi Txuria.

—Zatoz, lehenbailehen, sartu behar nauzu.

—Neska nork eman dizu baimena?

—Eta, eta...

—Ez naute abisatu zurekin ezkondu behar nuela.

—Gaur nire barruan sartu eta bihar hemendik ospa eginaz kanpora joango gara.

—Zergatik gaur eta bihar horiek?

—Gaur Ilargi betea, ilargi txuria delako.

—Zergatik bihar eta nora joateko?

—Zurekin mendian bizitzeko.

Hor gehiegi zitzaian. Galzoria hurbil zegoen; baratxe-baratxe neska baztertu behar huen. Neskaren erokeria sisteman sartu behar huen eta gurbilki egin huen.

—Ilargi Txuri, Eguzki Aitaren baimenarekin ezpada, ilargiaren baimenarekin egingo dugu joko. Horretarako biak biluzik kanporatuko gara eta aurretik gorputzak ilargiari eskainiko. Biluztu nintzen. Biak kanpora atera eta biek ilargiari otoitz egin. Belaunikarazi nuen. Belaunbiko egon zenean, bat batean gelara ihesi sartu nintzen. Atea giltzatu eta neska biluza kanpoan utzi nuen.

Berehala, atearen atzean negarrez entzun nuen Ilargi Txuria. Soinekoak eskatzen zizkidan. Baldintza batean eman nizkion, ez niola Eguzki Aitari bere jokabide lotsagarria eta ospa egiteko gogoia salatuko, baldin, soinekoak itzuli ondoren, bere emabero arazoekin, bakean uzten baninduen.

Ulertua nuen, sumatua nuen Semetasun elkartean ezin zela inolako sekreturik eduki; dena edo sinesle salatari batzuek edota «garbi» batek ikusia zuketan. Arauez neska horrek bazekien kanpoan elkarrekin ikusi gintuztela eta logelan sartzen ere bai.

Zozotzat hartu ninduten, ala uste zuten, borondatea galdu arte, berek ematen ziguten edari drogatu hura irentsi nuela. Apasta edo beita moduan erabili zuketan Ilargi Txuria? Oroitu nintzen poloniar parrokian, Frantzian, apaizak kontatu ziguna, nesken arriskua erakusteko, nola Juditek Holoferno enjogi zuen eta lotan zegoela burua moztu.

Tamala, horrelako gorputz ederra ez bainuen probatu, baina eroek beti izutu naute eta irauteko, bizitzeko gogoaz ez zait gelditu. Beharbada eroa zen eta apika Eguzki Aitak edo gantxoak nire xedeak jakiteko bidalia. Nolanahi handik aurrera ez nuen gehiago ikusi.

Uste dut semearekin izaten nituen harreman laburak susmagarri zitzaizkiela. Horregatik semeari esan nion ez zezan egonezinik erakuts. Ez zen txikia izan berriki ekidin nuen zepoa, zeren eta laster ulertu nuen hedatua izan zela.

Biharamunean gantxoa bidean gertatu zitzaidan. Ez zen ustekabeaz horrela gertatzen. Hizketa sinesleen jokabideaz izan zen. Nik esan nion denak zintzo eta hitzeko ikusten nituela. Beren egonaldiarekin, baldinba, hobetuak. Hark erantzun zidan ero bat baino gehiago bazegoela gure artean, baina Semetasun elkartean arauak haustea barkatzen zitzaie.

Hortan, berriz zalantzan egon nintzen, edo Ilargi Txuri eroa zen eta ikusi zuten zer gertatu zen edo euren beita zen. Bazekiketen, engoitik, hark kontaturik zelan

jaso zen, nola iharduki nion. Egia ez dut, beharbada,  
inoiz jakingo baina ez zait axola, semea gogoan iruzur  
hartarik askatu nintzelako, askatu ginelako.

## EZKONTZATIK HERIOTZARA

Ez nekien Semetasun herrian norbait hiltzen zenean lurperatzen ala erretzen zuten. Ez nuen ehorzketarik, iletarik ikusi ez eta horretaz ez hizlariei, ez Semetasunean zaharrago ziren jendeei, ezer galdetu. Ba ote zeukaten beren hilerririk? Agian, sinesleak gazteegi ziren edo osasunez sano?

Beste behin ikaratu ninduten. Ezilkortasunaz eta hilkortasunaz hitz egin ziguten. Mintzalariak zion, noizbait Eguzki Aita arimen mundu ezilkorrera joaten ikusiko genuela. Guk, apika, Aita harekin bide berdina hartuko genuela. Bai gorputza eta arima bi gauza direla zioten. Lehena behin behineko bestearen azal zatarra. Nire ustekizun berdinean jarraitzen nuen, batak beste gabe, arima gorputzik gabe, ezin zelako izan: hilak mintzatzen eta pentsatzen ez dutelako, ikusten ez gaituztelako. Isilik egon nintzen.

Arraroa zitzaidan nola ez ziguten inoiz Jainkoa aipatzen. Bazirudien beste mundua bazela, baina han ez zegoela buruzagirik, han ez zegoela antolakizunik, bakarrik hil eta gero sinesleek beste munduan Eguzki Aita eta Semetasuna aurkituko zutela. Ez nekien noraino eta zertaraino eroango gintuen sekta horrek, zein zen haien azken helburua? Banekien sekta *guru* batzuk diru irensele hutsak zirena, baina besteak ere

psikiatrikotik igarotakoak; gainera Semetasunaren prediku horietan honelako erokeriaren susmoa nabaritzen nuen. Eguzki Aita ez zitekeen burutik osasuntsu samarra izan.

Eguzki Aitak zion ez zela behin ere idatzi behar. Ez zela irakurri behar, ezen honela praktikotasunetik urruntzen zelako eta idaztean gezurrarekin, sasi-finkotasunarekin jendea iruzurtzen. Hartan, beharbada arrazoi apur bat zeukan ezen alkoran eta ebanjelioen hitzetik ekintzetara, aspaldian, leizea ikusi nuelako. Bai ez da nahikoa egia nonbait liburutan dagoela ustea eta lasai bide txarrean jarraitzea.

Ez idazteko horrekin konturatu hintzen, ez huala behin ere sinesle baten bat aldizkaria, edo liburua eskuan ikusi. Era berean, herri honetan ez zegoela gutuntegirik. Hemen kanpoarekin harremanak moztuta zeudela.

Eguzki Aitak zerbaitetan arrazoia zeukan alegia aldizkarietan, maiz, berrikerariak eskandaluak, itsuskeriak eta miseriak, ekintza baikorrak baino gehiago aipatzen dituztela. Horiatarik osatzeko nahitaezkoa munduarekin moztea. Niri, ordea, historia liburuen eta gurutzegramen gabezia aspergarri zitzaidan.

Kutsudun ospitale batean bezala bizi behar genuen. Kanpoa zen kutsatua eta sinesle gehienak jadanik burutik eta nerbioetarik eri izanak, baina gu Tadeusz eta biok ez ginen psikiatrikotik igaro jendeak, ez zirudindin besteek kontatzen zizkidaten gogo ahuleziak ezagutu genituenik. Zertarako bildu gintuzten sekta hartara? Zertarako hire lagun horrek enjogi?

Horrelakotan, jendea ez da konturatzen presondegian baino gaizkiago dagoela. Ezen espetxetan hobeki

jaten, hobeki berotuak, telebista eta irakurgaiak eta kanpoko bisitak. Eguzki Aitak sekulako karismarekin berba egiten zigun. Ahulxkoa, minbera den edozeini begiz liluratzeko ahalmenarekin, hipnosi begirada erabiliz: denen buruzagi.

Lanetan habilela hauteman duk, «Aita Gorentasunaren» etxean izan ezik, ez dagoela telefonorik. Jakina inork ez du kanpoarekin hitzezko harremanik eduki behar. Areta andrea behar huen abisatu.

Jakina, ate nagusia behatokiz, talaiez, kanpoko-  
tik ondo zainduaz. «Eguzki aitaren» etxe zaharraren atzean beste atea dagoela ikusi duk. Bestela, nondik ekartzen dituzte «garbiek» kanpoan erositakoak? Bestalde konturatu haiz ez dela Semetasunean, inolaz ere, dena ekoizten. Nahiz janaria urria izan, osagai batzuk hala nola sasi kafea, irina ziurrik kanpotik sartzen direla eta kanpora zer arraio saltzen du Semetasunak.

Ezikusiarena, ezjakinarena egiten jarraiki behar duk. Bai, gameluak, salatariak ugari izango dituk. Ilargi Txuritik landan beste bi. Behin horrelako batek bere harridura adierazi dik ez zela, noski, dena Semetasunean ekoizten, kanpotik ekartzen zutela eta kanpora saltzen zerbait ere. Hi haserretu, nola Eguzki Aitaren hitza dudatan ipintzen zuen. Beste batek esan dik telefonatzeko gogoia zeukala eta hik suminduta horrelako lotsagarrikeria pentsatzeko ez zuela merezi gure artean bizitzea. Benetan sektako hizkera menderatzen hasia hintzen, baina zorionez, oraindikan ez sinesten.

Pixkanaka lagun gutxi batzuk berba egiten hasi zaizkik eta hik beti hire kanpoko mixeriak eta atseka-beak kontatzen, oraingo bake eta zorion handia gorai-patzen. Haiek ere berdin ia paradisuan bizi bailiran.

Jakin balute gogoan zer heukan, nola gezur esaten ikasi huen.

Atzo bozgorailuz Eguzki Aita mintzatu zaigu:

*«Gaur ezkontza egitasmoa badugu. Zeuek, ordea, ezin duzue ezkontza onik egin. Harmonia sortuko duten ezkontzak guk egingo ditugu».*

Isiltasun eta batasun handia.

*«Edozeinek ume bat egin dezake, zakur batek ere. Ikasi duzuen bezala gurasoek kutsatua ez izateko, haurrak bikote batetik bestera bizitzen ibiliko dira eta hama-bi urtez goiti gurasoei kenduko dizkiegu, bertute osoan, beste Semetasun batean hezi daitezzen. Esan dut».*

Protestarik ez. Galderarik ez. Denak menperatuak ote? Baina hau beldurra niretzat! semea ezagutzen ez dudan beste leku batera eroan balezate? Baina ba ote zen beste Eguzki Semetasunik ala gezur hutsa zen? Hiri behintzat ez ditek ezkon lagunik eskaini. Horretan behin behineko bakea baduk.

## **Nagusien «Hiri debekatua»**

Hilabete osoan, bereizi gintuzten egunetik, Tadeusz semea bi bider ikusi dut. Besteetan ikusi gabe elkar agurtu eta irriñoa trukatu. Irri horiekin, itxaropen xumea daukat semea nirekin eroango dudala.

Terrazagintzan lan eginaz amiño bat hobeki jaten dut, lanera janari bereizia ekartzen baitidate eta hor ziuurrik ez dago sorgortzeko drogarik Semetasun he-riaren egitura handiena ezagutu dut. Nagusien zoko debekatu bat izan ezik. Lehen egunetatik nagusiak ba-

genituela ikasi nuen. Gero, nagusi horiek guri debekatu zen etxe multzo eder batera erretiratzen zirela.

Sinesleek, eguzkiaren fededunek, handiki horien, *aparatzik* horien biziera arrunta eta arauen barneko egoera bakuna zela, zioten; ez zuten menpeko horiek eztabaidatzen, ez asmatzen beste mundurik. Niretzat ez zen hain garbi. Hiri debekatura hurbiltzen nintzenan janari usain onak usnatu baintuena. Gure «garbiek» beren buruen garbitzeko, beren gogoen arintzeko, eta goiko argiaren biltzeko beren arteko harremanak, beren arteko isiltasunak ere behar omen zituzten, ziotenez

Behin lagun bati eskapatu zitzaion hurbildik ikusi zituela «garbiak» maila bat baino gorago ziren gizon edo andreak «bikainak» eta horiek Su Ospakizun jaietan urrundik ikusten genituenak. Etxe horretatik ez omen ziren, bakan baizik, gure artera ateratzen ez zikintzeko.

Ez nintzen sekulan hierarkiaren alde izan. Soldadutza garaian ez nuen ofizial nahi izan eta ofizial batekin ere behin borrokatu nintzen. Nire soldadu lagun ohia ere nagusietan da, garbietan, behintzat.

Horiek, oroek, hemendik ateratzeko gogoia sendotzen zidaten. Semea eroan nahi nuen. Beldur nintzen ez ote ninduten beren asmoekin pozondu. Agian, indarra erabili beharko nuen. Oroitzen nintzen nola hara iristean herriko batek esan zidan, hemen sartzen zena ez zela sekulan ateratzen, baina berriki lurreztatze lan eginaz Semetasun herriaren egitura ongi ikertu dut eta gizon horren baieztapena gezurtarazi behar dut.

Egonezina naizen heinean ez naute hemen lotuko. Nire zintzotasuna erakusten jarraitu behar diet eta se-



meari ere esan hemen egoteaz gogaitua naizela, eta garaia, baina ez dugula inolaz ere erakutsi behar.

Badakik, gauaz, lapurren beldurrez omen, dena itxia dagoela, dena zerratua. Zakur ozarrak inguruan dabilzala baita alantzez inguratu lurretan. Horrek komunisten burdin gortina gogoratzen dik. Ez dakik, ordea, nagusien etxe horien atzean zakurrak dabilzan ala ez.

Tenpluaren barruan lan eginaz konturatu haiz zorua jotzen denean lurpeko bideak daudela, baina hortik joateko tenpluan sartu behar eta hori ia ezina dela. Hor ere, lanaz kanpo, tenpluan asteazkeneko Su Ospakizunaz kanpo ez duk sartzerik. Tenplu arraroa da bestalde, barruan aurrean eguzki sute handi baten margolana dago eta bi aldeetatik Eguzki Aitaren argazkiak, besterik ez. Tenpluko harrizko habeen inguruan harrizko edo gisuzko sugeak inguruka, kiribilka dabil-tza. Jakina goiko aldetik zaindarien galeria bat zegok eta behin iruditu zaik galeria haietan kamerak zeudela, modernotasunaren ukatzeak ez dik debekatzen erre-minta berrien erabilera.

Hizlariak esanik badakik tenplu barruan entzuten diren kantuak «garbiek», «bikainei», egiten dizkieten gurtze eta jaurespenak direla. Baina, baina lan egitean konturatu haiz inor ez dagoela barrenean, soinu tresna zerbait eta grabaketa hutsak entzuten direla. Beraz berek ez dituzte guri saltzen dizkiguten «egiak» sinesten, ez eta agian arauak errespetatzen.

Joan den astean gertaera batek osoki kezkatu hau eta apika hire eskapaldia oztopatuko zuen, baldin hi horretan kide izan bahintz edo lekuko. Gure lagun bat, sineslea, dotrina ordura ez zen azaldu. Haren bila

mutil aski zozoa igorri zuten. Eta hura oihuka etorri zitzaigun, bai niretzat erdi baregarri zirenak esanaz

—Merkuriok bere burua hil du. Oheko maindi-reekin soka eginik urkatu da.

—Isil adi eta berehala belauniko jarri. Zozoa haiz. Ezin duk horrelakorik gure Semetasun elkartean gertatu. Zigortua izango haiz.

Kanpoan iskanbila handia entzun genuen, baita barraka aldeetan mugimendua ere, baina ez genuen Merkurioaren gorpua ikusi, eta gezurra zela, ero baten lilura zela esan ziguten.

Jakina beste lagunentzat adibide eta eredu txar zitezkeen, ezen gogoan neukan, nitaz kanpo ere, agian, bazeudela giro hori jasaten ez zutenak. Ez zen, ordea, nire jakinean astebetetz beste suizidiorik izan.

Urkatua aurkitu zuen mutila ere ez genuen gehiago ikusi. Ba ote zen horrelako espetxeren bat nonbait? Ala gai izan ziren haren hiltzeko. Ez dakit noizbait jakinen dudan. Hi igorri bahinduten Merkurioaren bila, jakina ez huen horrelako oihurik jaurtiko, baina hi ere lekuko kaltegarri bezala giltzapean hengoke eta *Adios Pepe y Maria* ezin eskapatu. Egun horretatik aski zuhur ibili hintzen. Beste lagunekin ahal bezain gutxi mintzatzen. Beti lanean hengoela erakutsiz eta barruko arauak zintzoki beteaz.

Gaur arrisku handia hartu duk. Semeari joatea aipatu diok. Ez ote dute Tadeusz mintzaraziko? Ez diok, noski, xehetasunik eman. Bera noiznahi gerturik egongo dela. Mendiko bizitza aske batera itzuli nahi dela eta hi bezala sektako presondegiak asea dela. Semeari esan diok biok, Poloniara, Tatra mendietara aitonaaren baserrira itzuliko garela, bizitza berri horretan

sartzeko eta Tadeuszek ama aipatu, esanaz Parisen ama hartu eta hirurok joango garela. Ondoren isildu gaituk eta bakoitza gure aldera joan, norbaitek ikusi edo entzun ez gaituen ustearekin joan.

Jakina, diruaren prediku ederretik landan hire poltsikoa diruz hustu huen eta eman, baina aurretikan handiena kaltzontziloan gorde, ezen bahekien eta gertatu da logela arakatu zutela eta beharbada salbatu dukean diru horren beharra izango duk. Hire dokumentazioa ez diek eman esanaz beren Semetasun elkartean duin izango haizenean, beste gizon bat izateko hireak erre eta haiek eginak hartuko ditukeala.

Garai berean oroitu zaik beribilaren akura bukату zaidala. Gantxoari aipatu hionean erantzun zidan berak atzera eraman zuela, beraz hortik ez diagu itzurtzeko erraztasunik izango. Oinez ihesaldia egin beharko. Kasu horretan, berriro, atxilotuak izatea arriskatzen baita.

Nola nahi sekulan ere irteten bagara, inguruko mendirantz joango garela erabaki duk, ezen ihesaldiaz konturatzen badira ibar aldetik, hiriaren aldetik bilatuko baikaituzte. Zorionez bisitaz Semetasun elkartean sartu baino lehen oinez inguruneko mendiak ikusi eta korritu baitituk.

Zori pixka batekin mendiaren bestaldera joatea erdietsiko dugu. Indarrak, ordea eskas izango dituk eta apika Tadeusz nekez ibiliko. Gogamen horretan hagoela, buruan sartu zaik, hemendik hobekienik joateko nagusien «etxe» debekatu haien ingurutik egin behar dukeala, ezen ziur hago haiek kanpora erraz irteten direla handik beren “ardi iheslarien” biltzeko.

Gau batez lasai-lasai eta zaratarik gabe, jaiaz baliatzen haiz ilunpean hara joateko. Nagusien etxeetan

irri eta barre karkaza algarak entzuten dituk. Batetik bestera ibili haiz eta ikusi duk andreekin erotikazko jokoetan dabiltzala.

Azken etxean izan duk harridura, Eguzki Aitaren etxean sartzan neska bat, andre bat eta ...**Maria hire emaztea ikusi duk.** Bai aski itsua izan hintzen hire Aljeriako soldadu lagunari «gantxoari» hire helbidea eman hionean, baina orain Eguzki Aitaren sexu jokorako bildu luke? Hire errua izan duk. Ez diok behin ere andreari esan non henbilen zer egiten huen. Etxean utzi huen andrea, lehenik bere penarekin, gero semearen berririk gabe eta jakina hemengo sektatik ezin deitu telefonoz.

Ez duk, ordea eskandalurik egin behar, gaur. Hire kalterako huke. Bihar semearekin itzuliko hatzaio eta blau! ama bizi den etxean sartuko. Semeak jakin dezan, zer usteldura dagoen hor eta ama lotsaz hirekin itzul dadin eta beharbada hirurek sekta honetatik ihesi egin dezagun. Arrats berean semeari hitz bi esanik, biharamunean, bazkal ondoren hitzartu lanera zoan unean, hirekin amaren ikustera etor ledin.

Semea harriturik gelditu da ama sektan zegoela jakitean. Ez huen kemenik izan esateko, non ikusi huen sartzan. Gauean ez huen lo handirik egin. Zer astakiloa izan hintzen gantxoari, soldadu lagun ohiari konfiantza eginaz. Ongi hedatu sarean harrapatu gintuen hiruak eta nola handik hiruak irtengo?

## **Hiruak bat**

Semeak onartu dik, hik hautatu gau beltz batez hirekin joatea. Badaki ama hemen dagoela. Ez daki

ez dela aske. Begiak irekiko zaizkio. Aski isil izan gara erretiro diana baino askoz goizago etxe hartara iristeko. Atea jo gabe sartu gara. Ama aurkitu dugu egongelari sofa batean etzanik.

—Ama!

—Tadeusz, nork utzi zaitu sartzera?

—Eta hi, Jan, kanpora!

—Ez Maria, nire emaztea haiz.

—Ez jagoiti. Aspaldian etxetik kanpo ibili haiz abisatu gabe. Zertara etorri haiz Dabrowski?

—Zuen bila.

—Ez. Beranduegi! Hemen egia eta argia aurkitu ditiat, eta nire gorputza Eguzki Aitari eman. Benetako orgasmoa zer den erakutsi zidak. Bai! Nire maite kuttuna duk!

—Eta beste zenbaitena ere. Sexu jostailu hutsa haiz. Esna hadi! Non dago predikatzen zaigun bertutea?

—Bertutea al zen ni uso txar baten gisa atezaindegiko kaiolan edukitzea? Zer gizontasuna erakusten hien lagunei. „Andreak etxean lan egiten du“. Emakumeak ez gaituk gehiago horretarako: hire usoa belatz bilakatu duk, moko gogor eta atzaparrak zorrotz hire urratzeko gerturik zegok.

—Ez gaitun hegaztien artean bizi legeak ditinagu gainerik.

—Eguzki Aita guztien gainerik zegok!

—Legeen gainerik, ez! Nolanahi, oraindik niganetik bereizi nahi bahaiz, kanpora irten beharko dun eta legearen aurrean gauzak egin.

—Legea! legea!

—Kontuz neska, legegabeko horiekin jarraitzen badun ibiltzen, kostako zain!

—Jan, hemen aurkitu diat, hik eman ez didana.  
Hoa hemendik!

Atea ireki da eta haserre gorritan Eguzki Aita agertu.

—Zer egiten duzu hemen lotsagarria

—Lotsagaldua, lege hauslea zu zara! Emakume sinleak puta bilakatzen dituzue.

—Hitz hori ez berriz errepika! Eta ken hortik.  
Kanpora!

Tadeusz, amaren besoetara joan da eta hark bortizki lurrera egotzi du. Eguzki Aita irribarrez besaulkian jarri zen. Semea amarekin egon duk. Biak galdu dituk. Alferrikako urratsa eman duk. Etsiturik joan haiz. Haien aurrean ez duk negarrik egin. Halaz ere iruditu zaik Eguzki Aita hori oskol hutsa dela. Apur bat izuarazi duk. Konturatu duk haren hipnosiak ez duela higan eraginik. Baina, emazte gabe, seme gabe, zertara joango haiz kanpora?

Ilunabarrean, gau berean, hamarrak baino lehen, leiho azpian, Tadeuszen ahotsa polonieraz berba egiten entzun duk. Zuhaitz baten gerizpean, semearekin luzaro hitz egin duk. Tadeuszek amari arrazoia ematen dio. Galdetzen diodanean, barnetegi horretarik ezin jalgiz ez ote den preso sentitzen? Hark ez dik erantzun. Hirekin joango den itxaropen apur bat daukak. Ez dik ezetzik esan. Gero, hire andrearekin beste gisaz ibiliko haiz: justiziari esango diok nola bahitua den eta etxetik joana eta semea berdin.

Konturatu haiz Tadeusz trebeki ibili dela. Eguzki Aitaren aurrean amari arrazoi emanaz, bere burua askatu duela. Goizean hire albotik igarotzean semeak esan dik nahi dudanean joango garela. Hik esan diok

laster Su Ospakizun Nagusia eta Betikotasun-ezilkortasun jaia ospatu behar dela eta orduan mugimendu franko izango dela.

## **Su Ospakizun Nagusia**

Emaztearen hemen izateak, joatea ozta-ozta zailantzan jarri dik. Badirudi zin-zinez sektari lotua dela. Prostibulo horretan atsegina hartzen. Semeak joateko kemena berritu dik. Halere andrea, nahi ala ez, aska hezake, kanpoan egongo haizenean, Justizian bahitze salaketa egingo dualako. Non duk gogoa? Berak ez badu sekta utzi nahi, alferretan. Lotua eta indarka ezin eroan.

Gaur sekulako ospakizuna deitua dute. Harat-honata baliatuz hargin lanean erabiltzen dutean zuzia etxe baten atzera eraman duk. Uste duk Ekainako Eguzki Jaiaren antzekoa edo handiagoa egingo dutela, ezen kanpotik ekarri egurren garraioan eta metaketan astea joan zaihalako. Gero hogeit hamar multzoren aurrean, hogeit hamar egur meta egiten lagundu baduk, ez haiz su ederrari begira egongo.

Bai, egunaz semearekin joango gaituk eta nagusien Etxe debekatuen atzetik. Hor horma ez da hain gora. Hortxe zegok zuzia. Tadeuszi keinuz eta lau hitzez ihes gunera joatea irakatsi diok. Biak ezkutaturik, ordubete, etxe atzean egon. Gure ingurutik inor ez dabilela ikusirik zuzia altxatu eta zuzi muturra horma bizkarraren ipini. Tadeusz poliki jaitzi. Hi gaizkiago: zaintzaratu antzeko zerbaitekin, herren habil.

Inork ez gaitik ikusi. Semea besotik oratu eta mendi aldera abiatu gaituk. Laster oihanpepe. Basoaren

itzalpean sarturik zaga-zaga joan. Oinkatilak min ematen dik. Hi haiz oin minez nekatuena. Arkaitz baten atzean ostalduarik eseri haiz. Tadeuszek lehenik bere poza adierazi eta luzaro mintzatu zarete. Zin egin dik hemendik aurrera mendian aske biziko zaretela.

Halatan ere, geroxeago Tadeusz negarrez hasi zaik. Biok egonezinik ama sekta tzar haren eskuetan utzi dugulako. Haren bila itzuli behar genukeela. Nik: amak sektan egon nahi duela, legez kanpo Eguzki Aita senartzat hartu duelako, justiziaren bidez berreskuratuko dugula ama, baina horretarako, Poloniara joan baino lehen, Parisera itzuli behar dugula, ama ez dugula erabat utzi behar.

Ez dirudi Tadeusz konbentzitu dudarik. Ez hau sinesten. Muzin egiten dik eta isil-isila egoten. Zutik zegok semea. Hi, eraman dukean botila batetik begiak airean, edaten ari haizenean bat batean, tiroa bezala, semea eskapatu zaik. Zutitu haiz, baina oineko mina handiegia duk eta hinki-hanka laster egiten saiatu arren dudatzen duk ez haizela semearengana helduko. Deitzen duk, oihu apal batekin deitzen. Alferretan.

Isilik egon behar duk, oihuek Eguzki Semeak erakar bailitzazkete. Bai, berriz semea galdu duk eta sektak berriz bahituko duela duk gogoan, bi eskuzapi aztal beharrian lotzen ditualarik, emeki emeki, larrialdi bizian haren atzetik jaisten haiz.

Berriro gelditu behar duk, eta behean, Betierekotasun jaia hasi duk. Baina tiro arraroak entzuten dituk. Armak debekatuak diren Semetasun elkartean, tiroak? Denbora berean aieneak minezko oihuak ere. Gero, egur suak pizten. Jantzi eta haragi erre usaina. Zutiturik harkaitzaren atzetik Eguzki semeak sinesleen



hiltzen ikusten dituk. Hori duk hori agintzen ziguten betierekotasun salbamena. Hilak errearazten zebiltzak.

Hara joan duk semea, han zegok emaztea. Izugarrikeriaren gogoak, eta oinaren oinazeak konortea galarazi dik. Ez dakik zenbat denbora halaz egon haizen. Iratzartzean, hantxe beherean Semetasun elkartearen Herria sutan. Beranduegi duk. Orain urrunean egiazko salbatzaileak su hiltzaileak zatoztek. Salbatua haiz baina besteak? Eta semea?

Hinkili-hankala bidetik hoa. Bidean goiti norbait datorrelako beldurra oraindikan ez gairiditurik, ezkutatzen haiz. Gantxoa duk segurik. Nagusi horietarik bat litzateke, gaizkia eginik, eskapatzen. Hire aurrean arnasa galdurik datorrena semea duk. Tadeusz! Tadeusz!. Semeak ez du astirik izan sutea baino lehen infernu hartan sartzeko. Biak goibel jaisten gara. Ez da garaipena. Ikusgarri hitsaren ikustera goaz.

Harridura lazdurari gairiditzen zait. Bai, egun guttiz semearekin agurtu behar genuen Eguzki Aitaren estatua suntsitu da. Lagunekin eduki nuen eztabaida bakarra gogoan dut, zer ekaiez egina zen. Heurek zioten harriz egina zela, baina nik gisuz; azkenean begien aitzinean egia genekusan: erretzen ari zen. Ke beltzen artean plastikozko irudia erretzen.

Azkenean, sekta hori Las Vegasekoen antzeko itxurakeria hutsa, ideologiaren eta ekaien plastikozkoa zen, besteentzat egina, beste astakiloentzat egina. Gutaz baliatu zirenak ez zuten, behintzat, gauza sendo eta garestietan dirurik galdu.

Menditik jaitsi gara. Semetasun herrira beldurrik gabe itzuli. Gure buruak poliziari aurkezturik, Semetasun elkartearen barruan haiekin sartu gara. Zaborte-gia dirudi hilak eta gaizki erreak.

## BIDE BERRIAK

Eguzki Aita ere, erre gabe hilik datza eta alboan Maria Dabrowska nire emaztea tiroz hila. Geroztik, gure atezaindegiko purgatorio egun ilunak sektakoe-kin alderatuz, ezagutzen ez genuen paradisia genuela aitortu dut. Bai, Parisen, hirurak nekez bizi ginen, bai-na elkarrekin. Orain bi gaudelako eta ez hiru, burua apur bat birrindurik, errausturik goibeltasunak, asper-  
tasunak aske izatea zikindurik, zer egingo dugu?

Semearekin Pariseko atezaindegira itzuli gara han-  
go egitekoarekin zerratzeko. Jakina gure altzarietan eta  
geletan beste zenbaitzu jarri zituzten. Altzariak saldu  
genituen. Oroitzapen apur batzuk gorde, argazki, gu-  
tun, domina. Andrearen soinekoak karitate elkarte ba-  
ti eman.

Ez dakit zenbat hirizainei erantzun ondoren eta  
kondaira berdina esan beharrak asperturik, gero epai-  
leei xehetasun berdinak kontatu behar izan dizkiegu.  
Semeak tratu berdina izan du, eta gu biok egonezinik,  
inora ezin joanez. Eguzki Aita han hil ez balitz, itsu-  
siago izango zen. Nekez onartu dute, ordea, peskiza  
egileek, nola familia osoa banaka-banaka zepoan sartu  
ginen. Dirudienez gantxoak sarea antolatua zuen. Gan-  
txoaren gorpua ez dute aurkitu.

Lekuko bakarrak ote ginen. Ni egonaldi laburraga-  
tik, jakile aski motza nintzen. Semearengandik gehia-

go ikasi zuten eta batik bat sektako horiek hurrekin zeuzkaten jokabideak, bi pertsona aurkitu zituztela, eta haiek gure erranak baietsi.

Orduan, beti prentsa gure atzetik geneukan. Jadanik «seme erraustuaren» aferan agertu nintzelako, berriz pertsonaia bitxia bezala aurkeztua nintzen. Hainbeste harrabotsekin, zorionez, gu baino lehen sektatik ihesi joanak mintzatu ziren eta gure aitopenenak baieztatu.

Aldizkari batek gure oroitzapen kondairaren monopolioa erosi digu. Zorionezko dirua, ezen horien guztien artetik nire atezaindegiko egoitza galdu genuelako. Aldizkariak, hotela ordaindu, oroitzapenak kontan nitzan eta idazle «beltz» batek berridatz zetzan. Bi hilabetez ere Baris-Matxekin langabeziaren saria eduki nuen.

Ez nintzen alfer egon. Poloniarara idatzi nuen. Tatra mendietako aitona erantzun zidan. Gierak, Frantziako poloniarrek, herri buruzagitza hartuz, baserriak hustu zituela, baina, uste bezala, ez zuela garatu industria. Mendietan unai edo baserri bizi nahi zirenak bilatzen zituztela. Ostarte berria agertu zituztela.

## **Lotsagabekoari, bizitza**

Jan polakoa, «gantxoa» deitzen nauena naiz. Izenez Raymond de Champcourt, Aljerian soldadutza egin ondoren ez nekien zer egin? Lehenik, politikan alderdi batetik bestera ibili nintzenean, «Mairu alfonbra saltzailea» izengoitikoa ipini zidaten. Gero, kooperatiba batean lan egin. Azkenik inmobiliaria batean egiazki

etxe saltzaile ibili nintzen. Behin, Parisen etxe eder bat erosi zigun gizon batek bere hitzaldi batera deitu ninduen. Banekien *Akropolo* hartan sektak zebiltzala. Gizon horrek zion mendian zela bakea aurkitzen eta horretarako Savoian erkidetza sortu zuela.

Berehala ulertu nuen nire eroslea honelako sekta baten burua zela. Banekien kasu horietan jende gutxi askoren bizkarretik bizi direla, baita batzuetan zenbaitzu benetan eroak, sinoti gorriak, direla.

Hitzaldiaren bukatzean berarekin ele erran nahi nuela azaldu nion. Beste lagunik gabe izan genuen autua. Bere sermoiaz behar ez den goraipamenik egin gabe, azkenik haren sistema jakingarria zela adierazi nion eta hobetzen lagun nezakeela. Nire saltzaile talentuen erabiltzea eskaini nion, jende biltzen, liluratzten eta gogatzten banekielako. Halaxe Eguzki Semeen sarean sartu nintzen Urtebetez berrogeita hamar sinesle bildu nizkien.

Ez nintzen, diru gabezia edo langabezia daudenen artean hasieran asko ibili. Gehienak goi-ikasketak eginik familia arazoak zituzten, gaixo dirudunak baita depresiboak ere bilatzen nituen. Beste kategoria txit minbera eta atzemangarria unibertsitateko ikaslea zen. Nerabetasunetik jalgitzean halako hutsunea sentitzen dute; ez dira gutti, orduan, beren buruez beste egiten dutenak edo drogatzen.

Neska eder bat ere erabili nuen beita moduan, Ilargi Txuria. Bera erdi eroa zen baina oso eraginkorra gizonen «izorratzeko». «Egonezin» polakoarekin ere erabili nuen, baina hor ez zuen kausitu. Ez nuen jakin ahal izan haren xederik. Susmagarri zitzaidan eta nire egitasmoarentzat kaltegarri.

Jendeen biltzeko iragarki zintzoak eta maitagarriak ipintzen nituen; batean mendian lasaialdi ikastaldiak eskaintzen, bestean depresiboentzat isiltasun eta psikologia laguntza. Marrazki ikasketak ere apas-ta eta beita onak ziren. Hirietan antolatzen genituen, lehen urrats batean, edertiaren izenean, zepoak. Gero besteen iragarkiak ikertzen eta erabili hitzen arabera jendeak hautatzen. Nire papertxoak unibertsitatetako sarreretan, supermerkatuetako aparkalekuetan eta lo-rategietan eserita zeudenen artean banatzen nituen.

Azkenean, gure «ardi mantsoen» kezka osasunezkoak, bakartasunezkoak eta heriotzaren beldurra zirela banekien. Ez ziren gutxi psikiatren «eskuetarik» igaro zirenak.

Semetasuna berrantolatzen lagundu nituen. Fiskalitateaz nekizkienak erabiliz erakutsi nien nola zergarik ez ordaindu. Lehenik taldea, enpresa zergarik ez ordaintzeko, erlijio elkarte bezala eman behar zen.

Jarraian Europarengandik diru mordo ederra er-dietsi nien, alegia utzitako menditar herririka bat ber-pizten genuela. Beraz beharrezko eta Semetasunaren ardatz bilakatu nintzen. Geroago kontrolen ekiditeko elkarte autarkian bizi zela aldarrikatu eta ez zuela bere ekoizpenekin dirurik egiten: horretarako frogatu nuen gure aurretik auzo horretan bizi izan ziren lauhun baserritarrek ez zutela zergarik ordaintzen eta geuk ez genuela lauhun bizizale baino gehiago elkartean edukiko.

Eguzki Aitak «garbien» artean sartu ninduen egi-ten nuen lanaren sari eta korritzeko askatasuna eduki behar nuelako iradoki bainion. Denborarekin, gan-txo lan beste utziz, diruzaintza etekin emailan osoki

eman nintzen, Mendian igarotzen nituen asteetan ez nintzen sinesle sineskorren gisa musu trukean eta ia jan gabe jardun nahi eta gure Semetasuneko etxebizitza erosoetan, noizik behin, lo eta larrua jo egiten nuen.

Azkenik harrapatu nituenak Jan Dabrowski soldadu laguna, haren semea eta haren andrea izan ziren. Jan, inozo hark, bere helbidea eman zidan bere arrangurak, bere ezinbizia ezagutarazi eta seme galduaren inguruko auzia jarraitu. Eguzki Semetasunean Dabrowskiren antzeko langile baten beharra zeukaten.

Ez nuen uste, bera egonezina izanik, hain errazki bilduko nuenik, araez, ez baitzuen gure arautegia onartuko. Alabaina, semearen galtze izuak gizonaren kemena hautsi zukeelakoan herronka horretan sartu nintzen.

Semearen hotsezko istripua gertatu zenean sarea hedatu nuen. Hark baino lehen semea mendian aurkitu. Sektara eroan nuen eta ez nuela salatuko agindu nion; gero bainekien aita semearen atzetik etorriko zela, sumatu nuen aitak iragarki baten bidez semea bilatuko zuela eta nik aita iragarki bidez bildu.

Anartean, Jan hori, ez dakit non denbora galtzen zebilela, haren emaztearen ikusten ibili nintzen. Bentean emakume ederra zen eta Eguzki Aitaren gustukoa zitekeen. Neronen burua haren atezaindegira bizpahiru aldiz gonbidaturik ezagutzen ninduen. Amorruzko negarrez ikustaldian gizonaren isiltasunak haserre zegoen. Agindu nion, semea ihesi joan zitzaion herrialdera, eroango nuela. Semea, Eguzki Semeen artean ikusi zuen, baina bere ohaide berria zen Eguzki Aitak debekatu zion Tadeuszi hor zegoela jakinaraztea.

Drogari ohitu nuen eta liluratu Maria hori eta bere gorputza Eguzki Aitari eman zion eta zionez lehenbizikoz benetako orgasmoa eduki. Gure nagusiari itzala bezala lotu zitzaion. Apur bat kezkatu ninduen Jan Dabrowskik ez zenean jazartu. Egonezina halaxe ohituraz aldatzea, ezer esan gabe, susmagarria zitzaidan. Egia da behin Dabrowski Ezinegona kanporatze-ra saiatu zela, baina ez zuen ekintza berritu.

Gertaerek Eguzki Semetasun erlategi horretan, ordea, bide txarra hartu zuten. Noski kanpotik erasoak eta salaketak izan genituen. Semetasunetik bizpahiru lagunek ospa egin zuten. Nire sarea hauskorra bilakatzeko ari zen.

Gure buruzagia buruz sendo zenaren zalantza hartu nuen, ezen gure diru sarrerak eta nireak ere hobetzeko eskaini nuena baztertu baitzuten, alegia eskulanezko lantegitxoak sortu behar genituela: andreak intsentsu zotz egiten eta gizonezkoak ekologistentzako domina, zizel lan eta miniatura egiten. Dirua ez zela ezer erantzun zidan Eguzki Aitak. Jakina berak ez zuen ezer handirik egin biltzeko!

Barrutik eta gaineratik zen gaitza sortu. Ez dakit «bikain» delakoen artean gertatu zen ala ez. Eguzki Aitak bere ardi galduen gainean zeukan eragin eta itzalaz diktadore harroputza bilakaturik, burutik nahasi zitzaigun. Buruko harrak jan bere buruaren irudi esker-ga itsusi hori eraiki zuen.

Esan zigun zernahiren egitera eroango gintuela, bazirudin bere bikainen kamarilla txikiarekin berdin haunditu zen sekta, mundua txunditurik utziz, berdin ezereztu zezakeela.

Ezereztu hitzaren zehaztasunak nire kutuna zen «bikain» baten bidez jakin nituen: berrehun eta goi-

tiko sinesleak tiroz hil eta herriarekin batean erreko zituztela, aitortu zidan. Beraz Suaren Ospakizunaz abisatu gintuztenean, eskapatzeko ordua zela pentsatu nuen; pentsatu eta egitea ez hain erraz. Ospakizunaren antolaketetan hartu samarra nenbilen. Ikusten nuen Jan gizajoa erreko zuen egurraren metatzen ari.

Bestalde azkeneraino agindua zaindu behar omen nuen. Hogei etxeen aurrean berrogei «garbi» bildu ziren, ni izan ezik. Eguzki Aitaren «debekatu etxera» ihesi joan nintzen eta etxearen atzean giltza neukan gure ate berezitik joan. Herriaren atzean Eguzki Aitaren beribila hartu. Suitzara joan naiz. Han nortasun agiri berria daukat. Gainera ez naiz esku hutsik joan sektako diruzain ona izanki diru kutxatik igaro naitzelako. Orain beste izenez Raymond de la Maye naiz.

Jendeak lerrotan jarriak tirokatu zituzten. Noski, bazekiten hilko zirela eta betierekotasuna hitzeman zitzaien. Jadanik beren buruez beste egitea gogoan igarota zuten horiek, sinesle arruntek, beren buruak hiltzera utzi zituzten. Harrigarriena urruntzen eta ezkututzen nintzelarik ikusi nuen «garbiek», herriari su eman ondoren beren buruak hiltzen zituztela eta betierekotasun suan erretzen.

Gauzak ezin hobeki zoazten. Dirua ez nuen Semetasunari eman, Suitzara bidali baizik Eguzki Aitaren dirua ere hara naramanean zati bat niretzat baztertzen nuen. Nire dirutzaren zati handi berria barazki saltzetik zetorren, ezen laurdena barazkia bazen, beste hiru laurdenak gure lurretan sartu nuen kanabis kalamua zen. Eta saltzen nuenean etekin ederrena nire sakelan poltsikoratzen nuen.

Sektaren Bankua ez den batean eta nire identitate zaharra ez den batekin diru mordoa daukat aurretua.



Horiekin oroekin, isiltasunean egonaz, urte zenbaite-tarako ondasuna daukat. Ez naiz, jakina, nire kutunaz arduratu. Ez dakit Ilargi Txuria suan erre den ala ez. Eta ez zait axola.

Egunkarien arabera bi jende baizik ez dira salbatu, eskapatu diren bi egonezin Dabrowskiak. Ez zaik bi lekuko horien bizirik izatea gehiegi gustatzen, baina tira!. Ez ditek jakingo, beharbada, hirugarren bat bizirik dagoela.

Oraintxe berton, Lemaneko Aintzira ondoan dagoen jatetxean afari ondoko farias eta koparen gozatzzen hago. Ikusgarri ederra herrietako argiak urean distiratzzen. Gaua hotz duk eta hodeibarik eta hi hortxe terrazako berinen atzean, aizolbean, bero-beroa.

Suitzako garbitasun, erosotasun guztiak utzi beharko zaizkik. European hiretzat ez duk giro. Interpola engoitik hire atzetik dabil. Laster Uruguairako edo Brasilerako txartela erosiko duk. Pirapolis, Punta del Este ala Copacabana? Han nork jakingo du hi haizela Eguzki Semetasunak aberastua. Lotsabakoa haizela. Hemengoiti, zoriontsu, Ameriketean biziko haizena, Monsieur de la Maye gizon berria.

## ZAKOPANE

Azkenean Polonian Tetra mendietan, Zakopane-ko mendietan, Chocholow herrixkan gaude. Goian, Zakopane aldera elur, erditan baso beltza. Aitarekin, Piotr aitonaren etxera iritsi garenean, gure arbaso zaharra aurreko astean hil zela jakin genuen. Piotr lehengusuak atotsi gintuen. Merezita zeukenez handizki eskertu genuen. Berak jadanik, andreaz gain, etxe txikian hiru ume ditu.

Herrixka bitxia da Chocholow: oraindik etxe asko zurez egindakoak dauzka. Etxe gehienak solairu bakarrek. Behean galeria batek etxearen ingurua egiten du, edota batzuetan goiko aldean bigarren solairu gisa sabaia antolatua du. Halere geroago eta gehiago porlanezko etxeak ere egiten ari dira. Etxe berri horiek lauki baten itxura daukate eta solairu bat edo bi.

Bitxiena da, baina bestaldetik atsedengarria, herrian telefonorik etxeetan ez edukitzea. Telebista bai, ordea, baina hasieran niretzat ikusgarri ederrena kanpoan zegoen, mendia. Aste bat kea, kedarra eta erretxina darion zurezko etxe zaharrea joan zaigu. Aitarekin gela berdinean nengoen. Ez dut lo handirik egin. Loa sektan nengoenean bezain nekeza izan zait, baina hemen ez urduritasunez, ez etsipenez, aitaren zurrunga ozenengatik.

Hurrengo astean, bertan behera utzi etxe batean, baserri izanaren beheko aldean aitak sukalde bat, gas bonbonarekin eta bi logela antolatu dizkigu. Udazkena da. Gauaz eta goizez lehen hotzek ukitzen gaituzte. Nola dateke negua? Elurra etxetik hurbil jaitsi da.

Aita berehala lan bila hasi da. Behizain lana, unai, lau astez egin ondoren, basoko gurdibideen egiten aritu da. Udalak, herriak, lana ematen dio eta bizitzeko doia. Basoan aizkolari hartuko dutela agindu diote.

Eskolara joan naiz. Ni baino txikiagoekin nabil. Dakidan etxeko poloniera, irakasleek eta ikasleek darabiltena ulertzeko, ez dut nahikoa. Berehalaxe hauteman dut ezagutzen ez nituen egoera, lan molde eta gauzen izenak ez nekizkiela. Goizero ia negarra begian eskolara noa. Arratsetan pozik etxera itzultzen? Aitak ez dit geroztik gehiago polonieraz baizik hitz egiten. Apurka-apurka ez diot aitari gehiago frantsesez erantzuten. Idazten ere aitari erakusten diot, berak ez baitu gure hizkuntzaren idazkera larregi menderatzen. Bane-kien ez nintzela mintzairan ezerezetik abiatzen baina Frantzian generabilen poloniera frantses hizkuntzaz nahasia zen. Gauza berrientzat gure eslaviar hizkuntzako hitzak ez genituen ikasi, gainera ipar frantses azentu batekin ahoskatzen nuen gure mintzaira.

Haatik aitor dezadan sektako egonaldian frantse-sari hartu nion aiher apurra ez zitzaidalako ezabatu, laster poloniera ez zaidala eginbehar nazkagarria bilakatu, haustura baizik. Gure mintzaira, gure ihesiaren hizketa ere izan baitzen. Sektan aitarekin hain gutxitan hitz egiten nuenean, gure hizkuntzan egiten nuen. Jadanik, eskolan, sei hilabeteren buruan polonierazko ahoskera ona berreskuratu nuela, esan zidaten.

Oroitzen naiz ere Parisen besteek ez ulertzeko gure hizkuntzan berba egiten genuela. Behin, halere, andre lodi bati txantxa egiten ari nintzela, andreak polonieraz erantzun gogorra eman zidan.

Eguberri iritsi zaigu, *Bożę Narodzenie*. Aitak gure jatekoaren ordaintzeko, gasaren erosteko ozta-ozta dirua irabazten du. Egur lanetan, herriaren basoan ibili denean, zorionez, egur meta ederrik baztertu eta ekarri dizkigu. Nolanahi ez gara bero-beroan egongo etxean estufa bat baizik ez daukagulako. Gogoratu zait, orduan, nola Alpetako mendietan unaiarentzat egurketa joan ohi nintzela eta aitari erakutsi diot abar biltzeko eta egur arrailtzen jarduteko gai eta iaioa nintzela; gainera egurrak hiru bider berotzen du, arrailtzen, hausten denean eta azkenik erretzean.

Bai, Parisen beti amesten nuen nire gihar indarra noizbait erakutsiko nuela, baina azkenean egur egitea ez zen beti indarrezkoa, izan zitekeen ere egurra eza gutuz trebetasunezkoa. Nire gisa laban batekin zurean landare eta loreak zizelkatzen nituen, zurezko koilarak eta sardexka batzuk egiten, eta behi adarrekin arrain eskulturak.

Aita behizain zebilenean, behin edo nire opor egunetan, Tatra mendietako goi-belardietan ibili naiz, baina ez Alpeetan bezain pozik. Egun bakarreko mendi aldiak biziki motz eta erdi hotz uzten ninduen. Savoian hartu nuen ganora galdu ote zitzaidan, ala sektan egoteak nire ametsak zikindu zituen? Sarritan, gogoan neukan zer-nolako bizitza eramango genuen, ama gurekin egon balitz: mendiaren maitasuna erakutsiko nion.

Gure hemengo mendietako zuhaitz gehienak izai eta pinu kentekoak dituzu. Hasieran haien belzta-

sunak ez zidan bihotza berotzen, baina neguan elurrez jantziak eta udaberrian eguzkiz oihanaren maitatzen ikasiko dut.

Etxetik hur daukagu basoa eta ertzean urkiak eta pagoak daude. Eskolatik sar eta Alpeetan hartu ohituraz supitzgai egur abar biltzera noa. Denbora berean udaren azken denboran masustak eta ahabiak bildu ditut eta etxera ekarri. Lagunek bitxi aurkitzen dute nire egur bilketa eta basa fruta horien bilketa.

Herrian aranondoak badira, baina Savoian gertatua gogoratzen zait. Tainerie herrixkatik ihesi egin nuenean, bidean abiatu baino lehen, zorro bat aranez bete nuen. Goseak tinkatu bezain laster, besterik ezean, denak jan. Zer sabeleko mina, goiz hartan, oihana goira goi zelaietako larreetara nindoala. Sabeleko minaren ez lasaitzeko beste sabelmin batek kezkatzen ninduen, orduan: Patrickek nire gezurra kontatu ote zuen?

Etxe atzean, abere gogortuak irudi, harkaitz belardien erditan ikusten dira. Bakoitzari izen bat eman diet: zakurra, tximinoa, unaia, apeza. Gero begiratzen bada, belardiko lore urdin eta horien gainetik, begia harkaitzetatik izaietara eta epizea zuhaitzetara dabil.

Eskolan kontsolagarriena da, lagunek hasieran egin zidaten txantxen ondotik irribarrearekin ihardukiz, adiskide egin ditudala. Oraindikan, hizkuntzan ez naiz hoberena, baina matematiketan buruzagi natzaie. Oi poloniera hizkuntza hori! Hainbeste letra idazten direnak eta ez ahoskatzen. Aitari esan diot. Hark erakutsi dit, idazten ikasi dudan frantsesean, letra alferrak askoz gehiago daudela.

Baratxe-baratxe baserriko zerak ikasiz poloniera hobetzen dut. Basoko zuhaitzen hiztegia eta unai lan-

bidetakoak, orain, sarritan lagunek baino hobeki darabiltzat. Haiek, ustez eta dakizkitela, ez die kasurik ematen.

Eskolan gogokoenik zaidana Geografia da. Egun batez sosa izaten badut bidaiatuko naiz. Ez gara beti zoko batean egoteko eginak, hala dio biontzat, aitak.

Aitarekin behintzat mendira txangoz joaten garenean beti bide berri bat hartzen dugu, beti ikuspegi berriak aurkitzen, eta pixkanaka mendiaren maitasuna itzultzen zait. Badugu oraino zer egina gure mendien geografia ezagutzeko eta ilunpeetan igaro urteen ezabatzeke, ahazteke.

Atzo aita etxera itzuli zait, kezkatu itzuli. Zakopane hirira jaitsi zen. Ez zuen, han, lanik aurkitu. Gaur, arratsaldean erdi pozik itzuli da. Hirian, lana edukiko du. Lana ez du Zakopanen bertan edukiko, urrunxago dagoen Nowa Huta industria lekuan. Han altzairugintza itzelean lanetan jardungo du. Baina, baina ezin aita gauero etxeratu. Halatan ere, ez nuke hain nekez eskuratu ondoren aita utzi nahi eta galdu. Hirira bizitzera ez! Esan diet hirian ez nuela areago bizi nahi.

Nirekin zer egin eta ahaideen artean Marta lehengusinarenean baserrian lekua izan nezakeela erabaki zen. Pozik onartu nuen, mendian bizitzeko ziurtasuna ematen zidalako. Kusiaren etxea ezagutzen dut; lauki baten itxuran egina eta solairu bakarrekua izan arren, galeriaz inguratua dago. Oinarriak bakarrik harriz eta goiko aldetik zurez, ohol zabalez luze-luzean estalia.

Zer goxoa zitzaidan kanpoko paretetako ohol marroien ezti kolorea. Etxeko leiho doble txuriak eta teilatu grisa. Gain batean dagoelako, etxea asko gustatzen zait. Ibar osoa bistan dauka. Gainera etxe-aitzina

eguzki begiari, eguterari begira dago eta honela ezinago beroa eta lehorra.

Gure gorabehera guztiak nire erruz gertatu dira. Ez ninteke, ordea, antzinako Pariseko atezaindegi ilun hartara itzuliko eta gutxiago gezurrezko aterpea ematen duten sekta hilgarri horietako batetara ihesi joango. Aitaren lagun madarikatu hark, zepo gizon hark, gezurrezko askatasun baten giltzapean edukiz galdu nahi izan gintuen. Han jostatzea, olgetan ibiltzea zer zen ahazten hasi nintzen.

Sekta zepoa zen, baina aitak dio, harentzat, berdin Paris zepoa izan zela. Bai, Ipar Frantzia utzirik aita, Parisen behin-behineko lan batean hartu zuten eta hiru hilabeteren buruan aski baliaturik kanpora eman. Gezurkaz, erabilian erabiliz bizitu gara. Hi ere Tadeusz gezur sistema horretan sartu hintzen, Patrickek esan zezan kare makina batean erori hintzela. Ordu hartan, orain gogoan bizirik duan amaz ez hintzen bertan gogoratu, ez eta aitak izango zituen iskanbila, kezkek, hire bila lanak.

Noski, sektan sartu hintzen, non hengoen, aitaren Aljeriako lagunak, gantxo ustel hark gurasoak abisatuko zituelako baldintzan, baina ikasi duk hik heuk hire mezuak egin behar ditukeala, nahi baduk diren bezala iritsi daitezten. Eta jakin dakik gurasoei igorri eskutitza ez zitzaizela egundaino iritsi. Bai, aitak han Alpeetan bilatu hinduen; aitak sektan aurkitu, aitak sektatik atera. Polonian bakean baldin bahago aitari zor diok.

Orain Tadeusz ama gabe hago. Ama hire erruz apika, Semetasun sektara etorri huan; ama galdua, erdi errea, hura duk izan birrindua. Oi ama hemen balego

gurekin! Oroitzen zaik, bai gogoratzen nola amak eskatzen zidan zerbait arrangura heukanean berari aitortzeko. Eta mendira bizitzeko heukan gura hori aipatzen ahal hion.

Aitak familia giroa behar dudala erabaki du. Beste lehengusu batzuek mendian Martarena baino goraxeago nekazari lur eta etxe handia daukate kolektibo izatetik salbatu zirenak. Nahiz eskolatik urrundu, gogo onez onartu huen aldaketa. Etxe horretan, zurezko etxe horretan, zein goxoki bizi diren dakusak.

Negurako behin ere ikusi ez huen zeramikazko su estufa handia zeukatek, hi baino bi bider handiagoa, armairu baten neurrikoa, berde eta urdin koloreko zeramikaz estalia. Han aitetamekin bizi, lehengusu gazteak badituk.

Bigarren negua hara igarotzera igorri nau aitak. Berehalaxe etxekotu naiz. Oztopotxo bakarra azarotik martxora, elurra izan da. Herrixkaren bihotzean bizi gineno traktore hegaldun itzel batek elurra baztertzen zigun, baina gure baserri baztertura ez da heltzen. Etxetik ateratzeko ordea zaldi potolo sendoa daukate, lerra bat narras tiratzen du eta lerraren aurrealdean ohol sistema batek elurra bi aldetara baztertzen.

Baserri horretan ez dute traktorarik. Zertarako behar lituzkete errusiarrek saldu traktore txarrak, meatze galerietan lan egiten zutenen arrazako zaldi sendoak dituztelarik. Noizbait mendirako traktore erosoak izango direnean, hemen ere motorraren menpekotasuna iritsiko da, honela dio aitak.

Honela ere, baserriko ahaideak ez ziren kexatzen. Herrixkan aldiz eta alderantziz beti marmar ari ziren. Gure etxe horretakoak borrokatzera lan gogorretara



ohiturik besteak baino hobeki bizitzea kausitzen zuten.

Familian diote pixkanaka Mendebaldean zernahi abere eta barazki saltzen hasi direla, frantses eta aleman laborari hagin luzeek garestiegi saltzen omen dituztelako eta mendebalde hartan kalitatea zer den ahaztu zaielako.

Baserrian bi gizon gotor daude, baina elurra denean, elurraren kentzea etxeko neska eta andreak joaten dira; halaber ez dira izutzen garagar sakak sorbaldan hartu eta erremolkean kargatzeko. Aitaren harriduraz. Aitak uste zuen Frantzian bezala, andrezkoak ahulak zirela.

Ni, ja, une hartan nire adineko neskak baino ahulagoa nintzen. Hasieran aitak janariaren doia irabazten zuen, baina sektan geundenean baino askoz hobeki jaten. Laster etxeko neskak bezain indartsua izango naiz.

Nola jaten dugun? Ederki. Goizeko *sniadanie* egiten: esne beroa, ogi beltzaran batekin. Batzuetan udako lanetan hamarretako oparoa, nasaia.

Eguerditan *obiad* apairu ederrena esne mami gaztatu, patata egosiekin, edo lekekin, lukainka muturrak lursagarrekin, noizik behin etxeko seme zaharrenek mendi erreketan atzeman amuarrainak edo ehiza txitxia. Iluntzean *kolacja* arinagoa da esnegain mina eta patata. Igandetan txerriki zerra azarekin edo oilo zattia. Gustatzenenik zaidana da eltzekoa, lapikokoa, *ligos* delakoa: aza, haragi, ontto lehortu, aranpasa eta ardoz egiten dena. Zer usaina daukan! Otoruntza handiak itxaro egin behar horretarako. Frantzian hartu ohituraz gaztazalea naiz: *oscypek* behi gazta nahiago dut *brindza* ketua baino, baina dagoenarekin askietsi behar.

Atsegina da mahaira zerbait ekartzen dutenean koloretsua dadin eta zapore ugarikoa, kanela, orrea, paprika, gingembre. Niri ozpinean edo gatzean ipini barazkiak gogoko zaizkit, batik bat pepinoak, eta kipulak. Jadanik Frantzian honelako gauzak, jai egunetan, jaten genituen, baina ez zen beti erraza egun guztiz egitea.

Denborarekin eta hobeki janaz, aitak dio mutilduko naizela, handituko naizela. Jadanik gizentzen hasia omen naiz, saihets hezurak ez ditut agerian. Gure baserrian ez dute jende argalik onartzen –jan ezak! jan ezak! Ez duk aski jaten– maiz entzuten dut.

Herriko jendeek poloniera bitxia berba egiten dugula diote. Eurek ez dute irratian entzuten edo maisuak eskolan irakasten duen tankeran batere egiten. Zahar batek aitortu digu duela bi mendetako poloniera zaharrean hitz egiten dutela. Denborarekin erdi-frantsesezko hitzak gure hizkuntzazkoekin trukutzen ikasi dugu. Horretan frantsesez zerbait dakian maisuak lagundu gaitu.

Herrian, gu mezan ez ibiltzea harrigarria zaie. Baserrietan oraindik poloniartasuna katoliko izatearekin lotua dagoelako. Aitak esan dit, adina dudalako eta polonieraren hobetzeko dotrinaren ikastera katezismara joan beharko nahi nuela eta komunioa egin. Gero, gaineratu dit, handitzearekin neronek ikusiko dudala mezara joan ala ez. Berak dio gaztaroan bere katolikotasun parte nekez egin zuela, ez nauala mezetara lagunduko. Batik bat, lagunekin egoteko onartu dut herriak gainjartzen digun elizako eginbehar horren betetzea. Hasieran, dotrinak sektan entzunak eta eskatuak gogoratzenegi zizkidan. Halaz ere, elizan ikaste

diziplina ez zen sektan adina gogorra eta bagenekien ikasten genituen arauz irri egiten ere.

Nahiz polonieraz egiten zen, kofesioa gauza txarra iritzi nuen eta horretan astero zebiltzan zahar batzuk. Nire sekretuak inori aitortzea bazirudian askatasun osoa kentzen zidala eta noski, jakin nuen laster gezur esateko orde, hobe dela ez aipatzea, inori barrua ez erakustea. Beharbada, sekretu bat edo beste aitari esaten ikasiko dut, ezen gogoratzen naiz eta damutzen zait amarekin gehiago mintzatu ez izana.

Benetan igandero herrixkako eliza bete-betea zen, baina sektaren alderantziz mezaren aurretik eta ondotik apezek bakean uzten gintuzten.

Halaz ere, banekien aita erranik, Elizak politikan sekta batek bezainbeste botere zeukala, baina esan zidatenez Poloniaren onetan egiten omen zuela.

Maiz, hauteman nion, orduan, mezan jendea kalean heuregi hotzez edo beste zerbaitez kezkatua zertorenean mezaren kantatzearekin eta isiltasunarekin aurpegia lasaiago zeukatela. Aitari galdetu nion zergatik horrela jokutzen zuten eta erantzun zidan une haietan beren kezka beren arrangurak ahaztu egiten dituztela, kantatuz eta lagunarteko berotasun horrek egunerokoa ahaztera urrunxetan zituelako.

Halere, beren artean noizbehinka hitz egiten zutenean ahopeka beren egitekoak kontatzen zituztela ohartu nintzen: zaharrak abere azokaz, gazteak neskez mintzo, baina denak arinki, lasaiki. Isiltasunean ere pentsatzen delako.

Aitaren ustez, beharbada, abereen gisa taldean jendea berdin haserre berdin lasaiago egon daitekeela, herriko apeza, hots artzaina nolakoa den. Aitak arrazoi

du: sektan Eguzki Aitak berba egiten zuenean gogoia lasaitzen zitzaidala, baina ez haren hitzengatik, kanpora ihesi joango nintzelako pentsaketa lasaian hala jar-tzen nintzen.

Aitak azaldu dit zergatik eta nola katolikotasuna poloniar abertzaletasunarekin lotu den: Elizak aholku itzal handia hartu duela komunismoari eta errusiar in-periokeriari bihurtzeko indar bakarra izan delako.

Poloniak, aspaldian irentsi nahi zuten aleman protestanteak eta errusiar ortodoxoak, bi etsai mota, auzoan eduki omen ditu, ahaztu gabe azkenik Hitle-rrek eta Stalinek obratua, hori bigabostean iruzkindu dit aitak.

Ulertzen dut halere erlijioa ez dela aitaren kezka handiena. Berak dio Czestochowako Andre Mariak ez diola bere Maria emaztea salbatu eta agian, sektan en-tzunekoekin ase egin da predikuz.

Aitaren kezkak bestelakoak dira: lanekoak eta jaio ez den aberri batean, nahiz poloniar izan, berriz kokatzea. Ezin dizkie, begirunez, baserritar horiei gure artean erraten ditugunak, bizitu ditugunak kontatu. Gainera utzi behar ditugu bazter Frantzian hartu ohi-tura batzuk. Hala dio behintzat eta barrez gaineratzen “gure frantses ohiturak galdu behar ditiagu”.

## NEGUA

Beste negu bat heldu zaigu. Mendian neguaroko pozik handiena eski egitea dugu. Eskiekin jaisten gara baina askotan, gorakoan, ere oin-orrazeekin gabiltza. Jaistea gustatzen zait, baina igotzea ez hainbeste zangoko sagarrak ez baitzaizkit aski loditu. Jaistean zer askatasuna haizea inguruan txistuz, elurrean eskien zarrasta hotsa eta aire freskoan gorputza bero izatea.

Esku larru meheekin, ordea, hotz handiegiak azkordinak, ospelak eman dizkit. Etxean diote hori gertatzen zaidala, ez dudalako orain arte aski gizenki jan. Bilgorraz igurtzia azkordinaren erradurak ematen zaizkit. Etxean egin artilezko eskularru lodiekin eski makilak eskuan nekez hartzen ditut.

Sendiko baserriaren goiko aldetik eskitegiak daude eta beheko aldean zurezko etxeak eta mendi txaletak. Kusi zaharrenek turistekin lan egiten dute, hiritar dorpeei eskiatzen irakatsiz. Turisten bizkar irribarretxoak egiten ditugu, eta zernahi parada daukagu ipurdia elurrean eta eskiak airean daudenean isilpean barre ederrik egiteko.

Poloniar hizkuntza hobeki menderatzen dut. Behin sekulako irri algara eta karkaxa izan genuen. Aleman gizona, gu oinez bidean geundelarik eskietan ziztu bizian zetorren oihuka eta «*umaga!*» kontuz esateko

ordez”, “*pivo!pivo!*” garagardo! garagardo! oihukatzen zuen bere alemantasuna eta edanzaletasuna salatuz.

Beren jantzi, oinetako handi eta eski luze ederrekin turistek goitik behera begiraten ziguten. Gu poloniar zapata zaharrak oinetan eta eski motzekin desafioz haien albotik tiroa bezala igarotzen ginen. Batik bat udaberriko elur izoztuetan haien gainetik geunden eta ondotik joatean histuka eta ziztu bizian igarotzen ginen.

Holakoetan oroitzen naiz, beharbada Parisen oraino nire antzeko mutikorik atezaindegi ilun eta heze batean aspertzen denik, badagoela edo Patrick antzo telebistan tximeleta bilakatua.

Urte hartan Polonia askatu bazen elurra ohi baino goizago etorri zen eta Domu Santuru egunaz *Wszystkich Świętych* egunaz bazter guztiak zuritu ziren. Ohean sartu baino lehen leihoko saretak zerratzean harriduraz elurra argituz hilerrian, hilen adorazioaz, ehunka kandela eta argizari pizturik ikusi nituen eta aitak esan zidan gau guztian argitu zutela.

Eskitokitara joan gabe herriko karriketean leian zirrista eta zarrasta gure oinetakoen kaltetan bagenuen non jostaturik. Teilatu ertzetan elurra apur bat urtzen zenean izotzezko kanderailuak egiten ziren eta guk zurezko neurri batekin izartzen, zein gehiagokan, zeinek luzeena bildu zuen. Aski hozpera izanik ospelen belduz ez nuen inoiz irabazten. Zero azpitik termometroa hogeira jaisten zenean abereek ere pairatzen zuten eta jakina goizero beren edalontzi hormatuetan ur beroa ipintzen genien. Geunden etxean beti ura bazen eta jakin nuen tutuak lurpean metro eta erditan zeudela. Halere, gure sukaldean sartzean izoztu ez zedin, txorrotako kanila ur zirrista batekin zabalik uzten genuen.

Ukuiluetan gure txori lagunak ere sartzen ziren eta haiei kopa hautsi batean gantz urtua eta ogi apurrak ipintzen genizkien. Zaharrek txoriak lagun genituela esaten ziguten udan euliak jaten zituztelako. Neguan, noski, euliek ez zituzten euren muturrak erakusten.

## 1990.ko udan

Urtebete badu baserrian bizi naizela eta aita hirian lanean dabil. Urte hartako Andre Dona Mari egunaz oroituko naiz. Bezperan aitarekin menditik jaitsi ginen. Ez Zakopanera, Krakowera baizik.

Irri batekin aitak esan zidan errepublikaren jaia zela. Estrainioki, bide ertzetan ez nekusan errepublikaren ikurrin txuri gorririk, ez eta alderdiaren gorririk, baizik txuri-horiak. Aitari galdetu nionean zergatik zen: Aita Santuaren koloreak zirela azaldu zidan, hots Vatikanoarenak, hots Poloniako gizon handi baten ohoretan Karol Wojtilarenak.

Eguerdi aldeko jai baten karietara jaitsiak ginen. Menditar gazte dantzarien taldearekin nindoan. Bai, hamalau urte nituelako, lerden eta malgu, eskolan kirolzale, nitaz dantzaria egitea eskaini zidaten. Besteak baino atzerago ez egoteko, aitari aipatu ondoren, onartu nuen.

Polka eta Mazurka poloniar dantzak ikasi omen behar nituen. Ez genien esan, baina Ipar-Frantzian bizi ginenean Drocourt herriko poloniarak, frantsesen *Ducasse* jaietan ibili ginen dantzan. Lille hiritik etorri ziren *Polonia*, poloniar-etxeko biolinekin eta akordeoiekin bederatzi urte nituela dantza horiek ematen

ikasia nuen. Aita ere akordeoia jotzen, oroitzen naiz, baina ezteiak zirenean bazekien tango, rumba, slow eta pasodoble jotzen ere. Polka nahiago nuen ezen mazarikan neskek baitzuten mutila hautatzen, ez zitzaidan hain agrada.

Beraz harritu ziren zeinen laster ikasi nituen polka eta mazurka dantzatzen. Horregatik erabaki zuten Krakowen emango zen jaialdian antzertokian beste zazpi lagunekin agertuko nintzela.

Ipar Frantzian, gure dantzak ikusiz, frantses zaharrak alaitu egiten ziren. Aitak kontatu zidan gure dantzak XIX. mendean Frantzian modan jarri zirela eta XX mende hasieran herri txikietan eman ohi zirela. Frantsesek, batik bat *ch'ti* jende horiek uste zuten beren folklorea zela, nahiz Polkak salatzen duen Poloniakoa dela eta Mazurka Mazovia gure probintzi batekoa.

Ipar frantses gazteentzat, ordea, gure dantzak exotikoak ziren. Gure biolinak eta dantza arinak tximeleten jokia zeritzaien. Zioten ez zirela nahiko gizonezko dantza izateko.

Eurek, bertako «Xtimi» jendeek batik bat, Inauterietan fanfarre militar astun batekin elefante jauziak emanaz kalejirak egiten zituzten, petardo zartarazten, oihuka eta biraoka garagardoz erdi mozkor zebiltzan. «Xtimi» horiek mozkor ikusten genituenean gogorazten zitzaigun nola frantsesez mozkor handiari zioten: polakoa bezain mozkor “saoul comme un polonais”. Aitak esan zidan hori 1815.an poloniar soldaduak Parisen zebiltzanean erraz ardoz mozkortu zirelako, baina gure aittatta poloniarra ere wodkan hil zela, jakin nuen.

Bego! Hala dio aitak: “Frantzia han dago, kanpotar berriekin dituen arazoekin. Aitortu behar lukete,



guk poloniarrok, Frantzian ez dugulako inolako nahaskeriarik sortu, baina azken gerrateetan Frantziaren alde gudukatu. Normandian Falaisen gutarrekin hedatu zepoan harturik SS delakoek milaka hil zituzten gure herritarrak, baina nork daki hori Frantzian?”

Krakow ez nuen ezagutzen; errebal aski hitsen ondotik hiri barnean etxe koloredunak baziren, berde, hori, gorri, urdin, arrosa. Hirian gorago Wavel erregearen jauregia. Hiriaz ikusi nuen zatia, garbi, txukun eta eder iruditu zitzaidan.

Larunbata hartan beribilek eta autobusek ez zuten hiri erdian sartzea zilegi. Jende oste handia kaleetan zebilen. Errege jauregiari begirada bat eman genion, baina egun hartan, ez zen sartzerik, non ez zen ilara luzea eta barea hartzen. Geuk ez geneukan astirik.

Halaber, nahiz ez zen igandea, alboan dagoen katedrala jendez mukurru betea zen. Ozta-ozta sarreran zegoen aldarearen aurrean ehunka argizari piztuak zirela ikusi genuen.

Egun hartan, Andre Mari bezperan, horko Birjinaren irudia ez zen ikusten lorez estalia zelako. Krakoweko katedrala horretan daude Polonia zaharreko erregeak ehortzirik. Ezin hurbilduz, beste behin ikusi behar genituen.

Jende gehiegi zegokeelakoan *Teatr Slowacki* antzokiaren ordez, kanpoan azoka plazan jarri ziguten antzezlekua. Azoka plazara iristean galdetu nion aitari zer zen eliza eder hura. Hark barrez Udal etxea bere kanpandorrearekin zela eta eraikin luzea, berriz, Oihal Merkatua: *Sukennice*. Ikurrin zurien artean errepublikaren ikurrin bakar bat zegoen, ez zen komunisten gorria, poloniar txuri-gorria baizik.

Dantzari jantzia egin zidaten: feltrozko kapela bo-robila muskuiluz josia, txaleko zuria gorritz brodatua, alkandora zuria, zaragoilak belauneraino ile txurian, galtzerdi zuriak, ardi larruzko txaketa.

Alaiki dantza egin genuen. Lehenik biolin orkestrearekin eta gero akordeoiekin. Tarteka atsedean har genezan zitara batzuek musika goxoa ehotzen zuten. Biolinekin polka eta mazurkak eman genituen eta akordeoiarekin magiar, hungariar tankerako dantza biziagoak; azkenik eta hori kostatuenik zitzaidan Podhaleko mendi dantzak erritmo aldakorretan eman behar zirenak. Ez nintzen dantza horietan gailenena, hoberena agertu.

Polonia bitxi horrez badut ikasteko, goizean autobusak lerroan ikusi nituenean uste izan nuen gure dantza festibalarengatik zetozela, gero pentsatu katedraleko mezaren entzutera edo Waveleko jauregiaren ikustera etorriak zirela eta orain herri auzora joatekotan ziren. Aitari adierazi nion eta hark esan, jendeak autobusean jin baldin baziren goizean oinez jarraituko zutela.

Aitari nire harridura erakutsi nion «zergatik dantzan egin genuen eguerdian eta ez arratsaldean?». Aitak erantzun eguerditik gauerdiraino hamar milaka jendeak Częstochowako bidea hartuko zuela *Jasna Góra* mendirantz, han dagoen Birjina Beltza, Poloniako ama jainkosaren irudia igandean, adora zezaten. Egun bat eta erdi bidea egin ondoren iganderako han egongo ziren. Bai *Wniebowzięcie Najświętszej Marii Panny* delakoan Andre Mari egun ederra zen.

Hain zuzen bazkal ondoren gu etxeratzen ginelarik, errepidean jendeak, elizako ikurrin estandarteen

atzetik ibilki, Iparralderantz hartu zuen. Guk lasai hegoaldeko mendietara itzuli ginen. Gero irakurri genuen, egun hartan, berrehun milatik goiti bildu zirela, eta Lech Walesa Solidarnoseko sindikalista katolikoak, askatu berriak, hautetsi berriak, hitzaldi bat egin zuela, komunismoaren azkena ospatuz.

Binaka jarri gintuzten eta lagun on-ona nuen Zofia neskarekin eman ninduten. Neska ile hori, begi berde, gerri mehea eta zangoak dantzarako moldean eginak zituen nabarmendu zen. Zofiak ni baino zaharxeago zirudikeen baina ni baino txikiago zen. Zer polita jantzi gorrian, larruzko bota beltzekin, lore koroa buruan, eta txingola gorriak bizkarrean.

Krakowetik joan baino lehen argazkitan hartu gintuzten neskarekin eta esan «Zer ezkongai ederrak zareten!». Nahigaberik gorri-gorria jarri nintzen hain zuzen lagun goxo honek nire gogoan lekutxo zeuka-lako. Bestalde, hori entzutean neskak begiratu zidan. Jende aurrean nengoen eta mutu. Nire gorritze hori ez nion nire buruari barkatzen. Beldur nintzen lagun artean, ondorioak izango zituela, eta beharbada beste behin gertatuko zitzaidala.

Egun hartan zirrara bizi horren ondotik, eta ezin ahaztuz, eskaini zizkiguten gozokiez ase handia ukan nuen. Boa sugea bezala gehiegi jan, *makowiec* eta *pty-sie* irensten ibili, inoiz jan ez banu legez egin eta nire betiko etsaietarik, aranetarik, batik bat larregi ahoratu. Gero, gauaz urdailetik minez ez nuen lo handirik egin. Lorik ez egiteko beste arrazoirik ere baneukan, lagunek ez al zuten entzun «ezkongai» kontu hori? Entzun bazuten nitaz txantxa, trufa bat edo bi egiten hasiko ziren. Horrek egun eder hura apur bat ilunduxe zidan.

Egunak joanaz ohartu nintzen lagunek ez zutela entzun, eta behintzat txantxaren egiteko eguna igurikatzen zutela. Nire buruaren hobeki kontrolatzen ikasi behar nuen eta ez nolanhika gorritzen.

Ez zen zorionez gure argazkia komarkako egunkarrietan agertu eta ahaztu nuen. Zofia konturatu zen harekin hotzago nintzela. Galdetu zidan. Aitortu nion. Irribarre goxoa egin zuen, musu bat eman eta agindu zidan argazkilariekin gertatua, beste inori ez zioela aipatuko. Geroko urteetan zer pozik ibili nintzen Zakopanecko folklore festibaletan... nire Zofiarekin ibili!

Jai haren ondotik nitaz entzun nuena aitari azal ziezaion galdetu nion, zergatik esan zidaten Wavel muinoko *smork* bat nintzela. Zer zen *smork* hori? Eta aitak kontatu zidan amari entzunik

“Krak erregearen erretaldian Krakow hiriko Wavel muinoaren azpian harpe bat zegoen. Egun batez horra dragoi bat, *smork* bat bizitzera etorri zen eta egunero erregeak haragi eta hezurrez hornitu behar zuen. Egunerozko ardiak asperturik *smorkak* birjina gazte bat jaten emateko eskatu zuen. Erregeak ez jakin zer egin giza gose herensuge harekin; hiria mamu hartaz askatuko zuen zaldunari Wanda bere alaba emango ziola aldarrikatu zuen. Zaldun guztiek krak eta porrot egin zuten. Azkenean Skuba izeneko oskigile, zapatagin batek asmatu zuen nola egin. Ardi bat hil. Ardia hustu. Ardia sufrez bete. *Smorkari* eskaini. Ezinase, gose-jankin hark aho betez irentsi zuen, baina eztarria eta urdaila sutan jarri zitzaion eta suaren itzaltzeko Vistulako ibai ura husten hasi, horrela hanpa-hanpatuz lehertu zen, zartatzean bere larruaren ezkatat harri gisaz inguruan

barreiatu eta sakabanatuz. “Niretzat *smork* hori ezagutu nuen sektako guruaren kastakoa zela erabaki nuen.

*Smorkaren* hiria baino Tarta mendiak nahiago nituen. Mendiaren maitetasuna ere osoki berotu zidana Morskie-Oko aintzirara eginiko txangoa izan zen. Urteberriz elurrean lerrarekin egun osoko ibilaldi luzea egin genuen. Zer haitzarteak! Zer harresiak! Zer mendi labarrak! Zer basa ur gaitzak! Zer ur jauziak!

Aitari esan nion gogo onez han biziko nintzela eta erantzun zidan han ikusi nuen bezala, ez zegoela ez etxerik ez etxolarik, izadiaren erreserba osoa zela. Edertasuna eta lana ez omen dira gehienetan adiskidetzen. Hala ziokeen aitak. Nowa Huta gogoan?

Orduan, aitari erran gabe, asmo bat gogoan sartu zitzaidan, bizikleta behar nuela. Oroitu nintzen Josefina, begiak berde eta biloa gorri zuen amaren ahizpak, egiten zuena: larunbata goizetan izeba bizikletan ateratzen zen eta astelehen goizeraino, nonbait kanpoan ibiltzen. Ez genekien non zegoen. Gauak bide ertzetan, harkaizpeetan, bordetan edo oihanetan bere bizikletaren ondoan lo igaro ohi zituen. Zion, honela astelen egunetako lana jasangarri egiten zitzaiola. Bizikleta bat banu noiz nahi *Morskie Okora* itzul ninteke, jakiteko ea diotenez “Itsasoaren begia” dela eta harekin lotua, ura gazi denez ikertuz.

Andre Dena Mari egunean Tadeusz semearekin jaitsi ginen. Zer jai ederra! Honela diot, ez bakarrik semea dantzari zitzaidalako, baina hango antzezlekuan jarduten, hau gaztedi ederra! Egun baikorrean hengoen. Eguzkiak ote berotua? Han jardun zuten mutil gotor, sano, errime, lerdanak miresten hituen. Zer arraza ederra! Halaber neskak, begiak ur antzo,

arre, berde, urdin. Buruan ile luzeak motoan bilduak edo luzeak, beren urre matazak distiratzten eguzkitan, ederresten. Lagunari hire zirrararen berri eman diok eta hark muzin batekin:

—Gaur baikor idorotzen haut.

—Begira arraza gurea neska mutil mehe ederrak!

—Eder dituk, apika, ez dutelako mendebaldetarren gisa larregi jaten.

—Bai. Agian arrazoi duk, baina adin berdinean ikus bahentza Frantzian mutilak lauetarik bat potoloegi, lodiegi, zorro handi eta andretan hirutarik bat ipurdi izter gizenekin. Zer itsuskeria! Nahiz ez garen oraindik estatubatuarren mailara heldu.

—Aizak Jan ez hadila azalari fida, jendeen mamia ezagutu baino lehen. Ez nitek hire berotasuna ito nahi, baina besteak irudi dituk neska-mutil ederrak. Haiekin mintza hadi. Ilea kentzen diek, askori, buru hezurra irekitzen eta burumuinaren kuskua hutsik edo gantzez betetzen.

—Beltzegi haiz Andrzej. Denak ez dituk horrela.

—Ez zekiat. Solidarnosen gure kezka handia duk, gazteak geroago eta ideal gabeak direlako.

—Ba gizona. Uste diat arrazoi apur bat daukakeala: zerbaiten aurka egiten jakin duzue, baina zerbaiten alde ez hainbeste, Estatu Batuetarik mirariaren zain zaudete.

—Zer uste duk dela gazteen kezka?

—Zer zen hire gazte garaian?

—Ez duk berdin. Orain, gazteen helburua modan izatea, azken berritasuna onartzea eta haurtzaroko joko eta umekerietan jarraitzea duk.

—Mindua hago. Hori Krakowako giroa duk. Ez duk hemen Polonia osoa.

—Bai, beharbada, baina nire ilobetan ere idealik ez dakusadala. Bata ezkonberria izan arren, lanetik landa, sagua eskuan eta goizeko ordu biak arte bideo jokotan ari duk. Andre berria baino gehiago pantaila dik maite. Beste batek ez du neskekin ibiltzeko astirik, telebistan ez bada kirol zelaian futbola ikusten zegok.

—Ez zekiat ez. Orain arte, nondik nahi, jostatzen dakiten arren, mendiko gazteak ez dituk halakatuak

—Urte askotarako, ote?

Lagunaren sermoiak apur bat asperturik oroitzen haiz, orain, Poznaneko kanpinean eta beste lekutan nolako gazte ustelduak ikusi hituen, baina ez ote zen halakorik antzina? Horiek gogoan eta hizketan hire andere zenaren bilo hori irudi lausoa agertu zaik, baina badirudi beste irudi bat tartekatzen zaiala. Ez haiz oraindik oso zaharra ez gogoz, ez eta gorputzez.

## POLONIAN SARTZEAZ OROITZAPENAK

Gure Polonian sartzeak oraingo Tadeuszen bila-kaera, haren jokaera kanbioa adierazten asko lagundu nau. Oroitzen naiz. Semearekin Polonian gaude, baina ez uste egunetik egunera egin zela gure itzulera. Aitonak idatzi ondoren semearekin gurasoen herrira itzultzea erabaki nuen.

Oraindik polonieraz nekien eta semeak zertxobait. Gure gurasoak ziren atzerriratu zirenak. Semearekin nahiko ilunkeria, itsuskeria bizitu genuen. Aski Paris! Nahikoa Alpeetako sekta! Airez aldatu behar. Ezkinen lehenbiziko poloniarrak itzulera bidearen hartzekotan jartzen ginenak eta gure aurretik egin zutenak zioten ez baziren aberastu, bizitza ez bazen erraza, herria ez bazen berek amestu hura, ahaztu ez zuten aberrian giro ona aurkitu zutela.

Poloniar hiritartasuna gorde nuen eta zorionez emazte zenak ere, horregatik semearen poloniar ez izatea gure frogak ekarriz konpondu nuen. Nola nahi Poloniarekiko harreman zubia ez genuen behin ere apurtu: gazte garaian arbasoen ikusten ibili ginen eta komunismoaren urte beltzenetan lagunduxe ere.

Jakina, ez nintzen Polonian jaioa ez eta semea ere ez. Zorionez haurtzaroan lau urte eman nituen Frantzia polonierazko eskolan eta bizpahiruetan arbasoen



herrira itzuli: nire hizkuntza etxekoian nire gisako lehen eskaerak gobernuari, eta orduko lehen ministro zenari, idatzi nizkien.

Nire argudioak hauek izan ziren. Alarguna nintzela, seme polonieraduna naukala eta nire ahaide guztiak orain Polonian bizi zirela; horretarako sortze agiriak erakutsi nizkien baita familiak bidalitako gutun bat edo beste. Eduki nituen lanbide guztiak –atezain lana baztertuaz– zehazki azaldu: ikatzean, altzairuan lana, mekanika apur bat, porlan lantegian zementugintzan eta gazte garaian ere bizpalau aldiz Poloniara nekazaritza lanetara etorri nintzela.

Azkenean, lau elkarrizketen ondotik, semea aurkezturik eta aitonaren herriko auzapezak bidali ziurtasunekin, onartzeko bidean ezarri ninduten. Auzapez hark, Tomasz Wisznieski agurgarriak, idatzi zien, atotsiak, izanen ginela, bizilekua izanen genuela eta ni herriak lanean erabiliko ninduela. Ez zen niretzat lehen aldia Poloniara nindoala. Gazteagoan, ahaideen etxeetan oporretan eta laguntzen egon nintzen. Bane-kien zorionez herria aldatzen ari zela. Ez ote zen larregi eraldatuko?

Alemanien muga igarotzea nahiko luzea izan zen. Alemanek poloniarrek ez gaituzte maite, erdeinuz ikusten gaituzte. Gure aiherez ala zerbaiterako boterea zeukatela erakusteko, horrela jokatu al zuten aleman mugazainek? Badakit gorroto gaituztela, gerratearen ondotik, Silesiatik kanpo seiehun mila aleman kanporatu genituelako, eta katoliko garelako.

“Alemania demokratikoan” sartu ginen egunean, 1986.urtean oraindik, *Burdinazko gortina* hor zegoen kapitalistengandik herri komunisten babesteko: be-

tiko itxuran bi alanbre horzdun erroilu itzelak bi muraila egiten zutelarik, ibilbidea bien artean. Alanbradaren bitarte horretan, ibilbidean zaintzaileak zakur eta pistola automatikoekin. Bazirudin presondegi batean sartzen ginela.

Berlingo hegoaldetik joanaz komunistek Mendebaldera zihoazen iheslariei oztopo egiteko, Berlingo harresia, Lotsaren Murua ez genuen ikusi. Mugan berriro zain eduki gintuzten semea adingabekoa baitzen eta, nahiz poloniar pasaportearekin nentorren, ni ere Frantzian jaioa.

Nola nahi bi Alemanien arteko desberdintasuna gure automobilak RDA horretan jauziak eta kurrinkak eginaz ezagutu zuen berehalaxe. Poloniarrek zioten trufaz, Ekialde Alemanian komunisten errepideak zuloz betetzen zituztela, inbasoregaiei oztopo egiteko.

Polonian harrera adiskidetsua izan genuen. Ongi etorriak ginen. Mugatik Poznanera gure Frantziako beribilarekin jarraiki genuen Warszawa bide seinalea bazter utzirik Poznandik Wroclawera eta hegoaldeari buruz Krakowerantz abiatu ginen.

Errepideak hobexeak zirela, egin berriago bailiran edo hobeki eginak eta hori ez diot poloniarra naizelako. Berriz ikasi nuen, ordea, ahaztu egin zitzaidana, elurrarengatik herrixketan kaleak ez zirela asfaltoz estaliak harri koskorrez baizik eta benetan ez zirela aleman gorrienak baino askozaz hobekak.

Hasieran, guk eta automobilak jauzi ederrik egin genuen. Tadeusz erituxe, gaxotuxe zen eta bazter ederrei begiratzea utzirik maiz esanka « Noiz iritsiko gara Zakopaneko mendietara? ». Errepidean, berehala, isildu gabe, ezagutzen ez zuen aita-amen herriaz Tadeuszek hamaika galdera egin zizkidan.

—Aita zer dira errepide ertzean, bide bazterretan ikusten diren nitxo antzeko eraikuntza horik? Txorien-tzat? Katuentzat?

—Isil hadi mutila eta etzakela horrelako galderarik egin.

—Ez didazu ihardetsiko.

—Bai, orain bezala, bai: hementxe gure artean gaudenean baizik ez horrelakorik egin, baina jende aurrean inoiz. Ez al dituk ikusten loreez apainduak direla? Eta txoriei ez zaiek lorerik eskaintzen.

—Eta zer dira? Postetako gutun kaxak, gutunon-tziak.

—Ez mutikoa, ez. Horik santutegi txikiak dituk eta begiak ongi zabaltzen badituk horietan Ama Birjina-naren irudiak ikusiko dituk

—Eta zergatik Birjina eta ez Kristo gurutzean Frantzian bezala?

—Tadeusz hori duk seinalea Polonian andreak eta amak batik bat errespetatuak direla eta amarik gabe ez dagoela ez Poloniarik, ez poloniarrik.

—Hori esan eta zer da egin duzun irriño hori?

—Nire amarengan pentsatu dudalako, seme.

(Ez da hori baina ezin hion semeari kontatu herrian kurrutzen den poloniar nesken fama, gizonezkoek baitiote Polonian andre birjina bakarrak bide bazterretako irudiak baizik ez direla)

Beste galderak erakutsi zidaten zenbateraino sektan egoteak zuhurtzia zerbait ekarria zioten Tadeuszi, baita jendeengan ez sinesteko, jeloskortzeko gogoia ere.

—Aita zer esan behar diegu ama gurekin ez dagoelako berataz galdetzen badigute?

—Hil zela ihardetsi.

—Hil, hil... baina nola gertatu zen galdetzen badigute?

—Istripu batean erre egin dela.

—Aita! kontuz badakizu *Paris-Match* aldizkariari gure sektako oroitzapenak saldu genizkiogula. Egun edo bihar Frantziatik etorri poloniar batek, ustekabean, dena sala lezake.

—Arrazoi duk. Beraz... edo Savoiaiko mendietan sekta baten bisitatzen ari zelarik sua piztu zela eta ama erre.

—Baina ez da hori idatzi duzuna.

—Beharbada, guregandik hurren den norbaiti, aitor gienzeaioke ama sekta batek bereganatu zuela eta gure ahaleginengatik ez genuela haren salbatzea erdietsi.

—Nik behintzat esango diet, aita, xehetasunentzat zuregana jo dezaten, ezen badakit sektan ikasi-eta, nola helduek egia gazteengandik jakin nahi izaten duten. Ez dakit Polonian izateko zirrarak edo geroaren kezkek halakatua, nekatua nago eta gelditzeko nahiarekin. Semeari esan behar diot

—Tadeusz, gelditu behar diagu.

—Ez aita jarraitu behar genuke.

—Ezin diagu batean bide hori egin, badakik.

—Aita esan zenidan ez zela Zakopane hain urrun.

—Bai. Gidatzeak, ordea, indarrak hustu zizkik eta bestalde gosetua nagok.

—Aita ez gelditu! Arren, jarraiki!

Zer du seme horrek ala sektan egonez geroz egonezina trukatu zaio mesfidantza eta mugiezinarekin?

—Nahi baduk, nik jaten dudan bitartean automobilean egon hinteke.

—Ez aita, zurekin! zurekin!

Nonbait bazkaldu behar genuela eta Wroclaw baino lehen, zutikako jatetxea ikusi nuen. Bai, ohitura da Polonian horrelako jatetxeetan zutik jateko eta oroitzen zaidanez nahikoa jaten zen horietan:

—Egun on jauna.

—Egun on.

—Jan dezakegu?

—Bai.

Badirudi gogoz gaindi zerbitzatuko gaituela gizon horrek. Bat batean, hor jaten daudenak begi susmagarri begiratzen digute eta isiltzen. Gure jantzi bereziengatik ote?

Nagusia edo zerbitzari nagusiak bi platera ematen dizkigu opil txiki banarekin, gero plater handiagoa bi lukainka muturrekin. Hori izanen ote dugu bazka bakarra?

Semeari zer edan nahi duen polonieraz galdetzen diot, *woda* erantzuten dit, eta orduantxe zerbitzaria hurbiltzen zaigu

—Ez zarete alemanak?

—Ez, ez.

—Ez eta errusiarrak?

—Ez eta ere. Zergatik diozu hori?

—Zuen polonieraren ahoskera bitxiagatik.

—Barkatuko diguzu baina Frantzian jaio poloniarra naiz eta nire semea ere. Baliman, frantses sorterriarren doinuak kutsatu gaitu.

Nagusia edo dena den jaun horrek bi mortadela xerra eder ekartzen dizkigu, baita bi gazta zati txiki eta bere etxeko aranak..

—Eskerrak zuri, baina badirudi Gomulka lehen-dakariaren garaian baino gutxiago ematen duzuela.

—Urteak joan dira. Daukadan saltzaile lizentziarekin ezin dut gehiago.

—Eta denetan halaxe da?

—Ez, ez, baserrietan ez dute gaizki jaten.

—Eta hirietan?

—Hirietan eta jarririk jateko lekuetan zernahi gauza on aurki zenezake baina deabruaren prezioan.

—Merkatu beltza?

—Horixe bera.

—Frantziako ohiturak galdu behar zaizkigu, baina ez gara horregatik atzera itzuliko.

—Polonian kokatuko zarete?

—Bai Zakopane aldean, familian.

—Ongi etorri gure artean eta ikusarte.

Jatetxetik atera garenean semeak ez du luzatu berriz galdera egitean:

—Aita zergatik begi gaiztoz ikusi gaitu, aleman edo errusiar ginelako ustez?

—Semea, historia luzea lukek edasteko, baina jakinezak azken gerratean Hitler aleman naziekin eta Stalin sobietarrekin bi diktadoreek hitzartu zutela bakoitzak gure Poloniaren erdiaren hartzeko.

—Baina ez al ziren gure herritarrak gudukatu?

—Bai arren bai. Halatan ere, alemanek zeukaten Europako lehen armada, errusiarrek gizonez ugariena; gero bi lapurrak liskarrean sartu ondoren, elkarren aurka hasi eta aleman naziek Polonia osoa okupatu zieten.

—Errusiar soldaduak erakutsi zenizkidan. Zer dabilta hemen?

—Alemanak kanporatu eta poloniar komunistekin herria kontrolatzen dute, baina kontuz horretaz ez hadila inorekin mintza.

Ez nauk gehiegi kezkatu behar semeak galdera hori automobilean egiteaz bere eskarmentu laburrean aski ongi ikasia du sekretua edukitzen. Bideari berriz begiratzen diok ezen hitz egitearekin ez dualako eskuinaldea ongi atxiki. Isil eta pentsakor daukak semea. Zer arraio jalgiko dit:

—Aita zer dira aipatu zenizkidan diktadoreak?

—Gogoratzen zaik, seme, Eguzki Aitak gurekin nola jokutzen zuen?

—Bai gaiztoa, gogorra, eroa zen eta guk isilik egon behar.

—Diktadoreek hori bera egiten ditek, baina ez gure kasuan bezala berrehun jenderekin beren erresumako milioi jenderekin, jendeen gogoia belauniko jarritz.

Gaua etorri zaigu eta ez gara Wroclawera iritsi. Nonbait lo egin behar. Herrixketan badakit ez dela hotelik. Bide ertzean akanpaleku baten seinalea ikusi dut eta nolabait hor sartu eta automobilean lo egingen dugu.

Ez dut oihalpe karpa baten erosteko astia izan baina kanpin bonoak erosi ditut. Semeari erraten diot. Bera akiduraz edo isilik. Bide zehatza zein zen galde-tu dudanean, andre batek erran dit, kanpina, oraindik egun laburrentzat, irekia daitekeela, azken egunak hots.

Kanpina hutsik dirudi eta itxia balitz? Sarreran, argibide eta atezain lekuan andre bat. Betiko galdera: nongoa naizen, paper berriak erakutsiz poloniar berria. Zenbat gau? Zenbat jende?

—Torizu kanpin bonoa.

—Non erosi duzu?

—Parisen.

—Zaude. Badakizu dolarrak gora egin duela, eta igoera horren tarte slotyz ordaindu behar didazu.

—Zer deabru! Erosi dut eta hortxe dago besterik gabe.

—Zaude zuzendaritza deitu behar dut.

Eta hor komunismoa ito duen bulegokraziaren komedia ederra jasan duk. Semea erdi lo automobilean eta hi han zutik. Kanpineko bulego ilun hartan ordu betez andrea ezin erantzulerik aurkituz ibili zaik *Prozjen Panne* eta *Prozjen Panby*, deika. Batean gizonari, bestean andrezko bati galdezka.

Bazirudin inork ez zuela erantzukizunik nahi. Azkenean andreak kalkulatu eta eskatu 30 slotyak, ba-kearen erosteko ematen dizkiot. Paper bat egiten dit, doblea gordetzen eta eskutik eskura 30 slotyak atzera ematen. Bai komunismoak ez du poloniarren pentsaera aldatu.

Zain gauden bitartean gogotik pasatzen zaik txistetan, herri batek besteari egoisten eta egiten dizkion ziztetan hanka motza, besomotzaz trufatzen dela. Gogoratzen zaik zer dioten errusiarrez:

—Ba al dakik komunera joan behar dutenean sobietarrek, paper bat bete eta sinatu behar dutela?

—Eta nora doa papera?

—Ez da galdua, higienikorik ez dutelako, egitera doanari, komunean erabil dezan uzten diote.

Udaletxeek, lantegiek eskatzen dituzten paperketengatik horrelako zerbait kontatzen da.

—Ba al dakik NKVD isilpeko poliziaren jakinmina asetzen dituztenak, hots, paperen erdiak metatzen dituztela, eta beste erdia ematen jatera?



—Jatera... jendeari?

—Ez ez, behiek belarrik ez baitute, behiek dituzte soberazko paperak jaten.

—Gaixo behiak, sobietar behitxoak!

—Gaixo gu! Sobietar gizajoei, gero gazta erosten diegunean ezpaita paperik gaztaren inguruan, gaztaren barruan baizik.

Ez dizkiok semeari kontatuko, alde batetik oraino, Polonian, komunistak erdi boterean daudelako eta ez-baitira maila handiko esaerak. Semea ordea berriz hasi zaik:

—Aita ez dut Zakopaneko osaba ezagutzen. Ez al da behin ere Frantzian egon?

—Bai seme Dabrowski haurride guztien legean ipar Frantzian jaioa, baina 1941 urtetik aurrera gerra-teak lau anaiak sakabanatu zizkian.

—Lau anaia? Ez didazu egundaino hainbeste zinetenik aipatu.

—Bai, zoritxar luzea izan huen. Lehenik, lehenbiko hiru anaien aita, alemanek hilik joan huan.

—Alemanak, Frantzian ere?

—Bai. Nire amaren lehen senarra Saint Ramberteko karrikan zebilela, goiz batez 1941. urteko abenduaren hogeian okupatzaileen aurkako atentatua gertatua huan. Gizon hori kalean zebilean. Aleman kamioi bat zuzen zuzenean espalaira igorik horma baten kontra erdi lehertu zian aita hori, eta gero zabuka zihoala bi bider haren gorputzaren gaindik igaro huan.

—Eta kamioilarien aurka ez zen ezer egitekorik?

—Kanpotarrek okupatzen hautenean ez daukak zuzenbiderik.

—Eta osabek gerra denboran zer egin zuten?

—Batek lortu zuen Espainiatik IparAfrikara joatea. Hori Frantzian egon dena ezagutzen duk

—Beste biak poloniarrek zirelakoan frantses faxistek preso hartu zituztean, alegia herriko frantses erresistentziarekin jarduten zutelako. Hamabost hamasei urterekin deportatu.

—Zer da deportatu?

—Atxilotu eta herritik urruti bidaltzea.

—Osabak Frantziatik Alemaniara joan ote ziren?

—Ez Tadeusz, mingarriena, alemanek Polonia okupatzen zutelako, Auschwitzeko zigor zelaira eroan zituztela duk.

—Gero zergatik ez ditut ezagutu?

—Nire anaierdiak zirelako eta bata, askatuz gero, Rocourtera itzuli huan baina burutik nahasia, bere burua hil zian, bestea berriz, aitonarekin Poloniako errepublika garaian Tatra mendietara itzuli huan. Hura duk 1950. urtean Frantziatik aitonarekin joana, Zakopanen ezagutuko dukeana.

—Anaierdi diozu? Zer da?

—Lehen hiru anaien aita hil huan. Ama alarguna, hiru haurrekin ezin biziz, hire beste aitona den horrekin ezkondu huan. Biek *Narodetz* polonierazko aldizkari baten iragarki bidez elkar ezagutu zien.

Semearekin kontuak eginaz hiru anaien bizitza birkontatu diok. Ahalke hengoan, hamabi urtez ez huen, benetan, semearekin hitz egin.

Jarraian erasi hion nola Poloniako familiarekin harremanak berritu hintuen. Behin, Jan Stablinski poloniar lagunak txirrindulari taldea atondu zuen. Poloniako enbaxadak jakinik eskatu zion Frantziako poloniarrekin Bakezko Lasterketan ibiliko zirenak bil

zitzan. Bake Itzulia zeritzaion Warsawatik Pragaraino, Berlinen zehar zihoanari.

Zortzi lagun ginen Jan Stablinski buru zela. Hark itzulian hirugarren lekua hartu zian eta lehen poloniarra izan huan. Ordudanik txirrindulaz bizitzen hasi huan eta egun guztiz laurogei kilometro egiten zetian. Denborarekin Frantziako txapeldun bi bider eta behin munduko txapeldun izan huan. Ni aldiz, itzulian 40. garren lekuan urrutiegi nengoean; gero ez nian hark bezala, lanetik landa txirrindulatuz ikasteko gogorik eduki.

Hain zuzen lasterketara joatean ez genekiagun osaba eta aitona non bizi ziren. Orduan, askaziak berri ikusi netian. Agurtu. Helbideak trukatu. Geroztik elkarri idatzi zioagu. Beste lau aldiz, udan, Poloniako mendietan egon netian.

—Aita, Polonian ibili zinenean zergatik ez zinen han gelditu?

—Lehenik, beharbada koldarra izan nintzelako. Zegoeneko errusiarrek herria okupatua zieten, eta haien babespean, komunistek boterea hartu eta beste alderdiak debekatu zituztean. Egonaldi laburretan Polonia diktaturapean bizi zela hauteman nian

—Eta osaba hori zertara joan zen mendietara?.

—Gaixoa, anaiardiaren lehen lana izan huan zigor zelaian ezagutu poloniar neska aingeru batekin ezkontzea.

—Bai ezkondu eta Frantziara itzul zitekeen?

—Gaixoa! bigarren gerrate horrekin 1944.urtean bonbardaketa batek etxe-aurrea lehertu ziguan, etxe barruan lehertu gabeko bonbaz ere haien aita hilik gertatu huan.

Jarraian aipatzen diok nola ama alarguna etxe batean sei hilabetez egon zen, ezkondu arte. Franco-belga enpresa batek etxe bat doanik eman zigula, haien lan-tegian lan egin genezan baldintzarekin. Etxetik kanpoa ez izateko hamalau urterekin, ikasketak bihozminez utzirik, lanean jarri hintzela. Lehenik garraiatzaile eta zamaketari lan txikietan Fenwick altxagailuarekin ibili hintzela, geroxeago meatzetan lanean soldadutzarainoko epean. Soldadutzatik landa, Mariarekin ezkondu eta porlantegian zimendugintzan Dunkerke ondoan bi urtez ibili hintzela. Parisera joan baino lehen mekanikan gau eskolako prestakuntza hartu hukela.

—Aita zer bizitza!

—Orain, seme Pariseko bizitzaz nik bezainbeste badakik.

—Ez gara hara itzuliko?!

—Orain bizitza berri bat hasi behar diagu eta lehenik lotara.

Azkenean kanpinaren zoko batera goaz automobilean lo egitera. Bihar larunbata da eta trafikoko gutxi izango da Wroclaw hirian igarotzeko, lasterrago ibiliko gara.

Lo ederra egin dudala ageri da. Hamarrak dira. Bai argi, loa egin dut. Esnatzean gazte bat automobilaren leihoan. Zer nahi duen? Txiklerik badudanez, bluejeans bakerorik, dolarrrik badudanez, neska baten beharra dudanez. Banekien Errusian holakoak gertatzen zirela, baina Polonia ez ote zen berdin kutsatua?

Akanpalekua garbairik gabe utzi dugu. Harriduraz egon naiz Wroclaw hiri erdian, zer momentu ederrak diren, aleman estiloa gogoratzen dute, baina Tadeuszek ez du gelditu nahi izan. Beste behin! Beste behin!

Bai, uste nuen larunbata zela eta bidea laster egitea baina hona non bide ertzean bospasei automobil gelditurik dauden poliziaren kontrola dagoelako. Ni ere abiatzen naiz euren atzean jartzera baina polizia batek keinuz bidean jarraitzeko egin dit.

Zer izerdia izan duan! Ba ote huen eta hartu ote huen karta berdea? Zer esango zidaten nire poloniar berri pasaportean *Jan* hintzela eta gidatzeko baimeanean frantses *Jean* idatzia? Lasai, lasai urrundua naiz eta semeak galdetu dit:

—Aita, zergatik besteak geldiarazi dituzte eta gu ez?

—Baneki... baztertuak gehiegi zirelakoan eta guretzat ez lekurik.

—Aita ez dut uste.

—A bai bazekiat baina hik asmatu behar duk?

—Beharbada ez gaituzte poloniarizat hartu?

—Eta hire ustez zergatik?

—Automobilak frantses matrikula baitakar.

—Bai turistatztat hartu gaitikek.

Jakina laster matrikula hori aldatu beharko zioagu, arazorik ez edukitzeko, eta beharbada gidatzeko baimeanean zerbait idatziko, nahiz nazioarteko lizentzia den. Orain hasiko zaizkik horrelako arazo txarrak.

Wroclawetik landan nareago ibili hintzen. Errepidea estuago, biragune marradurak ugari. Semearekin kontuz ibili behar huen biragune horiekin eri ez zedin eta mendira heltzea goza zezan. Gainera lasaigo ibili arren, bide zuzena galdu huen. Atzera egin. Bahuen hamar urte ez hintzela gurasoen herrira itzuli eta oroimenak hutsuneak zetia. Gazte garaian oroitzen haiz zer bihotz taupada, zer horrelako mozkortasuna

ematen zian arbasoen herrixka ikusten huenean. Gaur berdin-berdina.

Urrunxeago mendiko bizitzaren gorabeherekin zirrara hori desagertuko zitzaiala bahekien. Jakin bahekien herria aldatua zela baina amestu huen aberriak dezepzio pixka bat eman zian. Batik bat, Krakow aldean eta Zakopanen ere gazteek Frantziakoak irudi amerikar bizi moldeen ihakina egiten zutelako.

Krakowan gelditu ginenean gazteek inguratu gintuzten, eta berriz aurreko komedia: lehenik beribilaz galdezka, gero dolar eskatzen, bakero jantziak erosi nahiz, txikle a nahi eta txarrena beti amerikarren goresmenez. Azkenik eta txarrenik droga eskaintzen edota dolarren truke beren neskak. Hau zena herri katolikoa, Aita Santuarena! Bai erresuma aberatsenaren mirespena du oraingo herri xeheak. Non dago antzinako katolikoek morala?

Lur zabal osoan amerikarkeria, indarrez edo komertzioz hedatzen da. Denborarekin konturatu hintzen alemanei barkatzenago zietela, aberatsago zirelako, errusiarrei baino, eta horretan bermatzeko komunismoa errusiarrek ekarri zietelako aiherra zietela.

Poloniar gazte horik Aita Eguzkiak sektan erakutsi haien antzeko karikatura hutsak hituen. Jakingo ote du herri honek bertutearen sektarismotik edota ustelkerien alderdikierietara ez erortzen? Gure mendiko herrixkan ohitura guzti horik ez zitezkean oraindik sartuko eta gazte sanoak egongo.

Bestalde, oroitzen hintzen hamar urte lehenago nolako bide ederrak ziren Polonian, Alemania komunistan baino askoz ederrago eta orain denak lapiko zuloz, zimurduraz, pitzaduraz beterik. Hor zegok, agian,

Gierecken erreforma, industrializatzeko baten emaitza. Frantziako poloniar horrek, Frantziako CGT sindikatukoei lagundu, eredu eder bat eman nahi zian. Begira Polonia Europako industria leku handiena! Europako Japonia!

## **Baserrian bizi noiz arte?**

Gogoetatsu nengoen, egun batean hirian bizi beharko genuela, eta semea giro horretan nola jokatuko zuen. Zorionez ere eskarmentuek lagunduko zioten semeari edozein zepo berritan ez erortzeko.

Horik denak, jadanik herrian herrikitzen, leku-kotzen hasia nintzen urtean, gogoratu zitzaizkidan. Heldu berrian semeaz kezkatua nintzen. Aspaldidanik Frantzian lagunik izan gabe zegoen, nahiz eskolan ibili ezagutzen ez zuen munduan baitzebilen, biak arrotz zitzaizkion baserria bezala jende ingurumena.

Hemen gure aberrian, arbasoen basa herrian, bere buruari erronka jarri dio Tadeuszek: kanpokoia izan arren haien heinera iritsiko dela, kanpokoia izan eta barrukoia bilakatzeko. Eskolan zintzoki, artoski, Frantzian baino hobeki, lanean ari da. Bai, jadanik Polonian sartzean sumatu nuen semea ez zela handik aurrera, jagoitik, egonezina izanen eta nonbait kokatzen, zerbait gisaz finkatzen ikasi behar zuela.

Orain, beste harrotasuna dauka: inguruan hainbeste lehengusu-lehengusina eduki eta denak langile presituak eta denak haren lagun on izan nahi lituzke. Mutilekin baino hobeki konpontzen da neskekin Tadeusz, ez da bizitzan bakarrik biziko.

Semea! semea! Eta alaba izan bahu berdin egingo huen? Berdin arduratuko hintzen? Semea zelako, agian, andrea utzi eta haurraren atzetik abiatu hintzen. Bai semea? Tamala Tadeuszek beste haurriderik ez edukitzea, baina anai-arreba ordeztu kusiak ugari izango ditu eta lagunak ere, apika.

Semeari esan diok kontuz ibiltzeko. Ez saiatzeko lagunen buru edo agintari izaten, dagoeneko izanen dutelako baten bat. Ongi ikasia zegok eskainitakoari jarraitzen edo ezezkoan ihes egiten, gatazka eta eskatimetan ez sartzeko, hori lagun txikiez onartua izateko bidea izango zaiolarik.

## **Errudunak**

Jan, andrea utzi huen eta hark aisa erabat baztertu. Gaizki bizitu ote hintzen harekin? Ez al dik Mariak soldadu hengoenean beretik eman, gudaitegitik arratsetan ihesi egiten huelarik? Gauero bere gelan, bere ohean hartzen hinduenean. Mariak Parisen lan-tegi batean lan ona aurkitu zian. Hik egonezinaz utzi. Berak ere bere lan ona, bere etxe bizitza eroso utzi atezaindegi ilun batean bizitzeko. Eta non zeuden hasieran Mariari hitz eman hizkionak, etxebizitza, lan finkoa, beste haur bat?

Eta hik, esker txarraz kanpo, zer eman diok? Aitor-tzen zian hire ezin egonak kezkatu-rik, arranguraturik urduri bizi zela. Hik gazte txoro horrek, adina joan ondoren, nerabetasunaren aldakorkerian jarraitzen huen.

Egongaitz jokabide zoro horrek lan batetik bestera eramaten hinduen. Tarteka andreari hire langabeziak



loa galarazten ziolarik, hi lasai, hartu erabaki gogorrez harro: behin nagusiarekin haserretu hintzelako, beste behin asperturik lana utzi huelako.

Andreak utzi hau. Zuzenean zegoean. Hik ere utzi huen. Berririk gabe utzi semearen atzetik henbilenean, behin ere telefonatu gabe. Ez hion inoiz bakerik eman eta ozta-ozta atsegina. Zer begia egin zian Eguzki Aita-ren logelan aurkitu huenean! Esan zian polonieraz ez hiola inoiz benetako orgasmorik, ez askatasunik eman. Merezia! merezia!

Ongi jokatu bahintz, hemen, Maria gurekin herrian zegokean eta ez hilik. Gauazko eldarnioetan, amesgaiztoz Eguzki Semeen sektako gomutak agertzen zaizkik, Jan: tiroak, suak. Garai hartako zaurien ordainak ezin ezaba daitezke.

Ez zaik dena ahaztu behar. Bizitzaren ulertzeko gizar-tean jarrartzeko, lagunekin ibiltzeko eskarmentuen oroitzapen mingarrienak beharrezkoak dituk. Oinazea zerbaitetarako duk: arrisku seinale.

Tadeuszi bidea erakutsiz bizi behar duk. Alegia beste aitek beren erantzukizuna ez zutela betetzen, hik semearen monopolioa eduki duk baina finkotasuna, zehaztasuna ez diok irakatsi. Hire egintzetan, ekintzetan, lanetan semeak eredu bat aurkitu behar likek eta biek beharbada, ozta-ozta, egonezin hori apur bat hezi duzue: zenbat eskarmentu, zenbat sufrikario alfer!

Noski, herriko ahaide guztiek semea urgazten diate, baina hik harren ardatza izan behar duk eta berak noiznahi gogoratzen dik. Hik, ordea, herri nahasi berri honetan lan egin behar duk eta astirik ez dik uzten.

Tadeusz semeak, aurpegi goibelenarekin, eta bekozko ilunez, hirekin hitz aspertua eduki nahi due-

la eskatu dik. Orain berean ordu da. Pentsatzen duk oraingo egoeraz zerbait larri esan gura diala, baina ez. Berba besterik izan duk.

—Aita. Amaren heriotzaz erruduna nauzu.

—Baina zelan ote?

—Eskapatu ez banintz, gauzak ez ziren hala harilkatuko.

—Ez, Tadeusz. Beharbada gaizkiago jazoko huen.

—Baina nire ihesaldia gure zoritxarraren iturria ez al da izan?

—Ez, semea, gantxo zital, maltzurra da errudun. Nolanahi, gisa batez edo bestez, bere sarean harrapatuko gintuen.

—Uste duzu?

—Soldadu lagun izandako honek ez ninduen us-tekabeen kalean topatu. Ziur nagok aurretik ezagutu ninduela eta hautatu. Gero gure helbidea eman nioan. Bai. Eguzki Semeen sisteman sarrarazteko sarea aurretik hedatua zian eta gure bizitzaren gorabeherak kon-  
tatua, nik diat errua:

—Baina nire ihesaldiak zepoa hedatzen lagundu zion, aita!

—Ez. Hire ihesaldia izan balitz ere sektan bilduko gintuan.

—Nola?

—Zelan? Ama beita, apasta bezala erabiliz.

—Ama apasta?

—Bai. Ez zara gomutatzen amak bere desafio oi-huen artean, guk baino lehen sekta ezagutzen zuela, aitortu zigula?

—Ama apasta harturik ere ez zen aski izanen?

—Bestalde jakin bazekien gantxoak lan arazoak nituela, bizitza arazoak genituela.

—Baina ihesi egin ez banu, ez gintuzten sektakoak erraz oratuko.

—Baietz bai, zepokari horik oso trebeak dituk.

—Tadeusz ahaztu egin itzak burutazio horik.

—Aita, ezin dut. Gauaz, usu, ama ametsetan bizi-rik dakusat

—Nik ere sarritan. Semea orain badakik ez haizela erruduna. Hemendik aurrera ametsa ez zaik zigor antzean agertuko. Ez duk errurik, ez duk hobenik.

—Aita, beharbada, beste gisaz gertatu balitz, beste bide batez jokatu banu, ama ere salbatuko genuen.

—Ezetz. Gu baino lehen eta aurretik liluratua fanatizata huan. Gaitz ken ezina. Ez zegoan, ezer egiterik.

—Baina nik ez dut deusik saiatu ere. Ez dut ezer egin.

—Hik Tadeusz Poloniara ekarri gaituk. Hemen ongi gaituk. Hemengo elkartasunak, hemengo adiskidetasunak, ez al dizkik Frantziako hoztasun eta garraztasunak ahaztarazi?

—Bai, beharbada bai. Hemen, bederen lagunak ditut.

—Bai, une honetan, erosoenik, hobekienik hago eta pozik nagok hemen gustura hagoelako.

—Eta zuk ez duzu hemen, herrian egon nahi?

—Ezin diat lan txiki horietan iraun, mendian hiria behar diat.

—Eta ni bakarrik utziko?

—Tadeusz gazte haizeino herrixkako giroan egotea berogarri baldin bada, ez al zaik gogoan sartu, agian, egun batez hirira bizitzera jaitsi beharko haizala. Han dituk baserrirako ikasketak egiten jarraitzen eta sarritan lana idorotzen ere.

—Aita! Hemen egon ahal banendi!

—Bai egia duk, bizpahiru urtez egon hintekeela, baina baserriko ofizio on baten ikasteko ere hirira joan beharko haiz.

Semea goibel utzi duk. Hiru urteren buruan, agian, helburuak aldatuko zaizkio. Egun batez behereko oihan eskola baten bisitatzera joan beharko diagu.

## **Lagunak! lagunak!**

Aitak dion bezala, lagunak egin ditut. Ez ditugu, ordea, eztabaidagaiak gutxi. Gure eskarmentuak ez dituzte ezagutu. Mutiko bitxia naiz haientzat, beste planeta batekoa. Eurek tiro zuritzat hartzen naute eta zirikatzen nautenean badakit haien perdigoiei erantzuten, irriñoa ezpainenetan ihardesten. Lagunen harrokeria barregai zait eta erasoaldiak ditugu:

—Geu poloniarrok Europako zailenak, langileenak, ausartenak, setatsuenak, mendera gaitzak omen gara.

Eta nik:

—Ez gara poloniarrek errusiarren eta amerikarren legez espazioan ibiltzeko gai izan.

Eta eurek:

—Bai errusiarrek guri lapurtu altzairu eta diruekin egin dituzte jaurtigailuak.

Nik:

—Bai, orain ez gaituzte gehiago errusiarrek larrutzen. Uste duzue espaziora joango garela, poloniarrek?

—Nork daki?

—Noizbait egiten badugu, bakoitzari kilo bat txokolate ordainduko dizuet.

Gero frantsesa banintz bezala –eta horretaz ez nintzen gehiago haserretzen– lagunek zioten :

—Bai zuok, frantsesok ez zarete gai izan Aita Santu baten emateko!

Eta nik:

—Bai, hura izango da espaziora joango den lehen poloniarra. Jainkoak zeruan leku bat erreserbatu baitio.

Nire iritzi ezezkorra lagunek baikorra bezala ulertu zuten. Aitari ez nion dena kontatu, Poloniako base-rrietan ez zela «jende sakratuez» ez eta «gauza sakratuez» barre egin behar esan zidalako.

Ez nion, beraz kontatu, hurrengo sesioan esana. Aita Santuaren zeruratzeaz mintzatu ondoan, neska batek gaineratu zuen, Aita Santua ez zela bakarrik poloniarra, baina eski egilea ere, gu bezala. Eta nik harrokeriaz jarraitu, *schuss* eginaz, beste turisten gisa Aita Santu Woytila agurgarria, noiznahi garaituko nuela. Hor, urrunegi joan nintzen.

Besteek harroputza nintzela erabaki zuten eta nik erantzun euren hitzak hartuz, benetako poloniarra beti harroa dela, zailena, langileena, mendera gaitzena. Lagunei ez nien nire sektako egonaldia aipatzen. Alpeetakoa bai. Haien mundua zen mendia. Kontatzen nien nola behi gazta egin nuen, egur biltzen eta hausten, iturrian ur bila ibilia nintzen.

Bitxia zitzaien ez nuela Parisez goraiamenik egingen. Paris lurreko paradisia zela uste zuten eta Eiffel Dorrea aipatu behar nien. Etxeetan zituzten erdi urratu *Paris-Match* eta honelako argazkidun prentsak erakusten nizkien eta polonieraz itzultzen. Bazirudin Elurtxuri eta zazpi nanoen ipuina kontatzen ari nin-

tzaiela, neronek hain zuzen ez bainekien zer zen Monaco edo hango printzesa, ez nuen ere sekulan Eiffel dorrera igo, edo ez nintzen Nizan egon.

Harritzen nituen, ezen haien sorlekua kanpoko begiz ikusten nuelako, egunerokotasunean hautematen ez zituzten egoerak eta jarrerak erakusten nizkielako. Gehienetan nire galdera asto inozo batzuekin gauzen argitzera behartzen nituelako ere, ez nintzen horretan aspertzen.

Azkenean lagunek zioten nire hautu-mautuak irratan entzuten eta telebistan entzuten zituzten bitxikerien antzekoak zirela. Heldubada, Alpeetan egon bahintz honelako lagunak egingo hintuen, Tadeusz. Mendiak jendeak hurbildu ditzakeelako.

Pariseko etxean gehienak zaharrak hituen, hogeituz urtez goitikoak, eskolako lagunak etxe askotan sakanatuak eta etxean Patrick lagun bakarra, maltzurra eta traidore ergela. Hori hien esaten Tadeusz, lagunei Frantziatik mintza hendin eskatzen zietenean.

Pazko hurbiltzea ostirale sainduz auzoekin mezara joan ginen apaizak Pazko eguneko janari batzuk benedikat zitzaizkion baita geuk umeok tindatu egiazko eta zurezko arrautzak ere. Aitak atzo: «*jutro woda dzien i Lany Poniedzialek*» esan zidan eta argitu poloniar ohi-tura zaharrez Pazko astelehen goizean lagunek urez garbituko nindutela. Halere, ezustean goiz honetan etxetik irten naizenean lau lagun oihuka eman zaizkiz eta burutik behera lauek, beren urez bete ontzia hustu ditek. Aitak ez zizkidan xehetasun guztiak eman.

Etxera itzuli eta aldatu haiz, gogoan heukala datorren urtean, geurtz, manga batekin, beste lau lagun-kin kidetasunarekin, eta ziraz ongi jantzi ondoren lau

lagunei itzuliko hiela, egina. Bestalde espainol lagun batekin ikasi huen Inoxenteen eguneko tarrapata-harraketak egingo dizkiek eta irakatsiko. Ea Historia Santua ezagutzen duten!

Benetazko laguna duk Zofia. Atzo iluna baino lehen ilargia agertu delako berak esan dit:

—Begira ilargia ez duk denetan zuri.

—Orban grisak baditin, baina ez hire oreztak bezain ederrak.

—Isil adi! Ba al dakik orbanak gizon bat dela.

—Harrigarria!

—Herrian diote Twardoski maisua dela. Gizon hori Sigismund August gure azken erregearen astrologo eta aztia huan. Erregeari Barbara Radziwill andrea hil zitzaionean, ezin kontsolatuz, astrologoari eskatu zioan andrea berriz biziarazi zezan. Horretarako Twardowskik ez zuen deabruarekin tratu bat eginez baizik erdietsiko eta orduan Satani bere arima saldu beharko ziokeela.

Astrologoak Satan deitu zuen, eta erran zion tratua Erroman eginen zutela, eta han bere arima deabruari emanen; alabaina hitzeman bezain laster damutu zitzaion eta Erromara joateko presarik ez zuen izan. Deabrua debru gure gizona Roma izeneko ostatu batean sartu zen eta han Satan aurkitu haren arimaren zain. Bizkarrean kargatu zuen Satan hegodunak eta hegaldatu; hegan eginaz espaziora joan zen. Twardowski gizajoa gaizki loturik Satanen bizkarretik erori zen, ilargiaren gainean erori eta geroztik betirako han dago.

—Zer diok horretaz?

—Ez dudala astrologo izan nahi, ez eta astrologo baten zerbitzua eskatuko ere.

—Eta galdu hukeen maitearen berriz ikusteko ez huke deusik egingo.

—Ez diñat horrelako itsuskeriarik asmatu nahi ia bizitu baidinat sektan nengoenean, baina konta ieza-dan zergatik auzoko lau neskek lore koroa bat erre kara bota duten.

—Egun batez, nik ere lore buruntza egingo diat, neskek hala uste baitugu edo amesten baitugu senar edo lagun on bat edukiko dugula.



## NOWA HUTA

Bihar, hirira, Nowa Hutara, *Sendzimir* altzairugin-tza lanera joan behar duk. Dunkerken hengoenean, bi urtez altzairuola batean lan egin huelako, hautatu haute. Bai zernahi egin hezake, frantses atezain izatea izan ezik. Nahiz komunisten garai gogorra ezitzen ari den eta desagertzen ari den, lanbide horretan, denbora berean, baldintzak zailtzen zaizkik. Dezente irabaziko duk. Ez komunistak nagusi bakar ziren garaian bezainbeste, baina tira!

Lanera hoala gogoan duk egun batez Tadeusz eta biok hirian edo hurbilean biziko zaretela. Denborarekin etxea erosiko. Horregatik badakik hire egonezina-ren menderatzen hasia haizela. Hemen Polonian lana nahiko urri egiten ari duk eta hik lantegi batetik bestera, eskuin-ezker ibiltzeko ohitura txarra galdu behar duk.

Nowa Huta, Krakowetik nahiko hurbil zegok. Haren errebal itsusia dela esan hezake. Fabrika herdoildu eta hautsez estalitakoak, moda zaharreko tximinia luze ke botatzaileak aski ez balira, gerrate ondoren arrapaladan hormigoizko etxe itzel grisak eraiki zituztean.

Etxeak ote dira pareta gris zikinak leihoen zuloe-kin, lantegi keek zikinduak, eta euriaren zarrasta isur-kin beltzez atzaparkatuak? Untxitegiak? Baina zer nahi

dugu, etxe ingurumen ederra lan barik? Noski, hiriaren erdian administrazioen eraikuntzek jauregi klasikoan itxura zeukatek eta beste aldirietan etxe politik baze-gok. Hor leku itsusienean, lan egin behar. Beharbada noizbait bizitzera etorri beharko.

Urrutian mendien ikuspegia, haize gorriak ekialdeko estepetatik jotzen duenean izoztuak. Itsasotik urrun egonaz, udan beroz itoak. Zer nahi dugu? Eguraldia eta ingurugiroa gure fantasiara ibil dadin eta gure tenperaturak +22° eta +28° gradutan egon daitez-zen? Orduan ere, inoren gustuko ez dituk izango eta gatazka gogorren gaia betik. Ez duk araez gertatuko. Polonian, giroari bihurtzen ikasi behar da. Herrian diote, lurralde hotzetan lana errazago egiten dela herri beroetan baino.

Nolanahi lantegi berrira hoa. Lantegi berria, bai eta ez. Bai gerrate ondoren egin horma berri batzuk, baina gure herrian alemanek egin kalteen ordain ideia bitxia izan genuen, jadanik erabiliak, zaharkituak zi-ren tramankulu eta erremintak alemanei hartzea. Hala makineria horiek mantsoegi ibiltzen ziren eta geldialdiak bazituzten, pieza bat higatua, bestea hautsia ze-lako kate guztia geldiarazia.

Errusiarrei erosi genizkien makina astunak ez ziren hobe. Gizon zaharrak ezin duen bezala kirolean irabazi, halaber, egoera hartan, poloniar ekoizpena ez zen lehiaketarako ona.

Laster konturatu hintzen eta Frantzian egon poloniar batzuekin iruzkintzen: antzinako komunistek esaten zutela Polonian komunismoarekin ez zela lan-gabeziarik, eta guk horregatik oraindik ikusten genuen lantegiek alferrik edo baliogabeko lan txikietan jende

asko erdi erabiltzen eta ordaintzen zutela, beren gaintasuna frogatzeko.

Bigarrenik erbestekoek hautematen genuen langileek zerematen lan erritmo narea-bareak edozein lantegi kapitalista ere suntsituko zuela. Jakina, langile gehiegi, lan kadentzia geldiegiak, langileen ekimenik gabe eta tresna erreminta zaharrekin, komunisten garai ederrenean, poloniar estatuak defiziten zuloak betetzen zituen. Gauzak aldatzen ari ziren eta iradokizunak onartzean, diru laguntzarik gabe, lantegiak bizia ala hil ari ziren berritu beharrez, estatuaren babesa eta monopolioak bat batean galduak zirelako.

Hara sartzean, beti lan berdinean, katea lanean aspertuko hintzela beldurra eduki huen eta onartu huen. Lehen urtean, ordea, gustura egon hintzen. Hiru bider lantokiz aldatu hinduten. Denetara moldatu behar huen. Zailena izan huen lankideen susmo txarrak gaititzea, garaitzea eta euren liskarretan ez sartzea, euren galderei lasaiki erantzutea izan huen bidea.

Aitor ezak ez zela hire egonezinagatik, baina mahuka «entxufe» ederra eduki huen. Lana erdietsi baino lehen oraindik lehen ministro zen Giereck komunistari idatzi hion. Gure Drocourt frantses herrixkatik hurbil, Frantzian bizitu huen. Gurasoen adiskide eta ia auzokide izana, hura ere Poloniara itzuli baino lehen. Gurasoez eta nitaz oroitu huen. Honela, eta mahuka handi horren bidez, ikas nezan, hiruzpalau aldiz lan postuz aldatu ninduten: arragoatik, trefileriarra eta laminaziora.

Hasieran ere Częstochowatik zekarkiguten ikatzaz kontrol lanetan arduratu nintzen. Ikatza sufreduna eta geroago eta txarragoa zen. Pixkanaka betak agortzen

zirelako meatzeak itxi egiten zituzten. Frantses armadana bezala testak igaro nituen; gero, gaitasunak eta argitasunak omen nituelako teknikari izateko eskaintza egin zidaten. Teoria ikasketa batzuen egitea eskatu zidaten lanbide hori ez bakarrik merezitzeko, batez ere ikasiaren ez galtzeko eta poloniar industrigintzaren teoriak eta hizkera hori ezagutu nintzan.

Andrzej teknikariak etapa bakoitzean lagundu ninduen. Urte hartan, lagun hark, erdi isilpean zegoen Solidarnos sindikatu katoliko hartara, eroan nahi izan ninduen. Nire ezezkoa eta uzkurtasuna poloniar berri izateari lotu nion.

Bazekien Andrzejek komunisten garaiko legezko sindikatu bakarrari ezezko berdina eman niola. Ez zen horregatik haserretu. Agian, egun batez haren sindikatuan sartuko nintzela gogokatu zuen. Jokabide horrek ez zidan kalte gehiegirik ekarri. Adiskide zintzo hori baliatu zitzaidan, handik bi urte, Giereck erori ondoren, lantegiko sindikatu buru bilakatu zelako. Hirugarren urtean kontrol nagusiko sailean sartu ninduten.

Gure lantegiak, ez dakit nola, Frantziatik plano eta teknika albisteak jaso zituztenak polonieraz itzuli nizkien. Gero, nik ahal bezala itzuli planoekin, bizpau lagunekin hobekuntza zerbitzuan sartu gintuzten, baina haiek ni baino trebetasun gehiago zeukaten marrazkien irakurtzen eta nire itzulpena hala-hola izanik ere bazekiten zertaz jarduten zuten planoek.

Lan istripuak ziren kezkarrienak edo langileak artamendu ziurtasun neurriak ez zituztelako betetzen, edo tresna-erremintak zaharregiz arrailtzen, hausten zirelako; baina hori aski izan ez balitz gure gazte lagun baten batek beribila zeukanean hiru lagunak hartu,

gaupasan, goizean istripuz hiltzen ziren. Hi behintzat Aljerian hainbeste soldaduen artean hainbeste istripuz hilak ikusirik oso zuhur hurbilen eta bi bider zogitasun hori baliatu zaik. Orain oroitzen zaik, baina ez diek lagunei kontatuko nola behin beribilean hindoalla, gelditu hintzen mina kentzaileen zain eta herriko frantses kolonialista “oin beltz” batek esan zigun lotsatiak ginela, bera gure aurretik joango zela. Hala mina zartarazi zuen eta hari minak bizia kendu zion.

Beste behin ofizial kokolo-memelo batzuk komandante, kapitain herabetuak gure aurretik igaro nahi izan ziren eta jeeptetik airera bota zituzten bideko minak. Jakina zauriekaz gerrate ekintza baten kondekora-zioa eduki zuten eta gu zauri barik irten.

Neronek, Dunkerken ikasi bezala, kontrol egiteko hasieran eskuekin, belarriekin, begiekin ikertu ondoren, optika eta manometroak erabiltzen nituen. Bakoi-tzak bagenituen gure iker maniak, baina denen artean txostena eginaz, erreminta bakoitzaren ahulezia edo ezineria aski ongi aurkitzen genuen.

Sartu nuen berritasun bakarra Mendebaldean ikasia nuen. Pieza landuagoak ekotomografiaz ikertzea akatsen ikusteko. Horretarako Belgikara tresneriaren eroatera bidali ninduten. Ez nuen gure antzinako Ipar Frantziako herrixkara itzultzeko kemenik izan, nahiz eta herrixka beltz horietan Parisen baino ordu ederra-goak bizitu nituen.

Berriz ere hain txukun, garbi den Belgika eta hain zintzo diren belgikarrak miretsi nituen. Frantses harropuz, arranditsuek, besteen bestelakotasuna onartzen ez dutenek, Belgika «herri txikiak» eta belgikar «ergelez», erdeinuz txiste arrunt txarrak kontatzen dituzte.

Frantsesei ahaztu egiten zaie Simenon idazle handia edo Hervé, Tintinen egilea, belgikarrak direla. Jakina, frankofono bat ospetsu egiten denean, ezin da frantse-  
sa baizik izan.

Belgikarrak finagoak, sotilagoak dira eta beren *swanze* txisteak hobe. Frantsesengatik diote:

*«Frantsesek bakarrik belgikar ipuin astoak kontatzen dituztela, beste guztiak ezin ulertuz»* edo *«Belgikan autopistak argituak direla eta ez Frantzian, frantsesek beren buruak argitzat hartzen dituztelako»*.

Egia da frantsesek nagusitasun konplexu ederra daukatela eta horregatik diote Belgikan:

*«Nola aberastu behar den? Frantses bat erosi, balio duen prezioan eta saldu bere burua estimatzen duen ordainetan»*.

Belgikatik itzuli ginen tresneriarekin, ekonomista, erabiltzailea eta ni itzultzailea; horrez gain garagardo onak ekarri genituen. Orduan jakin genuen, zorrik ezean, langabezia gutxiagorekin, garapen kontuetan, Frantziaren gainera zegoela Belgika.

Jakin nuen. Ezagutzen nuen, Frantzian ikusi bainuen, eta gogotik joan zitzaidan berrikuntza eder baten albistea: Bilboko tresna-erreminta azokan ibili zirenak ikusirik, zenbaki-agintezko makinak eros zitezkeela, ez laminaziorako bakarrik, noski, baina beste lan xeheagoetan jarduteko ere.

On egiten zuen orain mugak zabalik edukitzeak besteen ezagutzeko baina industria lehiaketa gogorrari buruz abiatzen ginen. Kezka zen makina horiek lanpostu alferrak galeraziko zituztela.

## HISTORIA DELA-ETA

Industrian gure kanpotar ekarpena baliagarri zitzagun, baina susmagarri ginen oraindik, eritasun kutsua ekarri bagenu legez. Andrzej lagunak galdetu zidanean zergatik gure gurasoak Poloniatik Frantziara «ihesi» joan ziren, bazirudien gure aita-amek aberria traditu zutela eta poloniar paradisu bat utzi.

Aitak erranak eta apur bat ahaztuak nituenak gogoratu zitzaizkidan. Lehenik Polonian jende gehiegi jaio zela eta gosea besterik ez zitzaielako eskaintzen, behartsu eta esteiari bizitzea, bestetik frantsesek Lehen Gerrate Handitik landa lanera deitu zituztela, orduan etxegintzan baita meatzetan, siderurgian pozik onartu zituztela poloniar langile agudoak.

Frantzia bigarren aldikoz Alemaniaren aurka guduan sartu zen eta 1940an mendeko bigarren gerratea galdu eta Ipar Frantzia okupatua, birrindua, lapurtua, gerra presoengatik jendez apur baterako hustua egon zela. Orduan, Poloniarrak, frantsesek egin nahi ez zituzten lanetara berriz Ipar Frantziako meatze eta lan-tegietara joan ginen.

Andrzej, aleman etsaiak aipatu diozkadanean barre egin dit, ezen Poloniak azken berrehun urtez bera desegin nahiz, bi etsai amorratu izan zituelako gutxiarik, Alemania eta Errusia. 1940koan Polonia bi zati

egin nahi izan zutenean, Stalin eta Hitler ohoinak adiskidetu ziren, gero itsuski haserretzeko eta elkarren etsai bilakatzeko. Hori banekien eta aurretik gogoetatu dut, baina Andrzejien ahotik besterik zen.

Ahaztu egiten zitzaidan komunisten eta nazien arteko Molotov-Ribbentrop akordio hori, agian, Frantzia, CGT. sindikatu komunistan larregi ibili nintzelako. Gure historiaren gertaera horik ez nituen inoiz argiki ulertu. Bai, XX. mendearen erditan errepublika izan genuen, baina Podolski Gudarosteburu diktadorea ere.

Banekien poloniarrek, hiru armadetan alemanen aurka borrokatu zirela. Gudalburu ospetsuena Anders izan zela. Rokosovski komunistak gerrate ondoren, demokratik gobernutik baztertu zituela eta Batasunaren izenean komunistak alderdi bakarrak, besteak irentsi eta Andersen itzulera debekatu zuela.

Aitak kontatu zidan, nola poloniar errepublikak 1945ean Varsoviako jazarpena alemanen aurka antolatzen zuten eta ibaiaren bestaldean errusiar komunistek, lagundu gabe, pozik ikusi zutela nola zepoan harturik, setiatuak komunistak ez zen demokratik elitea han hil zen. Alemanak hiriburuaz jabetu, eta suarekin osoki suntsitu zuten. Errusiarrei eta Moskovan formatu poloniar komunistei Polonia okupatu zutenean, demokratik gehienak halan garbiturik, erraza izan zitzaien gobernu komunistak eta alderdi bakarra jartzea.

Andrzejek azaldu dit, ez bakarrik judu izatea, baina poloniar andre edo gizon izatea nahikoa zela zigor zelaietara joateko, gutarrek ez baitzuten frantses askoren alderantziz, alemanekin batera kolaboratu, bi milioi poloniar eslaviar hil ziren zigor zelaietan. Hortaz zer-



bait nekien ezen Auschwitz-en egon osabaren etxetik igaro baiginen.

Sobietarrak ez omen ziren hobeki jokatu, nazien laguntzarekin Poloniaren erdiaz jabetu zirenean, errepublikatiarren armada preso hartu zuten eta Katyn herrian 4.500 ofizial fusilatu eta zulo bakarrean lurperatu. Hiltzaile handi gehienen gisa sarraskia agindu zuena, Stalin, lasai ohean hilko zen.

Kosielskeko zigor zelaian preso zeudenak N.K.V.D. Sobietar poliziak garondoan tiro batez akabatu zituzten. Orduan hasi nintzen ulertzen zeinen ahula eta txikia izan zen 1940 ondotik frantsesek alemanei egin barreneko erresistentzia. Behin nire Frantziako lankide espainolak kontatu zidan bere erresistentzia taldean ia denak penintsulakoak zirela.

Andrzej Solidarnoscekoa da. Argiki erakutsi dit komunisten «Demokrazia herrikoi» delako horiek herriaren izenean eta lekuan gobernatzean nahi dutena egiten dutela. Odolaren gainean eraiki direnak, odolarekin jarraitzen dutela. Horik ez dira demokraziak, *hemokraziak* baino, hots «odolisur kraziak». Hitz ederra itsuskeria baten aipatzeko.

Egunkariak irakurtzen ditudanean itxaropen eza jabetzen zait. Polonia bakean dago. Azken hilak komunisten tankeek Gdansken egotzi langileak izan dira. Noiz arte, bakea?

## 1991 urtean

1991.garren urtean gaude. Munduan ez dago bakterik. Egunkarian Irakurtzen dut, beren jendea gosea-

rekin edukiz, 17 afrikar herritan eta bospasei asiar herritan gerrate zibilak eta estatu kolpeak badirela. Han ez da komunismoaren edo faxismoaren errua. Gosete eta eritasun guztien artean beren arteko bileren egiteko afrikar diktadore eta erregetxoek sakelak betetzen dituzte, eta amerikarrak kaka nahasten.

Ezagutu berria dudan andre gazte batek, Anak, dio gerrateak gizonen, gizasemeen basakeriatik datozela; andrezkoek nahiko indar hartu balute ez zirela eta ez litezkeela hain odoltsuak izango baldin eta andreak emakume gisa joka balezakete eta ez gizonak imita. Anak dio, andreek biziaren emaile direlako biziaren errespetua dutela eta gizonezkoek edozein adineko edozein sexutako jendeen hiltzeko nonnahi, noiznahi gerturik ageri direla.

Oraingo poloniar eztabaidekin urruntasun zerbait hartu nahi nuen. Historia jakingarria zitzaidalakoan aitzakia hartu nuen. Honela idoro nuen Alemanak herriko juduak amerikarrei saltzen saiatu zirela, armen trukean eta aurretik gure arbasoek miseria gorritzen zenean judu *pogromak* egiten zituztela. Poloniak aukera ederrik galdu zuen. XIX.garren mendean *pogrom* eginaz judu asko Ipar-Ameriketako Estatu batuetara joan zirelako; han beren bankuekin, salerosketa talentuekin estatu haien aberastasuna egin zutela.

Bai, historiaren aitzakian kritikari bilakatu nintzen. Gure etxekoen emigratze poloniar errepublikaren garaiko finantza eta empresa ezintasunak baitezpada amildu zuten eta bigarren gerratearen ondotik ezintasun hori ez genduen gainditu.

Historia oraingotasunaren argigarri izan daiteke. Zoritxarrez ez beti baliagarri. Andrzejek kontatu zi-

dan zelan Gomulkak nekazaritza askea utzi eta sendotu zuen, poloniarrek azkenean normalki jatea zer den ikasi zutelarik. Garai hartan Polonia zen komunista herrietan itxura hoberena ematen zuena.

Nire gisako «frantses» etorkin batek, Giereck jaunak, komunista jardunbidea okerrenera eraman zuen. Nekazariak, ehun milaka, lurretarik kanporatu zituen, baserriak kolektibizatuz. Hirietara eraman zituzten fabrika berrietan lan egitera behartuz. Jendeak amore eman zuen zer ondorio izango zen ulertu barik: bai Giereckek esan zien Poloniaz Europako Japona egin nahi zuela.

Ekonomia eta industria antolakuntza merkatu ekonomian zer ziren ez zekiten, ez hark ez haren aholkulariek. Hain elkartasun eredu izan zitekeen komunismoaren izenean. Ez ziren gizabanakoen joerak kontutan hartu, ez eta merkatu ekonomiako lege arrunteak. Beraz Europako Japona izateko ideologia baten alde onak hartu eta utopia hutsezkoak ez zituzten baztertu.

Noski, zernahi gauza egin zen, baina eroslerik ez. Merkatua ez zen aurretik ikertu. Eskaera ez zen ikusi. Kalitate txarra egin zen. Hogei urte lehenago egiten ziren elektrika motorrak berriro ekoizten ziren. Batzuk noski kalitate ona egiten zutenean, gauzak Sobietar Batasunera eramanaz hango aparatxikien eta nomenklaturen onetan prezio berdinean saltzen ziren.

*Komekoneko* beste herri komunistek ere elkartasunez ez zituzten erosi nahi. Azkenean ez bakarrik industria, nekazaritza ere hondatu zen. Jatekoa, baserrietan izan ezik, urritu. Zorretan erosi beharra. Denak baratzak, ortuak egitera eman ziren. Oilategiak non

nahi. Hain zuzen gu Poloniara itzuli eta handik bi urte Giereck baztertu zuten eta nik ere *Solidarnosc* bozkatu nuen.

Europatik hurbiltzen ari gara eta nekazaritza berriro aske bada, industrian langabezia agertu da. Andrzejek uste du denborarekin lehenagoko oparotasunera itzuliko garela, baina noiz izan da aberastasun hori?

Bai, lehenago ekialdeko herri komunista batzuei kalitate txarreko altzairuak sakatzen bagenizkien komunista izanek Komekon sistema deseginik, munduan nonnahi eros zitzaizkien altzairuak; errusiarrek ia ez zizkiguten erosten. Eurek, gasaren trukean, altzairu onak Belgikan, Frantzian, Espainian eta Italian erosten hasi ziren.

Gure erronka izan zen ikatz hoberekin, ekotomografia sistemen bidez altzairuan zeuden «lastoak» eta «gereziak», gune hauskorren akatsak aurkitzea merkatu berrien irabazteko, ezen guk merkeago egiten baigenekien.

Berriki Belgikan egon nintzenean ikusi nuen beren herri ekonomia suntsituak Walonian ipar frantsesek baino askoz hobeki eraiki zituztela. Frantzian jadanik gure etxeak adreilu gris, merke itsusiz eginak ziren, eta lerroan emanadako *coron* meatzeari etxe hitsak ziren.

Belgikatik alderantziz, Frantzian errepideak, oraino duela lau urte, arrailduak, zuloz beteak edo harlauza zaharkituz estaliak ziren. Aldiz muga igaro eta etxe txukun adreilu gorri ederrean, errepide leunak, hirietan kale garbiak zeuden. Poloniak leku batzuetan oraindik Ipar Frantziaren itxura dauka. Herri ertainek handi izan nahian ez dakigu txiki batzuek bezainbat egiten. Harropuzkeriak itotzen gaitu.

Baratxe-baratxe merkatu ekonomian sartzen ari ginen. Demokrazia berria zeritzan zerbait abiatua zen edo behintzat alderdien aniztasuna. Noiz arte? Jadanik jende batzuek, komunisten garaian garatu gizarte eta babes laguntzen desagertzea, deitoratzen dute. Itsusiena da nola hemengo neskak joan nahian mendebaldeko edozeinekin ezkontzen hasiak diren, baita lanik gabez prostituta bilakatzen ere.

Solidarnoscetik demo-kristauen alderdia sortu zen, baina besteen kritikatzan hain trebe zirenak, badi-rudi gobernatzeko hain artezak direnik. Ahaztu egin zaie Solidarnoscekoei, salbu eta erlijioa beren heziketa komunista izan dela eta kapitalismoaz, liberalismoaz ez dakitela ezer. Merkatu ekonomiak oraindik inarrosaldi ederrik emango digu.

## Ekologistekin

Duela hilabete Andrzejekin Ekologisten bilera batera joan ginen. Frantzian «Berde» delakoez zer bait banekien, baina han, beren artean, kontraesan eta adituezin asko zeukan jendeak, kalean ziotenez, sandi frutak ziren: azala berde eta barrua gorri; honela ingurugiroaz eta ekonomiaz arduratzeko orde ezkerreko politika arazoetan sartuak zebiltzan.

Andrzejek ekologistak etxera deitu zituen. Haren etxe hartan sartzean bazirudien tenplua zela: gure Solidarnosctiarrek, gela nagusian ezkerretik hasita Lech Walesa, sindikatuko katolikoko buruaren argazki handia, erdian Woytila Aita Santuarena, eta eskuinean Wyszynski kardinalarena zeuzkaten, baina jende handiez hitz egitea ez zen gaia. Gure lantegiaz, bai, *Huta Sendzmir*a lantegiaz mintzatu behar genuen.

Neronek sekulan ezagutu lantegi zarratatsuena zela banekien, baina ez nintzen konturatzen zenbateraino ingurugiroa eta izadia kutsatzen genuen. Inguruko izai eta pinuak erreak bezala ikusi nituenean, sute bat izan zela pentsatu nuen. Ekologistek esan ziguten euri azidoek zituztela hostoak erre, halaber monumentu zahar guztien harria azidoek jana zela, eta arnasten genuen airea ere konposaketa berdinekoa zela.

Altzairugintzako ikatzak eta petrolioizko indarretxeek sekulako anhidrido sulfuriko SO<sup>2</sup>, botatzen zute-

la, eta lurtean erortzen zena nazioarteko arauak erabaki neurritik hamar bider gehiago zela. Erran behar da, berehala, errusiarrek Poloniako hiriak ikatzez berotzea agindu zutela, Ipar Frantzia bezainbat etxeak belztuz.

Gauzen ez errazteko gure mendebaldeko mugan alemanek eta gure ekialdeko mugan ukrainiarrek hai-zearekin guk ekoitzi kloroari eta sufreak berenak gehitzen zizkieten, kontutan hartu gabe Txernobileko atomo lantegiaren lehertzeak bota zizkigunak.

Jarraian biologoak esan zigun altzairu kiloak edozein gaiek baino ur gehiago behar zuela ekoizteko, paperak baino gehiago ere, eta garbitu gabe Vistula ibaira botatzen dugula eta hortik Baltika itsasoa, errusiar eta suediarrekin batean, pozoinatzen dugula. Ekologistek zioten antzinako labe garaiak itxi behar zirela, eta elektrikazkoak ipini, poloniar ikatza ez erabili, eta hai-zearen indarra bai. Atomoaren energia kutsadura iturri baizik ez dela. Hor ginen sindikalista eta teknikariak denak oihuz hasi ginen: langabezia sortu nahi zigutela, jendea miserian sartu, gure ekonomia kanpokoaren menpe jarri. Lanaren galtzeak, baita ez aldatu nahiak ere honela protestatzera eramán gintuzten.

Frantzia sindikatuarekin horrelako erreakzioak ikusi nituen, “nagusiak” beren akziodunek eskaturik bihotz gogorarekin aski izan ez baliren, langileek abantailak ez galdu nahiz, lantegien suntsitzea ekartzen zuela.

Eztabaida bukatu zen Andrzejek esan zuenean: «Polonian ez dago eztabaidarako lekurik, lanerako baizik», eta Ekologistek «bai, baina ez nolana hiko lana». Ez ginen akomeatu, alabaina, agian, ekologistek beren gisako hausnarketa gaia ere in zuten. Egun batez, ito baino lehen, ernatuko ote gara?

Oroitzen zitzaidan zenbat meatze gizon ikusia nuela, ikatz errautsak kutsaturik, silikosiaz arnasa galdurik, hiltzen. Nik behintzat, ordudanik, semearen osasuna gogoan neukan. Ez nuen Nowa Hutara bizitzera ekarriko. Krakowen ere airea ez zen sana, baina tira, ikasketak nonbait egin behar, ez Morskie Oko aintzira ederraren ertzean.

Andrzejek ez zuen ulertzen zergatik, bere ustez kultura aldetik ariketarik ez zen herrian, bakartasuna aurkitzen zen herrian bizi nintzen. Kultura zela erakutsi nion, beharbada, kanpotik ikusten nuela herri kultura bizi bizirik zegoela, baserrian. Gure herrixkan musikari eta dantzari taldea bazela, eta gizon askok zekitela zurean eskultura eta apaingailuak labanaz egiten, altzarietan margolanak egiten. Hori ere kultura zela.

Bigarren puntuan, erantzun nion isiltasunak eta osasunak ere balioa dutela; gainera baserrian elkar zaintzen dugulako, ez dela horrelako bakartasunik. Hiri handi edo txikian bakartasunean hil edo bizi litekeela; horretarako, atezain lanean nengoela esan gabe, sektan gertatu zena ere ez, zer bizitu nuen erasi nion.

Gure etxe hartako laugarren bizitzan mutil zaharra isila eta edale handia bakarrik bizi zen. Bakarrik ez osoki, arreba zeukan eta lagunak zituelako baina etxetik urrun. Behinola andrea eta biok bost egunez ikusi gabe egon ginelako arduratu ginen. Oporretara zihoanean beti abisatzen gintuen.

Lehenbiziko eskaileraburuan bizi zen poliziari aipatu genion. Hark beharbada ospitalean zegoela edo psikiatriko batean bere psikastenia sendatzen. Gehiago itxaron behar genuela. Halere, alboko auzoak esan zigun gizon haren pisutik zerbaite animalia usaina zeriola.



Hurrengo astean bizpahiru lagunek haren berri galde-  
tu ziguten. Ez zuela txinta jotzean ez eta ate jotzean  
ere erantzuten. Hamabost egun barruan haren lagun  
minak bere kezka azaldu zigun: oso zintzoa zen gizona  
bazkaltzera ez zitzaiolako etorri. Etxe bizitzara igo eta  
ate azpitik sekulako hatsa, usain txarra zerion. Polizia  
eta giltzagile bat deitu. Atea ireki. Eta hantxe zegoen  
hamabost egun haietan Eguberriaz geroztik, usteltzen  
ari zen, gizona.

Gero, guri galdezka ibili polizia batek, aitortu zi-  
gun, hilak zeukan arrebak urteberrirako gonbidatu eta  
azaldu ez zenean, andre hori ez zela horretaz kezkatu.  
Anaiak bere burua hil zuela, bere buruaz beste egin.  
Bai Eguberri egunean hil zen. Merry Christmas! Etxe-  
ko auzo bat hiletetan egon zen, eta antikristau zen  
horretaz, elizkizun horretan apezak egundainokoak  
bota zituela, erdeinuz eta erreprotxez, erranez ez zela  
alferretan jainkoa desafiatzen ibili. Auzo hori orduan  
zutitu eta kanporatu egin zela, arreba burges txiki hark  
antolatu “détournement de cadavre» hori ezin jasanaz.

Horrekin gogoratzen nintzen frantses batekin ez-  
kondu poloniar andre baten ehorzketan egon nintze-  
la. Senarrak ukatu ziola poloniar militantzian harekin  
ibili bati polonieraz hitz egiteko eskubidea. Bizirik  
gaudelarik, erdi-aske, hori egiteko lain badira, pentsa  
gutaz zer egingo duten hil eta gero!

## ILIA TABAKOWSKI

Lagunarteko bazkariak, lantegikoek, hilabetean behin egiten ditugu. Bazkariak lau ordu irauten du eta bi egunetako janaria, bat batean irensten dugu, janaria eta edaria ere jakina.

Andrzejek Solidarnosceko lagunekin antolatzen ditu otoruntzak, baina haren bilerak arrosario usaina dute hasieran eta wodka lurrina azkenean. Ez natzaio askotan ibiltzen, sektan aski sermoi entzunik nago eta; lanerako ez diren bilera horietan irudi zait anitzetan, denbora galtzen ari naizela.

Halere, asko baliatu zitzaizkidan apairuak, edariak mingainak irekitzen dituelako lagunak hobeki ezagutu nituen. Bai, sarritan, beren poloniartasuna aipatu ondoren, kontraesan osoz, kanpora bizitzera joateko ametsa aitortzen zidaten, eta batzuetan Frantziako eredu aipatzen bazuten betiko estatubatuarren mirespaina ezpainenetan zuten!

Behin, ekologista batekin, unibertsitario batekin, eta bizpalau lankidekin, bazkari handi batera joan ginen. Otoruntza historialari baten etxean zen, eta historiariak interesatzen ninduelako pozik hara joan nintzen. Hor zeuden etnologilari andere bat senarrarekin, bi andere hizkuntzalari, gure historialari arrotza bere anderearekin.

Gizon asko zeuden, ezen irakasle andere askorik ez zegokeen unibertsitatean edota holako aseka handiak ez zitzaien gogoko.

Oso nekagarria zitzaidan, Frantziari buruz galderak egiten zizkidatenez, ni Poloniaz interesatua nengoenean. Orduan, konturatu nintzen Frantziatik ez nekiela gauza handirik. Nahiz Parisen bizi hiriburuko egonaldi horrek ez zidan herri horretaz gauza handirik irakatsi. Nire erantzunak nolanaahi jakingarriak izan omen ziren, ezen egunerokotasunaren berri asko eman nizkielako. Batzuek, beharbada, beren komunista dotrina ezin ahaztuz Frantzia zen baino beltzago zekusaten eta besteek dotrina horren aihherrez Frantzia zen baino zuriago ikusten zuten. Joko horretan ez nuen sartu nahi izan.

Nire egonezintasunarekin zerbait ikasia nuen. Hain zaharra ez izanik ere eskarmentu anitz izan nuen. Esan gabe horietan sartu nintzela, sektako gauzak kontatu nizkiela baita Eguzki Semeen sekta zer bilakatu zen ere. Ihardetsi zidaten Polonian eta Errusian horrelako sekta asko sartzen ari zela. Bai, materiazalekeriaren ondotik erlijiokeriaren beste muturrera joateko joera baitzegoen.

Ipar Frantziako industria herri suntsituen egoera, batez ere, aipatu nien eta xehetasunak eman, ezen gu ere horrelako arriskueta galtzeko bidean baikinena, baita han bizi ziren poloniarren ondokoen berri ere eman nien, eta nola Bilboko ezkerraldera joan ginen ikusteko zelango industriak krisiari erantzuten zioen.

Halaber, luzaro Aljeriako gerrateaz mintzarazi ninduten. Aipatu nien nortzuek Aljerian felagak torturazten zituzten, ofiziozkoek haina kintako soldaduek. Eta

nola ofizio horretan mutil apal, isil, argala, morroskoa baino iraunkorrago eta eraginkorrago izana zen. Torturen basatasunak harritu zituen eta zeinek eta frantsek eginik. Sinesgaitz zitzaien.

Jarraian kontatu nien nola Aljeriako gerrate garaian herrixketan jende xehea, emakume, zahar eta haurrak errepresaliaz hiltzen zituzten, frantsesek eta halaber Aljeriar iraultzaileek ere. Egia da niri ezer egin ez zidatela musulman gudari xumeen hiltzen ibili nintzenari. Hori zen niretzako gudua, baina torturatzea ez zen gerrate batzuen erdeinua, beste batzuen sadismoa baizik.

Hainbeste galderaz ez nuen asko jaten eta saiatzen ziren niri edanarazten. Ez edanaz jarkitzen ikasi nuen, baita haien galderei nire galderekin erantzuteko bidea mozten ere.

Frantsesen jende zaletasuna dela-eta, beren artean eztabaida bat piztu nien. Gizon horietarik anitzek nekez ulertzen zuten «Le pays des droits de l'homme» prententsioa zeukana hain apal jaitsi izana eta errepublikar zirela zioten horiek kolonietako gerrateetan ibili izana, alegia Frantzia Asiaraino eta Afrikaraino hedatzen zela sinestarazi eta jakina hango herrien zibilizatzeko euren menpean eta euren ekonomia balorapenean aberasteko aukera aipatzen zietela. Frantzian eskola elebakarra eta derrigorrezkoa sortu zuen Jules Ferryk ezkerrekoak ez al zituen azpi arraza kolonizatuak eta goiko arraza zibilizatzailerak aipatu?

Batzuek zioten Frantzia bakearen misiolaria izan zela beti; bakeagatik guduan sartzen zela bakarrik. Besteek eta batik bat historialari batek aldiz Luis XIV. garrenak gerraz eta odol anitz isuriz herriak konkistatu zituela: Alsazia, Katalunia, Flandes.

Napoleon I. ak bere senidei tronu emateko milioi bat eta erdi gizon hilarazi zituela. Batzuk behintzat agintari absolutisten liluratik atera ziren. Zerbait gisaz Stalinen esku latza jasan zutenak sendatuak ziren.

Denak ez, ordea, bazeuden oraindino gure herrian beste askotan legez, agintekeria ederresten eta agiantzatzen zekitenak.

Napoleonen inguruan zen berotu eztabaida, lehen-danik Maria Walewska baten ohea ohoratu zuelako, Polonia une baterako antolatu, nire deiturako Henryk Dabrowski Napoleonekin jarri zelako Poloniaren berpizteko, baita historian zehar, Frantzia gure erresumaren alde agertu zelako. Batek esan zuen Napoleonen hilak xehekeriak zirela, Hitlerrek hil hamar milioiak eta Stalinek hil berrogei milioiekin erkatzen baldin baziren, eta orduan apur bat hoztu zen eztabaida.

Hor nonbait zeuden antzina Stalinzale izan zirenak. Hain zuzen bazkaria hasi baino lehen agurtu nuen, Parisen ezagutu Ilia Tabakowski, Parisen fama ona zeukana. Historialari hori, komunisten garaian, mundu guztian zebilen poloniar diasporaren bisitatzen.

Mahaian jartzeko orduan Iliarengandik oso urruti gertatu nintzen eta gure anfitrioren alboan. Beste mahaikideak liskarrean sartuak zeudenean historialari horrek Iliaren nortasuna argitu zidan.

—Nahiz komunistek boterea galdu berria duten, Frantzian ezagutu duzun gizon hori komunista izana ez da unibertstatetik kanpo bota izan.

—Komunista izatea ez da bekatu!

—Ez, baina errusiar NKVD espioitzan eta Poloniako alderdi komunistarentzat sarekada egiten ibiltzea ez da erru txikia.

—Nola dakizue?

—Orain, komunistek artxiboak ireki dituztelako lehen eta behin. Guk sumoa geneukan, guri hain zaila zitzaigunean atzerrira bisitaz joatea, bera historialari gisa mundu guztian zebilela, batik bat poloniar ondoko anitz zen herrietan, eta erbesteratu adituenak berreskuratzen.

—Baina diasporako poloniarrek ez zuten erreze-lorik?

—Zuk izan ote zenuen Parisen ezagutu zenuenean? Ez. Tabakowskik, batzuetan bere burua iheslari bezala aurkezten ere zekien, baina luzarora jakin zen hain erraz herri batetik bestera zebilena eta honela katedratiko bilakatu zena, komunisten espioia zela.

—Baina Polonia ez da Errusia, zer jakitera zoan?

—Lehenago komunistek, zekitelarik nonbait haien aurkako politika higikundea sortzen zela, hara zoan historialaria eta behar ziren informazioak biltzen zituen.

—Baina komunismoa erori berria da, zergatik ez diozue aitorrarazten.?

—Berak aitortu digu eta idatzi, munduaren zehar zeuden jende baliosak, adituak, Poloniara itzularazteko lana egiten zuela, baina bospasei urteren buruan ez zen zurrumurrua baina egia jakina: itzultzen zirenak preso sartuak zirela edo arrastorik utzi gabe desagertzen zirela. Berak zion ez zela bere errua eta ez zekiala, ekarritakoekin zer egiten zuten.

—Nola zitekeen ez zela konturatu berreskuratutakoak desagertzen zirela?

—Nire ustez bazekien itzuleran zer gertatuko zitzaien.

—Hori dakizularik zergatik lankide hau otoruntzara gonbidatu duzu.

—Ezin dut gure ohitura hori hautsi eta komunisten garaian ere denak bazkaltzera deitzen nituen. Ni ez naiz epailea.

—Merezi luke, salatu gabe, bazterrean uztea, behintzat.

—Ez duzu oraingo Polonia ulertu: mahaiaren beste muturrean daukazu Iliaren arduraz preso egon zen kimikari handia.

—Zer mundua!

—Ez badugu gure herria desertu egin nahi, antzina komunista izan zirenak ere, bizitzera utzi behar ditugu, bestela, errango lukete eurek bezala jokatzeko dugula. Politika sistema guztiak aldatzean ez ditugu galtzaile jendeak birlen eta boloen moduan lurrera irautzi behar.

Nolabait, Ilia Tabakowski gure arteko txitximutxikak ikusi zituen, eta ustekabean, gure hizketaren harian, sarritan begiratu nion, baina bazkalostean bere bi liburuxka eman zizkidan, biak Frantziako historiari buruz eginak eta Frantziaren eta Poloniaren arteko harreman zaharrak eta adiskidantzak aipatzen zituztenak.

Ba, Frantzian Gestapoarekin kolaboratu zutenei atxilotu eta lepoa moztu zieten, baina hemen Polonian beste herri batean geunden noski, *sekretako* hiltzaile lagunak lasai bizi dira. Egia da herri auzoan Errusian NKVD komunista polizian egon gizonak dutela herria gobernatzen eta pribatuki erresumaren ogasunez jabetu direla. Lagunek zioten berdin Espainian faxista hiltzaileak eta haien semeak oraindik, fragante, boterearen belardietan hausnar bazkatzen jarraitzen dutela.

Beharbada, frantsesa, alemanaren gisa, mendekatzaille handia da Gogorazi nien Frantzian lau bider 1793.an 1816.an, 1870.ean, 1944.an beren aldetik ibili ez zirenak, terrorea sortzeko, erail zituztela: errege-zaleak lehenik iraultza terrore beltzean, gero erregeen itzuleran iraultzaileak terrore zurian. Communeko jartzuek beren kostuz jakin zuten, baita gerrate bukatzean alemanekin kolaboratu zuten frantsesek. Baina mendekatzaille ez diren herriak ez ote dira hala paradirik ez dutelako izan edo aski indarririk ez dutelako?

Gauza horiek aspaldikoak edo iraganak izan arren, Poloniak ahoan ematen zidan ezintasuna samintzen zidaten. Inperiokeria herri batez jabetzen denean eta espetxea, armada eta polizia baizik ezagutzen ez duenean, badira beti barneko edo kanpoko arerio horien herritar laguntzaileak. Beste aldi batez Andrzejekin izan nuen sesioa. Hasi zitzaidan esaten

—Bazekiat zenbateraino Frantzian, familia, lana eta aberria ez diren gehiago baloreak.

—Ez duk hori osoki hala, Andrzej nahiz gizabana-koaren mirespenean estatubatuar gizartea ihakintzen dutenei, urruntasun batekin ezen egiten dien. Estatu-batuetan isilpean dabilta, aldiz Frantzian barneko sekretuan eta barneko begirunean egon behar liratekeenak kaletan oihukatzen dituzten.

—Bai bazekiagu, Jan, behin prostitutak, hurrengoan, lesbianak edo pederastak, abortuaren aurkakoak, dibortziatuak eta beste, karrketan beren kezkek aldarrikatzen dabiltzana.

—Baina zer egin?

—Geuk poloniarrok eginbidea, eginbeharra diagu Europaren berriz kristautzeko, europar gizartea osoki usteldu baino lehen.



—Baina zer da hiretzat kristautasuna?

—Gure katoliko eredia.

—Baina praktikan Birjinari otoiztea? Kofesatzea?

Aita Santuaren mirespena.

—Ez, bizitzan bekatu gabe bizitzea.

—Utopia egilea haiz. Ameslaria ala itsua?

—Ez, ez guk bezala egin dezatela Europa osoan!

—Zer? Bekatua egin eta zuretzat gorde?

—Bazakiagu kofesatzen.

—Kofesatu eta bekatuan jarraitzen bada zertarako?

Bai ikusi dizkiat kofesategietan jendeak lerroan itxoi-ten, baina denbora berean hirian nonnahi Frantziako “ustelkeria” delakoa aurki hezake.

—Zakopanen ez?

—Baina geroago eta poloniar gehiago hirietan bizi dituk eta hemengo nire denbora laburrean gazteengandik, batik bat, eskarmentu txarrik ezagutu diat eta ustelkeria dion horietarik franko.

—Karriketari ikusi dituk?

—Jakina, poloniarrek ez gaituk, hetero ala homo izan, karriketari gure ipur arazoak, aldarrikatzen irte-ten... nahiz beste europarrek bezala baditugun. Zer ba? Polonian, zurikerian bizi garelako hobeak garelako? Non daude kristau baloreak?

—Ez duk hirekin hitz egiterik frantses eta ateo bilakatua haiz.

Funtsean ez diek esan baina Frantzian miretsienik dukeana erlijio zapalkuntzengandik babesteko laikotasunaren askatasuna planteatzea duk. Sinesten ez duena ez da dagoeneko erlijiotara joatea behartua, jakina. Poloniako katolikokeriak izutzen hasia hintzelako Frantziako giroaz oroitu hintzen

Biak eztabaidaz asperturik hotzik agurtu ginen eta etxera sartu. Bi monologo eramane genituen. Ohean ezin lo eginaz sentimenduen bizitzan ni ere ez nintze-la zuzen ibilia eta ez da eredugarria, gogoan inguruka huen, gau hartan pentsaketa ilunetan ez huen lo handirik egin.

## BIZITZA BERRIA

Ez zintuzket gure lehenagoko historia kontaerakin aspertu nahi. Nire bizitzak bide berria hartu zuen, ingineritza bulego batean lan egiten zuen Ana andre gazte hura ezagutu nuenetik. Atzo, Ana, nire adiskide kutunarekin nire gogaidearekin, hizketan egon naiz.

—Bazakin herri honen aldaketa ez dudala ongi ulertu, ulergaitza zaidala. Zergatik ez zarete hainbeste poztu Berlingo harresia duela bi urte egotzi eta apurtu zutenean?

—Gizona, beti bi etsai izan ditiagu. Gu irentsi eta lurraldeak beretu nahiz, alemanek eta errusiarrek beren artean itun batez jauki zuten. Berlingo harresia erortzearekin, suntsitzearekin eta haren ondorioz Alemania bat egin denean ez gaituk alaituegi, gure auzoa sendoago eta gainditzailleago izanen dela baizekiagu.

—Baina, neska! denbora berean Ekialdeko Europa preso edukitzen zuen burdin hesia ere kendu zaigun eta ondotik Errusiar etsai izana indargetu, eta gu Polonian askeago gaitun. Ez duzue hori guztia ikusten?

—Bai, Jan, beldurra genuen, ordea, atzerakada horren aitzakian mendeetan eztabaidatu lurraldeen eskaera eginen zutela, edota ekonomian zerbait tranpa egingo zigutela.

—Bai ulertzen dinat azeriak ilea alda dezakeela baina larrua ez, eta beti bi auzoekin zelatan egon beharko dugula.

Anak, laneko lagun minak kontatu zidan zelan Gdansk-en fabriketako langileen aurka, greba zapaltzeko eta hausteko komunista herrien paktuko tankeak tiroka ibili ziren.

—Bai guretzat bi bider iraina, langileen hiltzea baina eta bestea etorri ziren militarrek Varsoviako Paktua-  
ren izenean jardun zutela baigenekien. Jakina, herri-  
ren eskubideak zaintzeko eratu Varsoviako hitzarme-  
nak eta sobietarren guda-gurdiak, Budapest-en sarraski  
handiagoak egin zituzten.

—Ana, miresten dinat gure Polonia. Beti indarra, kemena, nahikundea izan duelako, itzalia zen uneetan berriz pizteko.

—Indarra, Jan, amets egitean zegok. Ametsa historiaren oroitzapenez hazi beharra duk eta itzaropenez urratsez urrats eraiki. Ameslari izatean ditiagu gure errege kanpotarrak poloniartu eta gure kulturaren sartzera behartu.

—Eta demokrazia?

—Hori ere ametsa duk. Amets hori ez diagu galdu. Oraingoan aberriren bat egitearekin lotu diagu.

—Baita katolikotasunarekin ere. Ez dinat Elizaren jokabidea beti ongi ulertzen?

—Komunistak laiko edo ateo izanik Eliza ezin huen haien alde agertu.

—Ondoren, Komunismoa=Errusia esaera apezek sotilki erabiltzen jakin zinen. Katolikotasuna eta gure poloniar abertzaletasuna elkarrekin lotzen ere. Wiszinski kardinalak, hartan eragin handia eduki zian.

—Ulertu eta sentitu dinat ere poloniarrek katoliko aitortzearekin mendebalde europarrak izan nahi dugula, eta ekialdeko ortodoxoei bizkarra eman.

—Bai, bai. Aski duk gure ondarearen ikustea: arkitektura, margolaritza, zizelkaritza, musika eta ohiturak. Ez dituk batere ekialdeko bizantinoak.

—Polonia hobekixego ulertzen dinat, hi haizela medio.

—Jan, ulertu duk. Hemengotuko haiz, baina Poloniako ametsaz kanpo, gizona, nahi nitek beste amets baten eskaintza egin. Gogaide gaituk. Begiek salatu haute, elkarrekin bizitzeko ametsa gauzatu behar diagu.

Urtea joan zitzaidan Anari ezer aitortu barik. Orain, benetako maitasuna barrutik jabetu zitzaidan. Eta hark atea ireki. Ez zen oraingoan lehen bezala gorputzaren nahikari hutsa. Berak lehen urratsa eman zuen eta egin ez balu elkarrekin bizitzea luzatuko zen; beharbada bera aspertuko, urrunduko. Haren urratsa sendoa izan ezpalitz ez nintzen harekin bizitzen ausartuko, iraganaldi astuna, erruduna bizkarrean bainerman. Hain garratza da bizitza erdi hautsien zatiak eskaintzea, zaurien irekitzea, nahiz hori maite duzunari senda zentzat eskatuko diozun.

Bai, bitxi zaik oraindik hire gizon rola andere horrek hartuko duelakoan: hi haizela zaindua, gerizatua eta hura pertsona indartsua, sana eta argia. Jakina, gizonetzkoekin berdindu nahian andre batzuk gure ohitura txar guztiak hartzen dituzte. Agian, Ana bezalako neskek beren gisako andre eredia sortuko dute. Erraz onartuko al duk hark eskatua, hots biak familiaren erantzule, biak gizartean parean ibiltzea?

Asteburuak bakarrik harekin igaro nahi ditudalako mendian dagoen semea abisatu behar nuke. Hobeki erran, denek dakite Tadeusz semeak izan ezik. Azkenean aipatu diot eta hark erantzun:

—Ez, aita, ez. Ez naiz hemendik joanen.

—Zein gogorki erantzun didan. Noiztik ikasi duk honela ihardesten?

—Aita, zurekin ikasi dut.

—Nirekin?

—Bai, amaren gutxiesten hasi nintzen, zuri beti bai esaten zizulako edo isiltzen. Zu miresten zintudan, amari ez esaten, oso iaioa zinelako.

—Baina nik bizitza berria eraman behar diat.

—Eta nik ez. Zuk aisa atzeman duzu andregaiia, baina nik ez amarik. Bizitzan ama bat baizik ez dugu.

Esan diot ez diodala amaorde bat inposatuko. Ez garela, apika, ezkonduko.

—Ezkon zaitez nahi baduzu. Ez niregatik egon, baina hirira joaten bazarete, ni mendian benetako *górale* izateko, Chocholowen laborari giroan bizi nahi dut.

Buruz buru hago semearekin eta irudi zaik hamar urteez ez haizela semearekin mintzatu. Ez duk semea ezagutzen. Semea, ordea, hi baino irmoago duk. Hilabeteak sektan igaro-eta askatasun joera eta egutegi gabe denboraren ibilera, gorde zian.

Baina, berriz Anaren irudia gogoan nagusitu zaik. Olerkari banintz, agian, Ana nola den banekike esaten eta artista banintz margotzen: ile luze malgu beltzaxaranean nire buruaren sartzea goxo zait; haren suzko begietan murgiltzea ere berogarri; haren aho imana zait. Lehengo aldiz Anarekin elkarrekin dantzatu garenean

haren gorputzaren moldean trinko jarria, erotu behar nintzela uste nuen. Eta geroko laztanak eta musuak. Ezin ginen berezi, bizi, bihotzak eta gorputzak deika ari zitzaizkigun.

Semeari Anarekin biziko naizela ahal bezain sotilki, aipatu behar diot. Nola nahi irudi zait bizitzan aski denbora galdu dudala eta semeak onartuko duela.

—Mendian egongo zara urtebete. Gero, noizbait, bi urte hirian egon beharko zara. Ondoren, ikusiko dugu nekazaritza eskolaren egiteko hori eta. Astero Anarekin etorriko natzaizu. Aurkeztuko dizut nahi baduzu.

—Bai, nire aita izaten jarraitzen baduzu, oro bat zait.

Asteburuetan mendira etortzen garenean Tadeusz mutu egoten zaigu. Lehen aldian ere oihanera ihesi joan zen. Ez dio Anari ezer esaten. Anari esan diot mutil isila dela. Gainera, orain hamalau urterekin nerabetasunaren krisian sartua, ez da haren jokabidea harrigarria.

Tadeuszi, horregatik, tutik ez diot esaten, baina niri zerbaitxo aipatzen didanean amaz mintzatzeko da. Ez nekien zenbateraino ama zenari lotua zen. Bihotz urradura hau eduki zezakeen, biak eskapatzeko, Eguzki Semeen sektakoen atzapar artean ama utzi behar izan genuenetik eta gehiago dena hilik ikustearekin!

Lanean esan didate iaioa, argia naizela, baina argi guztiek itzalaldiak dituzte. Oraindik ez dakit jendeen ezagutzen. Orain arte nire ahulezia handiek ez didate bihozmin handiegirik eman. Errazago zait erremintekin jardutea jendekin baino. Jadanik, nire emazte zenarekin geneukan errudun zama semeak eta biok arin-

du dugu. Ez gara sendatu baina egonezintasuna galdu, bai.

Nire bizitzako bakealdia ezagutzen dut eta lehen garbai gogorrekin zorionaren bidea hartuko dudala badakit. Ezkonduko naiz. Semea lizeoan ikasketak egin ditzan Krakowara ekarriko dut. Bi gelatako bizitza hartuko dut. Hirutakoak anitz garestituak dira. Komunismoa berriki eroriz geroz prezioek % 30ez go-ra egin dute.

Badakit semeari mendia faltako zaiola eta nekez onartuko duela, baina asteburu guztietan autobusa Krakowen hartuko dugu. Guk ere, agian, mendiaren beharra izanen dugulakoan, opor guztiak Tatra mendietan igaroko ditugu. Mendiari lotua denez, hemen-dik bi urte, nekazaritza eta basogintza eskola batean ikas dezake, basoko eta lurreko teknikaria izateko. Zakopanen honelakoa bada.

Etxebizitza erosirik, bihar Anarekin eraztunen eroatera hoa. Anaren labe goxoan sartuz hezur berriak egin dizkiok, ez dik ezkontzara behartzeko, umearen baldintza ipini nahi izan.

Denborak aurrera egin dik orain arte hala izan baitu joera arrunta. Haurra jaio da eta alaba horren aita haizela ezagutu duk. Orain bizitzan helburu argiagoa dakusak.



## AZKENA

Piotr Dabrowski naiz. Jan Dabrowskiren lehen-gusua. Nowa Hutarik nator. Ez dakit Tadeuszi zelan esango diodan albiste samina. Jan, aita hil zaiola aitortu behar diot. Bai lanean tramankulu tzar baten iker-tzen ari zela, zauritu eta odolustuz joan dela.

Gure Polonian badakigu industria zaharkitu zai-gula. Horixe zion anitzetan Jan zenak. Zaharkitu eta hamaika istripuen eragile, hamaika gizasemek alfe-rrikan bizia galtzen zutela salatzen zuen eta gero berari gertatu zaio.

Tadeusz haren semea bizi den etxaldera, mendi-ra noa oinez. Nor aurkituko dut etxean? Halabeharrez kanpoan dakusat Tadeusz langilea, aizkora eskuan egur arrailtzen. Ikusten nauenean lana uzten du.

—*Dzien dobry Piotr!*

—*Dobry, Tadeusz.*

—*Gdzie jest ojciec?*

—*Z miastoy.*

—*Nic Nowego.*

—*Nic dobrego...Jan..tata..bardzo zle.*

—*Chory?...Zabito go?*

—*Nie Tadeusz, umarlem.*

—*To niemoliwe...Gdybym wiedziala! Gdybym wiedziala!*

—*Jest mi bardzo przykro*

Etxe aurrean dagoen harrizko aulkian esertzen da. Aitortu diot aitaren berri txarra, hirian dagoela, ez dela zauritua ez, hila baizik. Aita istripu batean hil zaiola. Jakin banu! jakin banu! esanaz bere burua errudun jarri ote du?

Ez du ezer erraten. Ez du berehala negar egiten. Ulertu ez balu bezala, sinets gaitza zaio. Onartezinezko patua, galdera ero batean itotzen zaio. «Ziur zara aita zela?». Zer egin ez dakidala niri ere begia ihintzez busti zait.

Burua bi eskuen artean harturik malkotan leher-tzen da mutikoa. Mozkor baten antzera zutitzen da. Ezker-eskuin zabu zabuka etxeari buruz joaten. Atean, kusinaren besoetan erortzen, itotzen dena flotari, boiari lotzen den legez.

Gero, Tadeusz, ordokiari, lautadari begira, Nowa Hutari buruz ukabila erakutsiz «*Frantziak ama lapurtu dit, Poloniak aita, eta zotin batean ahapetik orain mendia dut ahaide bakarra?*».

*EGUNERO IRAKURTZEN DELAKO*  
BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna.*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala.*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare.*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean.*
6. Aurelia Arkotxa: *Fragmentuak.*
7. Karlos Linazasoro: *Esan gabe doaz.*
8. Antonio Casado da Rocha: *Esku ezkerrez.*
9. Karlos Linazasoro: *Apenas.*
10. *Iragana gero eta handiagoa da.*
11. Fito Rodriguez: *Biktimari agurka.*
12. Txomin Peillen: *Jan Dabrowski.*